EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

# GIZARTERATZEKO ERAKUNDE ARTEKO II. PLANAREN EBALUAZIOA

2009ko martxoa

# Aurkibidea


Aurkibidea ........ 2

Taulak ........ 4

SARRERA ........ 6

I. ATALA EBALUAZIOAREN LABURPENA: LORPENAK ETA ZAILTASUNAK ........ 10

GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMA ........ 11

GIZARTE BABESERAKO SISTEMA OROKORRAK ........ 19

PLANAREN KUDEAKETA ETA EZARPENAREN ETA INPAKTUAREN JARRAIPENA ........ 23

II. ATALA JARDUEREN GARAPENA ........ 25

1. GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMA ........ 27

1.1. ARAU ESPARRUA EGOKITZEA GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROZESUAK ANTOLATU ETA ERRAZTEKO ........ 27

1.1.1. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat orain arte egin diren enplegu-politika aktiboak indartzea eta sustatzea ........ 27

1.1.2. Arauak egokitzea, gizartegintza indibidualizatua sustatzeko eta indartzeko eta gizarteratze-mekanismoak areagotzeko ........ 36

1.2. GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESERAKO POLITIKEN DIAGNOSTIKOA ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA BATERATZEA ETA OROKORREAN HEDATZEA ........ 40

1.2.1. Beharrezko erreminta tekniko eta informatikoak garatzea eta hedatzea gizartegintza indibidualaren diagnostikoa eta plangintza azkarrago burutzeko, eta informazioa hedatzeko eta eragileak koordinatzeko, bai plangintza orokorrari bai esku-hartze pertsonalari dagokionez. ........ 40

1.2.2. Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea, ebaluazioen, jardueren jarraipen sistematikoen eta kalitate-planen ezarpenaren bidez ........ 54

1.2.3. Koherentzia eta sinergiak bultzatzea Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen artean ........ 59

1.3. PRESTAZIO EKONOMIKOETAN AHALIK ETA KALITATERIK HANDIENA LORTZEA, BEHARRIZAN EGOERAN DAUDEN BIZIKIDETZA UNITATE GUZTIENTZAT BERMATZEA ETA OINARRIZKO ESKU HARTZE INTEGRALAK SUSTATZEA ........ 72

1.3.1. Oinarrizko errenta unibertsalizatzeko bidean aurrerapausoak ematea, arian-arian ........ 72

1.3.2. Gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta espezializatzea ........ 80

1.3.3. EAEko hiru lurralde historikoetako diru-sarrerak bermatzeko prestazioak uztartzea eta bateratzea 87

1.4. BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMAK GEHITU ETA HOBETZEA, ETA PERTSONA HORIEK LAN MERKATUAN SARTU ETA IRAUTEKO NEURRIAK SUSTATZEA ........ 91

1.4.1. Enplegu-politika aktiboak indartu eta bultzatzea, hain zuzen baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat orain arte indarrean jarritakoak ........ 91

1.4.2. Enplegua sortzeko programak sustatzea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden profil berezientzat ........ 97

1.4.3. “Enplegua errentabilizatzeko” politikak ezartzearen alde egitea ........ 110

1.4.4. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenak laneratzeko ekimenak gauzatzeko eta bideragarriak izateko aukera emango duten mekanismoak bultzatzea ........ 111

2. GIZARTE BABESERAKO SISTEMA OROKORRAK ....... 113
2.1. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOAK EGITEN DITUEN ESKU HARTZEAK HOBETZEA ETA INDARTZEA ....... 113
2.1.1. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren eskuragarritasuna arautzea euskal hiritarrentzat, zerbitzu eta prestazio unibertsalak jasotzeko eskubide subjektiboa bermatzea, eta beharrezko baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak ziurtatzea. ....... 113
2.1.2. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa indartzea, hiritarren behar eta premiei hobeto erantzun diezaien 117
2.2. GIZARTE BABESERAKO GAINERAKO SISTEMEK BAZTERKERIAREN KONTRA EGITEN DITUZTEN ESKU HARTZE INTEGRALAK HOBETZEA ETA INDARTZEA ....... 122
2.2.1. Osasun-sistemak gizarteratzearen alorrean egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea 122
2.2.2. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako etxebizitza-politikak hobetzea eta indartzea ....... 128
2.2.3. Hezkuntza-zerbitzuak egokitzearen alde egitea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenen beharrekin bat etor daitezen ....... 129
2.2.4. Justizia Administrazioak gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenekin egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea ....... 136
3. PLANAREN KUDEAKETA ETA EZARPENAREN ETA INPAKTUAREN JARRAIPENA ....... 139
3.1. PLANA KUDEATZEKO ERREMINTAK HOBETZEA ETA JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ADIERAZLE KOMUNAK GARATZEA ....... 139
3.1.1. Gizarteratzeko II. Euskal Plana egoki kudeatzeko behar diren erremintak ezartzea ....... 139
3.1.2. Pobreziari, gizarte-bazterkeriari eta egoera horren eboluzioari lotutako faktoreek EAEn duten eragina erregulartasunez ebaluatzea ....... 142
ERANSKINA ....... 145
JARDUERAK ....... 154

## Taulak


T 1. II. GEParen helburuak ....8
T 2. Bazterkeriaren kontrako legeek izandako bilakaera ....30
T 3. 2008ko bi lege handien ekarpenak ....33
T 4. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren aginduek izandako bilakaera ....38
T 5. Sinatutako gizarteratze-hitzarmenen jarraipena ....39
T 6. Eusko Jaurlaritzak sortutako diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbateraino ezagutzen den 41
T 7. OGZetako langileek ba al dakite aplikatiboa erabiltzen? ....41
T 8. Aplikatiboa erabiltzen ikasteko prestakuntza ....41
T 9. Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbateraino erabiltzen den ....42
T 10. Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbat biztanle potentzialekin erabiltzen den ....42
T 11. Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboaren erabileran nolako aldeak dauden, tamainaren arabera 43
T 12. Aplikatiboaren funtzionamenduan akats larririk atzeman den....45
T 13. Zuen udalean edo mankomunitatean beste informatika-erremintaren bat erabiltzen al duzue? ....45
T 14. Zertarako erabiltzen dituzue erremintak? ....46
T 15. Egokia denean, erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzen dituzue? ....50
T 16. Egokia denean, erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzeko protokoloaz baliatzen zarete? ....51
T 17. Protokoloaz bestelako prozeduraren bat erabiltzen al duzue erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzeko? 51
T 18. Enplegu-zerbitzuetara bideratzeko joera, tamainaren arabera. ....51
T 19. Araba: gizarteratze- eta lanbideratze-programak....61
T 20. Gipuzkoa: Aldundiarekin hitzartutako programak ....63
T 21. Gipuzkoa: Aldundiarekin hitzarmena duten gizarteratze-zentroak....64
T 22. Bizkaia: Aldundiaren programak ....65
T 23. Tokiko Garapen Agentziak: programa eragileak....66
T 24. Araba: zigorrak betetzen ari direnei laguntzeko programak....70
T 25. Oinarrizko Errentaren gaineko ezagutza ....76
T 26. Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu Oinarrizko Errenta (horren berri badutenak)....76
T 27. Oinarrizko Errentaren ezagutza maila, familia-gune nagusiaren arabera ....78
T 28. Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu Oinarrizko Errenta? (horren berri badutenak). Familia-gune nagusiaren motaren arabera....78
T 29. Gastu-portzentajea, GLLen kontzeptuen arabera ....81
T 30. 2007an eta 2008an estali gabe geratutako GLL eskarien kalkulua....81
T 31. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen berri zenbatek duten....84
T 32. Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu GLLrik? (horien berri dutenek) ....84
T 33. Zenbatekoaren balorazioa (erabiltzen dutenek)....84
T 34. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen ezagutza maila, familia-gune nagusiaren motaren arabera....85
T 35. Erabiltzen duzu, edo erabili izan duzu GLLrik? (horien berri dutenek) Familia-gune nagusiaren motaren arabera 86
T 36. Eusko Jaurlaritzaren eskumenak....87
T 37. Gizarteratze- enpresak sortzeko eta bultzatzeko 2008an emandako dirulaguntzak ....92
T 38. Gizarteratze-enpresen programaren ezagutza....94
T 39. Gizarteratze-enpresen programaren erabilera....94
T 40. Auzolan programaren ezagutza....96
T 41. Auzolan programaren erabilera....96
T 42. Gizarteratze-jardueretarako Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako dirulaguntzak....98
T 43. Tokiko Garapen Agentziak: enplegua sortzeko programak....100
T 44. Gizarteratze-jardueretarako laguntzen ezagutza....104
T 45. Gizarteratze-jardueretarako laguntzen erabilera....104
T 46. Umezainak programaren ezagutza ....106
T 47. 2007an bestelako neurriak ezarri zizkieten pertsonak ....108
T 48. 2007an ezarritako bestelako neurriak, guztira....108
T 49. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoa ....115

T 50. Gizarteratze-prozesuak kudeatzeko giza baliabideen nahikotasuna ....117
T 51. OGZen baliabideetako aldeak, biztanleriaren tamainaren arabera....117
T 52. Gizarteratze-prozesuak kudeatzeko baliabide materialen nahikotasuna ....118
T 53. Erabiltzaileen egoera pertsonalari eta familiarrari buruzko diagnostiko orokorra egiteko baliabideak....119
T 54. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aginduak ....133
T 55. GEPari buruzko batzordeen deialdiak 2008ko ekitaldian....140
T 56. EBALUAZIOAREN PARTE-HARTZAILEAK ....145
T 57. GARAPEN AGENTZIAK: INTZIDENTZIAK....146
T 58. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK....147
T 59. UDALAK/MANKOMUNITATEAK: INTZIDENTZIAK ....152

Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planaren (GEP) iturburua Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legeak, maiatzaren 22koak, ezarritako arau-betebeharra izan da. Ildo horretan, Legearen arabera, aipatutako Planak "esku hartzeko eta jarduteko ildoak eta jarraibideak koordinaturik eta orokorrean hartuko ditu barne, administrazio eskudunek bazterkeria-egoeran daudenak gizarteratzeko jarduerak horietan oinarrituz bidera ditzaten".

Lege beraren arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze-gaietan egindako jarduerak Gizarteratzeko Sail arteko Batzordeak koordinatuko dituenez, organo horrek "Gizarteratzeko Euskal Planaren gauzapenari buruzko jarraipen- eta ebaluazio-txostena egingo du urtero".

GEParen egiturak bi ardatz ditu: batetik, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren kontrako politikei buruzko gogoeta estrategikoa; bestetik, Planaren jarduera estrategikoen garapena. Era berean, Planari lotutako jarduera estrategikoak, helburuak eta ekintzak gauzatzeko, hiru eremu hartu dira oinarritzat, eta horiek izan dira, halaber, ebaluazioan jorratutako hiru alderdiak:

- Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Euskal Sistema.
- Gizarte Babeserako sistema orokorrak.
- Planaren kudeaketa eta ezarpenaren eta inpaktuaren jarraipena.

Aipatutako hiru eremuen inguruan, helburu estrategiko eta operatiboak finkatu eta hirurogeita hamar jarduera ezarri ziren, helburuok lortzeko. Hirurogeita hamar jardueren prozesua eta gauzapen-egoera zertan diren ezagutzea izan da, hain zuzen, ebaluazioaren xedea. Horrela, aipatutako helburu estrategikoak zenbateraino bete diren balioetsi ahal izango da. Dena den, azken zeregin hori aurre-balioespena izango litzateke, Planaren indarraldia oraindik ez baita bukatu.

Jarduera bakoitza ezartzeko ardura erakunde baten –edo gehienetan batzuen– esku geratu da. Erakunde horiek hainbat alorretako administrazio edo entitateetakoak dira. Ildo horretan, aipa ditzagun, besteak beste, espetxe-administrazioa, tokiko enplegu-agentziak, udalak, enplegu-zentro bereziak, Hezkuntza Saila, Osasun Saila, Etxebizitza Saila eta Sailburuordetza, Foru Aldundiak, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, Enplegu Zuzendaritza, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, EUDEL, EIN eta Gizarte Gaietarako Sailburuordetza eta Zuzendaritza. Erakunde guztiek esku hartzea ezinbestekoa da GEP garatu ahal izateko, baina argi dago batzuen partaidetza beste batzuena baino garrantzitsuagoa dela, honako arrazoi hauengatik:

jarduera gehiago gauzatu behar dituztelako, eta jarduera horiek, gainera, GEParen baitan funtsezkoak direlako, eta erabat estrategikoak, helburu estrategiko asko lortzeko aukera emango baitute.

Ebaluazio-prozesuan bigarren mailako iturriak aztertu dira, hala nola, memoriak, legeria eta, batik bat, 2008an etxeetan egindako inkesta, GEParen prestaziorik garrantzitsuenak zenbateraino ezagutzen eta hedatu diren jakiteko datuak eskaini dituena. Esanak esan, informaziorik garrantzitsuenak GEP ezartzeko ardura duten erakundeek eman dizkigute; horien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen hizpide dugun ebaluazioa burutzea.

Lehenago adierazi dugunez, urteko ebaluazio- eta jarraipen-txostena egitea arauetan ezarritako betebeharra da. Txostenaren azken helburua honako hau da: Plana zenbateraino bete den eta helburuak zenbateraino lortu diren balioestea. Erabilitako ikuspegiak, gainera, gogoetarako elementuak eskaintzen ditu, Planaren ezarpenean antzemandako alderdirik kritikoenak onbidera daitezen.

Ebaluazioa interpretatzerakoan, ezaugarri jakin bat hartu behar da kontuan: urte anitzeko (2007-2010) Plana dela, eta, beraz, garatutako esku-hartzeak ikuspegi tenporalaren baitan kokatu behar direla. Egun abian jarritako esku-hartzeen garapen mailari buruzko ikuspegi azkarra eskaintzeko nahiak eraginda, ebaluatzaile-taldeak betetze maila jakin bat ezarri du 2008ko ekintza bakoitzarentzat. Lau maila bereizi dira: egiteke, txikia, ertaina eta handia.

Txostena egituratzeko, bi eduki multzo bereizi eta multzo bakoitzean aurrerago aipatutako hiru eremuak aztertu ditugu. Lehen multzoan, lorpen eta zailtasun nagusiak adierazi ditugu laburbilduta; bigarren multzoan, Planean aurreikusitako esku-hartze guztien egoera zehaztu eta garapen maila balioetsi dugu.

**T 1. II. GEParen helburuak**

| Alorra | Helburu estrategikoak | Helburu operatiboak |
|---|---|---|
| **1. GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMA** | 1.1. ARAU ESPARRUA EGOKITZEA, GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROZESUAK ANTOLATU ETA ERRAZTEKO. | 1.1.1. Arauak egokitzea, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak arian-arian unibertsalizatzeko, eta gizarteratze-eremua eta gizarte-babesarena bereiztea eta zehaztea.<br>1.1.2. Arauak egokitzea, gizartegintza indibidualizatua sustatzeko eta indartzeko eta gizarteratze-mekanismoak areagotzeko. |
| | 1.2. GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESERAKO POLITIKEN DIAGNOSTIKOA ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA BATERATZEA ETA OROKORREAN HEDATZEA | 1.2.1. Beharrezko erreminta tekniko eta informatikoak garatzea eta hedatzea, gizartegintza indibidualaren diagnostikoa eta plangintza azkarrago burutzeko, eta informazioa hedatzeko eta eragileak koordinatzeko, bai plangintza orokorrari bai esku-hartze pertsonalari dagokionez.<br>1.2.2. Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea, ebaluazioen, jardueren jarraipen sistematikoen eta kalitate-planen ezarpenaren bidez.<br>1.2.3. Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen koherentzia eta sinergiak bultzatzea. |
| | 1.2. PRESTAZIO EKONOMIKOETAN AHALIK ETA KALITATERIK HANDIENA LORTZEA, BEHARRIZAN EGOERAN DAUDEN BIZIKIDETZA UNITATE GUZTIENTZAT BERMATZEA ETA OINARRIZKO ESKU HARTZE INTEGRALAK SUSTATZEA | 1.3.1. Oinarrizko errenta unibertsalizatzeko bidean aurrerapausoak ematea, arian-arian.<br>1.3.2. Gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta espezializatzea.<br>1.3.3. EAEko hiru lurralde historikoetako diru-sarrerak bermatzeko prestazioak uztartzea eta bateratzea. |
| | 1.3. BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMAK UGARITZEA ETA HOBETZEA, ETA PERTSONA HORIEK LAN MERKATUAN MANTENTZEA | 1.4.1. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat orain arte egin diren enplegu-politika aktiboak indartzea eta sustatzea.<br>1.4.2. Enplegua sustatzeko programa berriak abiaraztea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat.<br>1.4.3. “Enplegua errentabilizatzeko” politikak ezartzearen alde egitea.<br>1.4.4. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenak laneratzeko ekimenak gauzatzeko eta bideragarriak izateko aukera emango duten mekanismoak bultzatzea. |
| **2. GIZARTE BABESERAKO SISTEMA OROKORRAK** | 2.1. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOAK EGITEN DITUEN ESKU HARTZEAK HOBETZEA ETA INDARTZEA | 2.1.1. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren eskuragarritasuna arautzea euskal hiritarrentzat, zerbitzu eta prestazio unibertsalak jasotzeko eskubide subjektiboa bermatzea, eta beharrezko baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak ziurtatzea.<br>2.1.2. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa indartzea, hiritarren behar eta premiei hobeto erantzun diezaien. |
| | 2.2. GIZARTE BABESERAKO GAINERAKO SISTEMEK BAZTERKERIAREN KONTRA EGITEN DITUZTEN ESKU HARTZE INTEGRALAK HOBETZEA ETA INDARTZEA | 2.2.1. Osasun-sistemak gizarteratze-alorrean egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea<br>2.2.2. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako etxebizitza-politikak hobetzea eta indartzea.<br>2.2.3. Hezkuntza-zerbitzuak egokitzearen alde egitea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenen beharrekin bat etor daitezen.<br>2.2.4. Justizia Administrazioak gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenekin egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea. |
| **3. PLANAREN KUDEAKETA ETA EZARPENAREN ETA INPAKTUAREN JARRAIPENA** | 3.1. PLANA KUDEATZEKO ERREMINTAK HOBETZEA ETA JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ADIERAZLE KOMUNAK GARATZEA | 3.1.1. Gizarteratzeko II. Euskal Plana egoki kudeatzeko behar diren erremintak ezartzea.<br>3.1.2. Pobreziari, gizarte-bazterkeriari eta egoera horren eboluzioari lotutako faktoreek EAEn duten eragina erregulartasunez ebaluatzea. |

## GIZARTERATZEKO ERAKUNDE ARTEKO PLANAREN EBALUAZIORAKO ARKITEKTURA



# I. ATALA

# EBALUAZIOAREN LABURPENA: LORPENAK ETA ZAILTASUNAK

Atal honetan, ebaluazioaren emaitzen laburpena eskainiko dugu, Plana osatzen duten hiru eremu handiak bereiziz: batetik, gizarte-babesa eta gizarteratzea; bestetik, gizarte-babeserako sistema orokorrak eta Planaren kudeaketaren alorrean aurreikusitako esku-hartzeak; azkenik, ezarpenaren eta inpaktuaren jarraipena.

Eremu bakoitzari buruzko balorazioak helburu estrategikoetan oinarrituz egituratu ditugu, eta Planean aurreikusitako jarduerak betetzerakoan izandako lorpen nagusiak eta zailtasunak nabarmendu ditugu.

Planak barne hartzen dituen esku-hartzeak oso anitzak direnez, azterketa integrala egiten saiatu gara, eta bai euskal biztanleengan bai eraginpeko sistemetan inpakturik handiena izan duten alderdiak azpimarratu ditugu. Txostenaren bigarren atalean informazio zehatzagoa eskaintzen da, GEPean aurreikusitako jardueren garapenaren nondik norakoetan sakondu ahal izateko.

## GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMA

GEParen ildo estrategikoak finkatu aurretik, EAEko azken urteotako gizarte-politikaren eboluzioaren ezaugarri bereizgarriak aztertu ziren, pobrezia-egoerari eta gizarte-bazterkeriari buruzko diagnostikotik abiatuta. Ildo horretan, euskal erakundeek –bereziki Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak– gauzatutako gizarteratze-politiken eraginkortasuna areagotzea izan da Planaren xede nagusia, Planaren funtsezko ardatzetako baten, Gizarte Babeserako eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren, helburuei ere bidea emateko.

### ARAU ESPARRUA EGOKITZEA

Gizarte-bazterkeriaren kontrako borroka euskal gizarte-politikaren ezaugarri bereizgarrietako bat izan da azken urteotan. EAE aitzindaria izan zen alor horretan, XX. mendeko 80ko hamarkadan Pobreziaren kontrako Plan Integrala abiarazi baitzuen, eta, halaber, diru-sarrerak bermatzeko prestazio-sistema ezarri zuen lehen erkidegoa izan zen. Ondorioz, gaur egun, oinarrizko errentaren programa

erreferente garbia da estatu osoan[1], eta Europako politikarik aurrerakoienekin bat dator[2].

90eko hamarkadatik aurrera Oinarrizko Errentaren eta GLLren estaldura mailek gorakada berezia izan dute, horiek eskuratzeko irizpideak hedatzeko eta, batik bat, bermatutako zenbatekoak handitzeko erabakiaren ondorioz[3].

Azken urteotan EAEn izandako gizarte-aldaketak direla eta, ezinbestekoa zen Gizarte Bazterkeriaren kontrako Legean eta Eskubide Sozialen Gutunean onartutako arauak aldatzea, hainbat ezaugarri aurre egiteko: migrazio-fenomenoari lotutako beharrizan-egoera berriei, familia-eredu berriei, lan-baldintza kaskarragoei, etxebizitzen prezioaren gorakadari...

Planean proposatutako arauak egokitzeko jardunbidearen azken helburua honako hau da: diru-sarrerak bermatzeko prestazioak arian-arian unibertsalizatzea, eta gizarteratze-eremuak eta gizarte-babesekoak bereiztea eta zehaztea. Helburu hori lortzeko, hiru lege egin eta onartu dira:

- Ekainaren 22ko 4/2007 Legea, Gizarte-bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea aldatu zuena, eta abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Eskubide Sozialen Gutunarena.
- Ekainaren 25eko 8/2008 Legea, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituena.
- Abenduaren 23ko 8/2008 Legea, Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa.

Azken legearen bidez, behar berriei hobeto erantzuteko moduko baliabideak eman zitzaizkion sistemari eta egungo jardunbide batzuetan sortutako disfuntzioak konpondu ziren. Era berean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema autonomoa sortzeko beharra onartu eta hainbat prestazio modalitate finkatu ziren.

Horrela, gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta lan-errenten ondoriozko diru-sarrerarik ez dutenei ematen zaie, betiere hileko sarrera maila behar adinakoa ez baldin bada. Lan-sarreren errenta osagarriak lan-sarreren maila

---

[1] Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (2006). Autonomia Erkidegoetako oinarrizko errenta bermatuak eta hiru Lurralde Historikoetako osagarriak. Konparazio-azterlana (2006an eguneratutako zenbakiak).

[2] Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (2007). Europako Batasuneko herrialdeetako gutxieneko diru-sarreren ezaugarriak. Konparazio-ikuspegia (2006ko urtarrilaren 1eko egoera).

[3] Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza (2008): 25 urte Euskadiko pobrezia ikertzen.

osatzea du helburu. Etxebizitza-prestazio osagarria, azkenik, etxebizitzari edo ohiko bizilekuari lotutako premiei erantzuteko ematen da.

Aipatutako aldaketei esker, kotizaziorik gabeko pentsioak eta oinarrizko errenta baino diru-sarrera txikiagoak dituzten guztiei erantzuten die sistemak, eta, gainera, prestazioak jasotzen dituztenei lan-merkatuan sartzeko laguntza ematen die (lanean aritzeko moduan badaude, behintzat). Era berean, higiezinen merkatuaren ondorio negatiboei aurre egiten saiatzen da, ez baitago diru-sarrera txikiak dituztenen esku.

***Laburbilduz, arauak eraginkortasunez egokitu dira, eta, horri esker, aurrerapausoak eman dira diru-sarrerak bermatzeko prestazioak unibertsalizatzeko eta gizarteratze-eremua eta gizarte-babesarena bereizteko bidean. Halaber, gizarte-behar aldakorrekin bat etorriko den gizarteratze-eredua sortzeko ahaleginetan ere aurrera egin ahal izango da. Aldaketen balorazio positibo hori gorabehera, argi dago, jakina, pobrezia mailak murrizten eta bazterkeria mota berriei aurre egiteko mekanismoak egokitzen jarraitu behar dela.***

## GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESERAKO POLITIKEN DIAGNOSTIKOA ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA BATERATZEA ETA OROKORREAN HEDATZEA

Gizartegintza indibidualari lotutako diagnostikoak eta plangintzak azkarrago burutzeko moduko erreminta teknikoak eta informatikoak garatzeko eta hedatzeko helburua berariaz aipatzen da Planaren baitan.

Asmo garrantzitsua da, bi arrazoirengatik: batetik, gizarte-zerbitzuetan funtsezkoak diren zeregin horiek errazteko premia dagoelako, prestazioak izapidetzeko burokrazia-lanak asko luzatzen baitira; bestetik, beharrak oinarrian ezagutzeko aukera emango duen jarraipen-sistema ezartzea nahitaezkoa delako, kasuan kasuko egoeraren araberako baliabideak eta tresnak bideratzeko.

Helburu estrategikoa da, beraz, eta azken urteotan gogotik garatu den arren, ebaluazio hau egin dugun garaian oraindik ere dira aurreikusitako emaitzak erdietsi. Izan ere, diagnostikoa egiteko modua erabat orokortzeko jardunbidearen inguruan eztabaida sortu da.

Ebaluazioaren baitan gauzatutako kontsulta-prozesuan egiaztatu dugunez, hizpide dugun erreminta nahiko gutxi ezagutzen dute gizarte-zerbitzuetan eta, batez ere,

oso gutxi erabiltzen dute: gizarte-zerbitzuen erdiak baino gehiagok (biztanleriaren % 80 ordezkatzen dute) ez dute erabili 2008an zehar.

Erreminta gehien erabiltzen dutenak udal txikiak dira, ziur aski arrazoi honengatik: tresna garatuagoak erabiltzen dituzten erakundeentzat korapilatsua delako beste era bateko jardunbideak ezartzea (erremintak bateratu, ordezkatze-kostua...). Arazoak arazo, diagnostikoa eta jarraipena egiteko sistema bateratua finkatzea egokitzat jo dute eragindako erakundeek. Beraz, Planean proposatutako helburuak baliagarria izaten jarraitzen duen arren, ezartzeko jardunbideak berrikusi egin beharko dira, erabilera sustatzeko.

Koordinazioa hobetzeari dagokionez (eremu horretako helburu operatiboa), aurrerapausoak eman direla egiaztatu dugu. Aipa ditzagun, adibidez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte eta Familia Sailburuordetzaren eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzaren arteko lankidetza-protokoloa, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren sareko orientazio-zerbitzuek sinatutako lankidetza-protokoloa.

Lanbidek, izan ere, Planaren oinarrizko printzipioetako bat mamitzen laguntzea du helburu: enplegua sustatzea, lan-munduan sartzeko aukerak indartzeko. Gure ebaluazioan egiaztatu dugunez, udalbatza gehienetako oinarrizko gizarte-zerbitzuek Lanbiderekin elkarlanean eta koordinaturik dihardute, neurri handiagoan edo txikiagoan, baina badirudi protokoloaren ezarpena oraindik ez dela erabat orokorra.

Informazio-sistemak indartzeko helburuari dagokionez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema sortzeko asmoa nabarmendu behar da. Aipatutako sistema diseinatzeko, abiarazteko eta mantentzeko xehetasunak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreikusten ditu. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi nagusiei eta gizarte-zerbitzuei buruzko ezagutza eguneratuak bermatzea eta zerbitzu eta prestazio mailen jarraipena egitea da helburu nagusia.

Helburu handi horren baitan, bestalde, gizarteratze-politikak etengabe hobetzeko xedea aipatu behar da, ebaluazio eta jardueren jarraipen sistematikoan eta kalitate-planen ezarpenean oinarrituko dena. Baina ebaluazioak agerian utzi du asmo hori bete-betean lortzeko asko falta dela oraindik, erakundeen jardueren artean bateratasunik ez egoteaz gain, kalitatezko erremintak eskaintzeko aukera hezurmamituko duen esparrua ere sortzeke baitago oraindik.

Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko bestelako planen arteko sinergiak sustatzeko helburuan, bestalde, ez da eman aurrerapauso adierazgarririk. Beraz, Planaren indarraldiko azken urtean, besteak beste, erakunde

eta sailen arteko koordinazio-alderdiak indartzeko ahalegina egin beharko dela azpimarratu behar dugu berriz; bestela, ez baitira finkatutako helburuak beteko.

Foru Aldundi eta udaletan gizarteratze-alorreko helburuak lortzeko aurreikusi diren programa operatiboei dagokienez, irakurketa anbibalentea egin behar da. Era horretako programa operatibo asko egin diren arren, programen definizioetan eta sailkapenetan helburuak gehixeago egituratu behar direla uste dugu. Gainera, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez ditu bultzatu Bizkaiko eta Gipuzkoako erakunde arteko mahaiak (Araban sortu dute dagoeneko), gizarte-bazterkeriaren kontrako eta gizarteratzearen aldeko politikak koordinatzeko.

Azkenik, EAEko espetxeetako presoentzako gizarte-zerbitzuak sustatzeko ekintzak egin dira, batik bat adin txikikoentzat, baina ez, ordea, ekintza koordinatuak.

***Laburbilduz, ahaleginak egin diren arren, zailtasun handiak atzeman ditugu gizarteratzeko eta gizarte-babeserako politiken diagnostikoa eta jarraipena egiteko sistema bateratzeko eta orokorrean hedatzeko urratsetan. Diagnostikoaren ezarpena ez da erabat hedatu, inondik inora, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta Lanbideko orientazio-zerbitzuen arteko lankidetza-protokoloak ere ez dira orokortu. Bestalde, Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko bestelako planen arteko sinergiak sustatzeko ekintzarik ez dela gauzatu nabarmendu behar dugu. Helburu horri dagokionez, erremintak sortzen (diagnostikoa egiteko, koordinazio-protokoloak...) emandako zenbait aurrerapauso, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema sortzeko urratsak eta abiarazitako programa operatibo ugariak –egituraketa eta koordinazio urrikoak, hala ere– izan dira lorpen nagusiak.***

## PRESTAZIO EKONOMIKOETAN AHALIK ETA KALITATERIK HANDIENA LORTZEA

GEParen testuinguruan, Planari buruzko diagnostikoan gai horretan zehaztutako premiak gainditzea zen, funtsean, kalitatezko prestazioak eskaini ahal izateko oinarri nagusia. Lehenik eta behin, arau-egokitzapenekin eta aldarrikatutako euskal babes-ereduarekin bat, ezinbestekoa zen gutxieneko diru-sarrerak unibertsalizatzen jarraitzea. Bigarrenik, oinarrizko errenta jasotzen duten guztiek premia berberak ez dituztela ikusita, gizarteratze-errenten eta babes-errenten arteko bereizketa egitea ere nahitaezkoa zen, esku-hartzeen eraginkortasuna indartzeko. Azkenik, EAEko hiru lurralde historikoetako prestazio-sistema uztartzeko eta bateratzeko beharra zegoen, bertako administrazio- eta eskumen-antolamenduak politika heterogeneoei

eta desberdintasun-egoerei ematen baitie bidea zenbaitetan. Prestazio-sistema bateratzeko ardura Eusko Jaurlaritzari dagokio, hain zuzen.

Prestazio ekonomikoetan ahalik eta kalitaterik handiena lortzeari dagokionez, oinarrizko errenta arian-arian unibertsalizatzea funtsezko helburua zen, eta, ebaluazioaren arabera, lorpenak eta aurrerapausoak handiak izan dira.

Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeari esker, bizikidetza unitatearen definizioa berriz finkatu da, lege-kontzeptua eta familia-errealitatea uztartuz, oinarrizko errenta jende gehiagok eskuratu ahal izan dezan. Horrela, familia-gune batean bizi ez diren pertsona batzuk, zenbait ezaugarri betez gero, bizikidetza unitate independentetzat hartzen dira. Era berean, oinarrizko errenta eskuratzeko salbuespen berriak sartu dira adin nagusikoentzat eta 23 urtetik beherakoentzat. Pentsiodunei arreta berezia eskaini eta prestazioaren zenbatekoa handitu zaie: oinarrizko errenta LGSren % 100arekin parekatu da, bai 65 urtetik gorakoentzat bai beharrizan-egoeran dauden adin horretatik beherako pentsiodunentzat.

Prestazio ekonomikoetan ahalik eta kalitaterik handiena eskaintzeko, oinarrizko beste helburu bat lortu behar zen: gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta zehaztea. Eta lortu egin da, izan ere, arau-egokitzapenetan aurreikusi bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta sortuz. Bi errenta mota daude: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta, batetik, eta lan-sarreren errenta osagarria, bestetik. Etxebizitza-prestazio osagarria ere finkatu da, orain arte gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez estali izan diren ia premia guztiei erantzuteko, eta bien artean funtsezko desberdintasun bat dagoela azpimarratu behar da: prestazioa eskubidetzat hartzen da orain.

Gizarteratze-errenten eta babes-errenten arteko bereizketa eginez, gizarte-larrialdietarako laguntzen jatorrizko izaera bereizgarria indartu da, laguntzazkoak eta aldi baterakoak baitira berriz, lehengo egoerari eusterik ez baitzegoen. Izan ere, gaur egun, gizarte-zerbitzuen % 80 baino gehiagok GLLren erdia baino gehiago etxebizitza-gastuetara bideratzen dute, eta gizarte-zerbitzuen herenak GLLren % 75 baino gehiago erabiltzen du aipatutako gastuetarako. Eusko Jaurlaritzako aurrekontu-partidarekin gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbateko osoari aurre egin diezaioketen udalak edo mankomunitateak ere oso gutxi dira.

EAEko hiru lurralde historikoetan diru-sarrerak bermatzeko sistema uztartzeko eta bateratzeko helburuari dagokionez, aurrerapausoak eman dira, ahalbidetzeko arau-esparrua finkatu baita. Esparru horren arabera, ekitatea bermatzeko nahiak eraginda, Eusko Jaurlaritzaren betebeharra tinkoago finkatu da. Horrela, 2008an onartutako bi lege handietan xedatutakoei jarraiki, diru-sarrerak bermatzeko eta

gizarteratzeko sistemak eta gizarte-zerbitzuen sistemak diseinatzea, antolatzea, ezartzea, sustatzea eta koordinatzea Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna izango da funtsean.

***Laburbilduz, araudi berriari, aurreikusitako garapenari eta sortutako prestazio berriei esker, errazagoa izango da gutxieneko sarreren unibertsalizazioa sustatzea, gizarteratze-prozesu garbiak eta mistoak bereiztea eta hiru lurralde historikoen parekotasuna bermatzea.***

## BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMAK UGARITZEA ETA HOBETZEA

EAE erreferentziazko eremua da Estatuan, hainbat gizarteratze-programaren garapena dela eta: besteak beste, Gizarteratze Enpresena. GEPak hori guztia lortzen lagundu du, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat antolatutako enplegu-politika aktiboak indartzeko eta sustatzeko helburuaren alde eginez.

Gizarteratze-enpresen garapenari are babes handiagoa emateko asmoz, lege-esparrua finkatu da, orain arte eskaini ez den segurtasuna ziurtatzeko, eta dirulaguntza garrantzitsuak eta handiak bideratu dira aipatutako alderdia sustatzeko. Araugintzaren esparruan, EAEn onartutako 182/2008 Dekretuak gizarteratze-enpresen kalifikazioa eta horietan sartzeko eta erregistratzeko jardunbidea arautu zituen. Estatuan 2007an onartutako Gizarteratze-enpresei buruzko Legearen xedapenetara egokitzeko ahaleginaren emaitza izan da Dekretua, eta horrelako enpresek euskal testuinguruan duten errealitatera moldatzeko nahiaren ondorioa ere bai. Hizpide dugun alderdia indartzeko asmoa 2008-2011 epealdirako urte anitzeko programaren dirulaguntzen zenbatekoan islatu da, 7.129.793 €-koa izan baita. Dena den, programa horretan bada puntu kritiko bat, prozesuari dagokiona, alegia. Izan ere, gizarte-zerbitzuen partaidetza beharrezkoa den arren, ezagutza- eta koordinazio-arazoak daude gizarteratze-enpresekin.

Gizarteratze-enpresena ez ezik, II. Planaren indarraldian zehar beste programa garrantzitsu bat ere indartuko da: Auzolan, hain zuzen, 2008rako dirulaguntzen deialdiari buruzko Aginduaren arabera, 7.491.841 € emango baitira guztira.

Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei dagokienez, profil bereziak dituztenentzat antolatutako enplegu-sustapenerako programa berrien alorreko ekimenak urriagoak izan dira. Bazterkeria-arrisku handiko egoerei aurre

egiteko aurreikusitako programa horiek ez dira mamitu aztergai izan dugun epealdian.

Bestalde, garrantzi egiaztatua duten programa berriak sustatzeaz gain, aipatzekoa da lorpenak erdietsi direla alor horretako mekanismoa berriak abiaraziz: adibidez, gizarteratze- eta laneratze-baliabide finantzario berriak eskaini dira, eta, batik bat, Eusko Jaurlaritzan gizarte-klausulei eman zaie sarbidea. Orain, gizarte-klausula horiek gainerako euskal administrazioetan txertatzeari ekin beharko zaio.

Egiteke dagoen beste zeregin bat aipatu behar dugu: aurrerapauso adierazgarriak ematea "enplegu-errentagarritasuna" lortzea helburu duten politikak ezartzeko bidean. Enplegua sustatzeko sistemari buruzko araudian ez da egin inolako aldaketarik, Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legeak horrelako politikak indartzeko neurriak finkatu zituen arren: adibidez, lan-sarreren errenta osagarria ezartzea, lan-errenten bidez lortutako hileko diru-sarreretan gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren zenbatekora iristen ez direnentzat.

***Laburbilduz, funtsezko programa batzuk, adibidez Auzolanen eta gizarteratze-enpresen ingurukoak, indartu egin dira, eta aurrerapausoak eman dira ekonomia solidarioa finkatzeko bidean, finantzaketa-mekanismo berrien eta gizarte-klausulen bidez. Dena den, gabeziak sumatu ditugu bazterkeria-arrisku handiko egoeretan dauden taldeentzako programen garapenean, batetik, eta eragileen artean partekatutako prozesuen koordinazioan eta ezarpenean, bestetik.***

## GIZARTE BABESERAKO SISTEMA OROKORRAK

GEPean aurreikusitako jardueren abiapuntua honako hau da: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako euskal sistema gizarte-zerbitzuen sistemaren bidez mamituko dela funtsean.

Gizarte-zerbitzuen sistemari bestelako gizarte-babeserako sistema orokorrak –euskal administrazioen eskumenekoak (etxebizitza, osasun, hezkuntza eta justizia)– gehitu zaizkienez, Planean bigarren horiek ere jorratu dira.

### GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOAK EGITEN DITUEN ESKU HARTZEAK HOBETZEA ETA INDARTZEA

Planak lehentasunezko lau jarduera-oinarri hartzen ditu barne: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarteratze-prozesuetan laguntzeko; gizarteratzeko eta laneratzeko programak eta baliabideak; diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak; eta gizarte-zerbitzu espezializatuak, esku-hartzeen faseetan zehar beharrezkoak izan daitezkeen gizarte- eta laguntza-baliabide anitzak bideratuko dituztenak.

Aztertu dugun epealdian, Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren lorpenik garrantzitsuenetakoa honako hau da: aipatutako sistemaren eskuragarritasuna arautu izana euskal hiritarrentzat, zerbitzu eta prestazio unibertsalez baliatzeko eta beharrezko baliabide ekonomiko eta materialak eskuratzeko eskubide subjektiboa bermatzeko. Lorpen horren eta beste hainbaten iturburua Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, izan da, gizarte-zerbitzuen eskubide subjektiboa aitortu eta hiritarren eskubide bihurtu baitzuen. Beraz, ongizatea helburu duten bestelako sistemekin –adibidez, osasun edo hezkuntzakoarekin– parekatzea da, izan ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren asmoa. Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak zehazten ditu xehetasun horiek guztiak.

Lege horrek, halaber, sisteman sartzeko aukeren homogeneotasuna eta gizarte-zerbitzuez baliatzeko eskubidearen benetako gauzapena bermatzen ditu. Horretarako, oinarrizko jarduera-eremuak finkatu ditu: 5.000 biztanlekoak oro har, eta landa-eremuetan edo egoera bereziki txarrean dauden guneetan, berriz, 3.000 biztanlekoak.

Oraindik ez da nabaritu aurrerapauso eraginkorrik sistemak hiritarren behar eta eskariei emandako erantzuna hobetzeko, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek jakinarazi

dutenez, gaur egun gabeziak dituzte baliabide materialetan eta, batik bat, giza baliabideetan. Dena den, epe laburrean alderdi horiek indartzeko ekintzak gauzatzea aurreikusten da. Aipatutako aurreikuspenen oinarria berriki aurkeztutako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa izan da, oinarrizko gizarte-zerbitzuak orokorrean indartzeko helburua finkatu baitu, besteak beste. Nahiz eta gaia udalen eskumena izan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak helburu hori lortzen laguntzeko konpromisoa hartu du.

Hizpide dugun Legeak beste alderdi bat ere aurreikusten du: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren alderdi nagusiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuei buruzko ezagutza eguneratuak bermatzea. Horretarako, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema sortuko da. Gainera, Legea ezarri ondoren, euskal administrazio publikoen balorazio- eta diagnostiko-tresna komunak erabiltzeko aukera izango dute, gizarte-zerbitzuak esku hartzeko irizpide homogeneoez balia daitezen.

***Laburbilduz, arau-esparru berriak esku hartzeko aukera berriak eta hobeak eskaintzen ditu. Ustez, berriki onartutako legeria lagungarria izango da Sistema arian-arian ezartzeko, gaur egun oinarrizko gizarte-zerbitzuek euskal gizartean alor horretan sortutako eskari guztiei erantzuterik ez duten arren.***

## GIZARTE BABESERAKO GAINERAKO SISTEMEK BAZTERKERIAREN KONTRA EGITEN DITUZTEN ESKU HARTZE INTEGRALAK HOBETZEA ETA INDARTZEA

Bazterkeriaren alderdi- eta arrazoi-aniztasunean oinarritutako ikuspegia du ezaugarri Planak, eta, beraz, erakunde eta sail artean gauzatu beharrekoa da. Bertan zehaztutako hainbat alorretako –batik bat, osasun, etxebizitza, hezkuntza eta justiziako– neurriei eta lehenago aipatutako gizarte-zerbitzuei esker, lorpen erabakigarriak eskura daitezke kasuan kasuko jarduera-eremuko gabeziekin zerikusia duten bazterkeria-egoeren kontrako borrokan.

Gizarteratzeko aurreko Euskal Planari dagokionez, aipatutako eremuetako neurrien kopurua murriztea eta neurri horiek gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenen artean ahalik eta zorrotzen ezartzea erabaki zen, bi arrazoirengatik: batetik, Gizarteratzeko I. Planari buruzko ebaluazioetan adierazi bezala, egitura soiltzeko beharra zegoelako, eraginkortasuna areagotzeko; bestetik, Plan horretan ezarritako neurriek eta beste sail edo erakunde batzuen ekintza-planetan jasotakoek elkar ez oztopatzeko.

Eremu sozio-sanitarioaren garapena sustatzeko beharra etengabe aldarrikatu da azken urteotan gizartean. Gure ebaluazioan egiaztatu dugunez, aurrera egin da, urrats garrantzitsuak emanez, osasun-sistemak gizarteratze-alorrean gauzatzen dituen esku-hartzeak hobetzeko eta indartzeko xedeetan. Esku-hartze horiek alderdi ugari hartzen dituzte barne: esate baterako, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak eta taldeak gizarteratzeko jarduerak mantentzea, osasun-alorreko gizarte-desberdintasunen banaketa hobeto ezagutzeko aukera emango duten informazio-sistemak garatzea, eta EAEko osasun-arreta aztertzea.

Bestalde, EAEko arreta sozio-sanitarioa hobetzeko 2005-2008 aldirako Plan Estrategikoak aipamen berezia egitea merezi du, aurrerapauso handia izan baita EAEko eremu sozio-sanitarioa sortzeko eta garatzeko helburua lortzeko bidean. Ezartzerakoan, ordea, hasierako Planean moldaketak egin behar izan dira, aurreikusitakoez bestelako premia jakin batzuk sortu direlako.

Etorkizunean hobetzea komeni den alderdi baten berri eman digute osasun-alorreko kideek: eremuaren definizioa zabalegia dela, eta, ondorioz, okerreko kontzeptu operatiboak eta definizioak erabil daitezkeela gizartean baztertuta geratzeko arriskua zertan datzan zehazterakoan.

Beste alderdi batean ere aurreikusitako helburuak behar adina ez direla garatu egiaztatu dugu: oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistema abian jartzea, osasunari lotutako alderdiei buruzko informazioa diagnostiko sozialetan eta gizarteratze-hitzarmenetan sartzeko. Burututako ebaluazioaren arabera, alor horretan ez da aurreratu. Dena den, aipatzekoa da Arabako oinarrizko gizarte-zerbitzuek eskualdeko osasun-zerbitzuekin harremanetan aritzen direla lanean, inolako protokolorik ezarrita ez dagoen arren.

Etxebizitza-alorrean ere ez da Planean aurreikusitakoa bete: oinarrizko gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko sistema protokolizatua finkatua, etxebizitzari lotutako alderdiei buruzko informazioa diagnostiko sozialetan eta gizarteratze-hitzarmenetan txertatzeko. Bestalde, Etxebizitza Sailak gizarteratze- eta laneratze-prozesuak sendoago finkatzeko egin ditzakeen ekarpenei (gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei babes ofizialeko etxebizitza programarik sozialenak eskura jarriz) dagokienez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak sinatu beharreko salbuespen-aginduak identifikatzera mugatu dira, besterik gabe.

Hezkuntzaren alorrean, Eskolatze Osagarrirako programetan parte hartzeko konpentsazio-laguntzak sortu dituzte. Era berean, dirulaguntza handiak eman dira hasierako lanbide-prestakuntzako programak egiteko, eta, orain arte bezala, ikasle etorkinentzako arreta-programa, Lanbide Hastapenetarako Ikastegiak eta eskola-atzeratasun handiko ikasleentzako berariazko Hezkuntza Programak indartzeko

neurriak hartzen jarraituko dute. Azkenik, Haur Hezkuntzako udal-eskolen egungo eskaintza finkatu egin da 2008-2009ko ikasturtean zehar, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzat.

Lorpenak gorabehera, hezkuntza-alorrean ere aurrerabiderik txikiena izan duen alderdia hezitzaileen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko komunikazio-sistemari dagokiona da.

Justizia-alorrean, bestalde, bertan bizi diren etorkin guztien administrazio-erregularizazioa errazteko mekanismoak sustatzeari ekin zaio EAEn, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Heldu programa bultzatu du. Gainera, Bateratzen proiektua jarri dute abian, egoera irregularrean dauden etorkinei lan-merkatuan sartzen laguntzeko.

Arazo-iturri nagusia oinarrizko gizarte-zerbitzuen (kasu horretan, espetxeetako gizarte-zerbitzuen) arteko koordinazioa dela aipatu behar dugu oraingoan ere. GEParen proposamenaren arabera, espetxetik ateratzen edo hirugarren gradua lortzen dutenei berariazko gizarteratze- eta laneratze-programak eskaini beharko litzaizkieke, baina alderdi horretan ez dago inolako koordinaziorik, noizbehinkako harreman jakin batzuk izan ezik. Salbuespenezko harreman horien iturburu nagusiak Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren programak izan direla gaineratu behar dugu.

GEParen beste xede bat gizarte-erroldatzeari buruzko araudia onartzea zen, baina erroldak udalen eskumenak direnez, eta estatuko lege batek arautzen dituenez, ekinean hasteko aukerak oso urriak dira. Arazoak arazo, Eusko Jaurlaritza aipatutako araudia sustatzen saiatu da, eta, horrela, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak etxebizitzaren eskuragarritasuna eta erroldatzearen garrantzia azpimarratzen du, eta erroldatzea, gainera, gizarteratzeko ezinbesteko lehen urratsa dela aldarrikatzen du.

***Laburbilduz, aurrerapauso handiak eman dira bai osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-sisteman bai sistema penal eta juridikoan egiten diren esku hartzeak hobetzeko eta indartzeko. Dena den, sistema horien guztien eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-tresna egituratuen ezarpen maila txikia izan dela azpimarratu behar dugu.***

## PLANAREN KUDEAKETA ETA EZARPENAREN ETA INPAKTUAREN JARRAIPENA

Planaren hirugarren atalean, azkenengoan, barne-alderdiak eta ebaluazioari eta hobetzeko aukerei buruzkoak jorratzen dira, eta aukera horiek gauzatzen laguntzeko aurreikusitako tresnen nondik norakoak ere bai.

### PLANA KUDEATZEKO ERREMINTAK HOBETZEA ETA JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ADIERAZLE KOMUNAK GARATZEA

Tarteko ebaluazio hau egin den garaian, GEPean oraindik ez dituzte ezarri kudeaketa-sustapenerako aurreikusitako tresnak. Horrela, Gizarteratzeko Planaren Idazkaritza Teknikoa ez da sortu, eta gizarteratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan aurreikusten ziren partaidetza maila handiak ere ez dira mamitu.

Ebaluazioan zehar, beste berezitasun bat egiaztatu dugu: udaletan, Tokiko Garapen Agentzietan eta Foru Aldundietako atal jakin batzuetan GEP ez dutela behar adina ezagutzen.

Izan ere, hizpide dugun Planak ia jarduera guztien erantzukizuna hainbat erakunderen esku utzi zuen, subjektu aktiboa, protagonista edo betearazlea nor izango zen zehaztu gabe, eta horrek nahasmendua sorrarazi du, hein batean, kasuan kasuko erakundeei informazioa eskatzerakoan. Ebaluazioaren inguruan zalantzak ere sortu dira, zenbaitetan, informazioa biltzen ari ginela, esku-hartze jakin batzuk garatzeko eskumena beraiei ez zegokiela adierazi baitziguten hainbat erakundek. Ikusten denez, Planean aipatzen den “erakunde arduradunak” terminoa orokorregia da (ez da zehazten jarduera bakoitza nork egin, behatu eta baloratu behar duen).

Badirudi, beraz, GEPari lotutako informazioaren banaketa hobetu eta eztabaida teknikoa handiagoa sustatu behar dela, eraginpeko erakunde guztietan onarpena eta ezarpena areagotzeko.

Alor horretako aurrerapausoei dagokienez, programa eta prestazioei buruz egindako txostenak aipatu behar dira, indarguneak eta ahulguneak zehazten baitzituzten, eta, ondorioz, aukerako konponbideak eta hobekuntzak finkatzeko abiapuntutzat har baitaitezke. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari esleitutako funtzioak (gizarteratzearen eta familien aldeko programa, zerbitzu eta

prestazioak ebaluatzea eta gainbegiratzea, eta jardunbide egokiak atzemateko eta hedatzeko programa sortzea) GEPean aurreikusitako helburu baten, kudeaketa ona lortzeko asmoaren, emaitzak dira.

Azkenik, pobreziari eta gizarte-bazterkeriari lotutako faktoreek EAEn izandako eragina eta bilakaera erregulartasunez ebaluatzea komeni zela zioen Planaren testuak. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak pobreziari buruz egiten dituen azterketak helburu horrekin bat datoz, eta, gainera, Gizarte Babeserako Estatistika Bateratuen Sistema Europarrak (ESSPROS) gizarte-babesaz emandako definizioan (Europar Batasun osoan erabiltzen da) oinarritzen da.

Aurreikusitako esku-hartzeetan atzemandako gabeziei dagokienez, besteak beste, mikro-simulazioak egiteko eredua ez da garatu. Planak pobrezia-adierazleetan duen eragina indartzea zen helburua, batik bat fiskaltasunari lotutako itzulketen bidez.

***Laburbilduz, Planaren kudeaketa indartzeko aurreikusi ziren erreminta batzuk –hala nola, Idazkaritza Teknikoa sortzea– garatzeke daude oraindik, eta Plana sozializatzeko asmoetan hutsune handia dago, baita euskal administrazioetan ere. Bestalde, jardueren antolamenduari lotutako prozesuak hobetu egin behar dira, Gizarteratzeko Euskal Planean zehaztutako erakunde arduradun guztien artean benetako partaidetza, komunikazioa eta koordinazioa sustatzeko.***

# II. ATALA

# JARDUEREN GARAPENA

Hirurogeita hamar jardueretako bakoitzaren nondik norakoez berehala jabetzeko, sinopsiak egin ditugu, beheko adibidean ikusten den bezala. Era berean, jarduera bakoitzarentzat GEPak izendatutako erakunde arduradunen zerrenda eta 2008ko betetze mailaren informazio grafikoa erantsi ditugu.



# 1.GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMA

## 1.1. ARAU ESPARRUA EGOKITZEA GIZARTE BABESERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROZESUAK ANTOLATU ETA ERRAZTEKO

### 1.1.1. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat orain arte egin diren enplegu-politika aktiboak indartzea eta sustatzea

| 1. jarduera | *Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legeak eta Eskubide Sozialen Gutunak sorrarazitako lege-esparrua berrikustea, bien helburuen eta edukien araberako arau-berregokitzapenak egiteko.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ● ●

Gizarte-babeserako eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak antolatzeko eta errazteko nahiak eraginda, araudia egokitzeko erabakia hartu zen, batetik, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak arian-arian unibertsalizatzeko, eta, bestetik, gizarteratze-eremua eta gizarte-babesarena bereizi eta zehazteko. Araudia egokitzeko zeregina Gizarte Zuzendaritzari eta Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrari zegokien, eta burutu dute jadanik, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legeak eta Eskubide Sozialen Gutunak sorrarazitako lege-esparrua berrikusiz. Aurreikuspenen arabera, egokitzapenen ondoriozko Dekretuak epe labur edo ertainean egingo dira.

Araudia egokitzeko beste arrazoi bat gizartegintza indibiduala sustatzea eta erraztea zen, eta, halaber, gizarteratze-mekanismoak indartzea. Horretarako, aldaketak egin dira bai errefortzu-langileak kontratatzeko dirulaguntzak arautzen dituen Aginduan, bai gizarteratze-alorreko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen Aginduan. Bigarren horri, ordea, ez zaio eman aurreikusita zegoen urte anitzeko izaera.

GEParen indarraldian zehar onartu diren hiru legeri esker, aurrerapauso handiak eman dira helburuak lortzeko bidean, eta kasuan kasuko arauak garatzeko esparru egokia finkatu da. Hona hemen aipatutako hiru legeak:

- Ekainaren 22ko 4/2007 Legea, Gizarte-bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea aldatu zuena, eta abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Eskubide Sozialen Gutunarena.

- Ekainaren 25eko 8/2008 Legea, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituena.
- Abenduaren 23ko 8/2008 Legea, Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Pobreziaren kontrako Plan Integrala onartu zen 1989an, Euskadi-Europa 1993 Programaren esparruan, eta funtsezko abiapuntua izan zen gizarteratzearen eta gizarte kohesioaren alorrean aurrera egiteko. Gerora, arian-arian, eredu horri atxiki zitzaizkion autonomia-erkidego gehienetako legeriak.

Ezarpenaren ebaluazioa positiboa izan zen orokorrean, baina planaren diseinuan eta garapenean zenbait gabezia aurkitu zirenez, bazterkeriaren kontrako lege-araudi berria ezartzeari ekitea ezinbestekotzat jo zen. Araudi-hutsune edo -gabezia batzuek, izan ere, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen inguruko burokrazia zorrotzegiarekin zuten zerikusia.

2000. urtea erabakigarria izan zen Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legearentzat, oinarrizko beharrizanak eta gizarteratze-prozesuek eragindakoak estaltzeko beharrezkoak ziren lege-aldaketak egiteaz gain, “bizimodu independente” kontzeptua sortu baitzen. Bestalde, azaroaren 10eko 9/2000 Legeak, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuenak, bertan behera utzi zuen Foru Aldundiek gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketan gauzatu ohi zuen bitartekaritza-zeregina, GLLen ordainketetan atzerapenak sorrarazten zituelako. Eta premiazko laguntzak izanik, atzerapen horiek onartezinak ziren.

Urte haietan gizarte-politikei emandako bultzada eta ekonomiak izandako hazkundea gorabehera, milaka lagunek bazterkeria-egoeran zirauten, eta EAEko langabezia-tasa handiegia zen. Horregatik onartu zuten, izan ere, abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Eskubide Sozialen Gutunarena, funtsean lanaren banaketa eta oinarrizko errenta arautu zituena.

Ekainaren 25eko 4/2003 Legeak, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuenak, prestazioak jasotzeko adina jaitsi egin zuen, beren kasa bizitzeko adina baliabide ekonomiko ez izateagatik gurasoen etxean nahitaez jarraitu behar zuten gazteen kopurua nabarmena zela kontuan hartuta .

Urte horietan, bestalde, gizonen eta emakumeen ohiko gizarte-rolak errotik eraldatu ziren, emakumeek eremu guztietan askoz ere partaidetza handiagoa izaten hasi ondoren. Hala ere, alderdi askok berdin zirauten: lan-merkatuan edo hezkuntzan sartzeko aukera-desberdintasunak gizonen eta emakumeen artean, etxeko lanen ardurak, emakumearen kontrako indarkeriak, pobreziak... Horiei guztiei aurre egiteko onartu zen, hain zuzen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.

Denboraren poderioz, gazteen egoerak eta bizimodu independenteari ekiteko arazoek eragindako kezka zirela eta, ekainaren 22ko 4/2007 Legea, onartu zuten, 12/1998 Legea eta 10/2000 Legea aldatu zituena. Legeak gazteen zailtasunak islatu zituen, etxebizitzen prezio handiegiei eta lan-kolokatasunari erreparatuz batik bat.

Oinarrizko errenta jasotzen dutenen % 15 pentsioduna da, eta, datu horrek argi erakusten du pentsioen bidez bermatutako sarrerak txikiegiak direla. Gainera, pertsona horien sarrera maila txikiegia kasu bakar batean hartzen da eskubide-iturburutzat: bizikidetza unitateko sarrera guztien batura zenbateko jakin batera heltzen ez denean. Argi dago, beraz, bizikidetza unitatearen edukia berriz finkatu behar dela. Arazo horiei erantzutea izan zuen helburu 8/2008 Legeak, ekainaren 25ekoak, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituenak.

Azken urteotan politika publikoei emandako bultzada bereziari esker, pobrezia-tasei eustea eta egoerarik larrienetan daudenen kopurua murriztea lortu da. Politika horiek, gainera, pobrezia-egoerarik larrienei eraginkortasunez aurrea hartzeko aukera eman dute.

Esanak esan, pobreziaren profila errotik eraldatu da azken urteotan, hiru faktore direla eta: guraso bakarreko familien arazo ekonomikoen gorakada, immigrazioa eta lan egonkorrik gabeko gazteek bizimodu independentea izateko dituzten arazoak. Ondorioz, eredua berraztertzea komeni zela egiaztatu ondoren, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko lege-proiektua egin zen.

Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legeari hamaika aldaketa egin zaizkio lehen aldiz onartu zutenetik. Urteen poderioz, eta 12/1998 Legearen aldaketen ondorioz, jarduera-eremua hedatu egin da.

Aipatzekoa da, bestalde, oinarrizko errenta premiarik handiena zutenei ematen zitzaiela lehen; gaur egun, aldiz, prestazio unibertsala da.

Prestazioaren zenbatekoa ere izugarri aldatu da urteetan zehar: garai batean, LGSren % 55 ordaintzen zen, eta orain LGSren % 88. Eta pentsiodunei LGSren % 100 ere ordaintzen zaie.

## T 2. Bazterkeriaren kontrako legeek izandako bilakaera

| | Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa. | 8/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 9/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Eskubide Sozialen Gutunarena. | 4/2003 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa. | 4/2007 Legea, ekainaren 22koa, maiatzaren 22ko Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea eta abenduaren 27ko Eskubide Sozialaren Gutunaren 10/2000 Legea aldatu zituena. | 8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituena. | Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legea, abenduaren 23koa. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Testuingurua** | GGD jasotzeko eskubidea duten unitateak mugatzerakoan, zehaztapenak ez dira behar bezain argiak.<br>GGDak eskuratzeko irizpide ez-ekonomikoei buruzko arauak zorrotzegiak dira.<br>GLLei buruzko arauak zorrotzegiak dira.<br>Prestazio ekonomikoak kudeatzeko prozedura konplexuegia da.<br>Ez dago arau-hauste eta zehapenen inguruko erregimenik. | Gizarte-bazterkeriari lotutako egoeren iturbururik larriena, ugariena eta agerikoena honako hau da: bizimodu independenteari duintasunez eusteko adina diru-baliabide ez izatea. | Foru Aldundiek bitartekaritza-lana egiten dute dirulaguntzak ematerakoan, eta, beraz, banaketa-irizpideak aztertzeko eta berrikuspenak atzeratzeko eskumena dute.<br>Foru Aldundiek bitartekaritza-lana egiten dutenez, prestazioak ordaintzerakoan atzerapenak sortzen dira batzuetan. Eta premiazkoak direla kontuan hartuta, izapideek askoz ere arinagoak eta eraginkorragoak izan beharko lukete. | Ekonomia hazi arren, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasak handiegia izaten jarraitzen du. | Gazte askok, ikasketak bukatu dituzten edo lan-merkatuan sartzeko gogoa duten arren, ez dute bizimodu independenteari duintasunez eusteko adina diru, eta, ondorioz, etxean bizitzen jarraitu behar dute, ezinbestez. | Lan-merkatuan lehen baino emakume gehiago daude, baina horien kopurua gizonezkoena baino txikiagoa da oraindik.<br>Hezkuntza maila guztietan sartzeko aukerak.<br>Prestakuntza eta kultura eskuragarriagoak, baina erabaki-gunean parte hartzeko aukerak urriagoak.<br>Etxeko lanez gehiago arduratzen dira.<br>Emakumeen kontrako indarkeria. | Potentzialki independenteak diren familia unitate batzuk pobrezia- eta prekarietate-egoeran egongo lirateke, bizimodu independentea izanez gero. | 60 urtetik gorakoen eta, oro har, pentsiodunen artean, pentsioen bidez bermatutako sarrerak ez dira behar adinakoak, eta, gainera, beste diru-sarrera osagarri batzuk lortzeko aukerak oso urriak dira. Talde horien sarrera-gutxiegitasuna kasu bakar batean hartzen da eskubide-oinarritzat: bizikidetza unitateko kide guztien sarrera guztien batura maila jakin batera iristen ez denean. | Langabezia-tasak izugarri murriztu dira.<br>Enplegu-tasak izugarri handitu dira.<br>Etxebizitzen prezioak igoera ikaragarria izan du.<br>EAEn erroldatutako etorkinen kopuruak nabarmen egin du gora.<br>Guraso bakarreko familietan, arazo ekonomikoak gero eta handiagoak dira.<br>Lanpostu finkorik gabeko gazteek bizimodu independentea izateko aukerak.<br>Pobrezia-egoeran daudenen artean, emakumeak dira nagusi .<br>Pobrezia lurralde-kokagune jakin batzuk ditu.<br>Ezkutuko pobrezia eta emantzipatzeko arazoak.<br>Soldata txikiek eragindako pobrezia. |
| **Helburuak eta jarduera ildoak** | Bazterkeria arian-arian desagerrarazteko nahitaezkoak diren egitura-aldaketen prozesu luzea abiaraztea eta bideratzea.<br>Bazterkeriari lotutako prozesu eta erakundeen ondorio sozial larriak epe laburrean murriztea.<br>Bazterkeriaren kontra borrokatzea, herri-politikak diseinatuz eta ezarriz.<br>Esku-hartzeak koordinatzea.<br>Egoerarik txarrenean dauden taldeei bizitza maila egokia izateko aukera bermatzea, oinarrizko behar materialei erantzuteko gai izan daitezen. | Beharrezko lege-aldaketak sustatzea, GGDren bidez oinarrizko beharrak eta gizarteratze-prozesuen ondoriozkoak estaltzeko, errenta hori eskuratzeko baldintza guztiak, gehieneko adinarena izan ezik, betetzen dituztenei dagokionez. | GLLei esleitutako aurrekontu-partidetan behar adinako hornidura ekonomikoa finkatzea, lege-baldintzak betetzen dituzten guztiek eskura ditzaten. | Dualizazio- eta pobrezia-egoerei eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko beharrezkoak diren jarduera-mekanismoak finkatzea.<br>Administrazioen betebeharrak eta hiritarren betebehar eta eskubideak finkatzea.<br>Euskal Autonomia Erkidegoan Eskubide Sozialen Gutuna onartzea, hiritar guztiek lan-merkatuan sartzeko eta Oinarrizko Errenta eskuratzeko aukera izan dezaten, eta, horrela, hiritar-eskubideez balia daitezen.<br>Hiritarren oinarrizko eskubideen aitorpena. | Oinarrizko Errenta eskuratzeko gutxieneko adina murriztea eta 23 urtetan finkatzea, gure gazteen eta, oro har, gizartearen nahiei erantzuteko. | Politika eta jarduera eraginkorragoak eta zorrotzagoak gauzatzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezeztatzeko, egiturazko fenomeno unibertsala baita. | Pobreziaren eta kolokatasunaren eraginpean dagoen talde horri Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legean sarbidea ematea. | Pentsiodunei bizikidetza unitate izaera berariaz aitortzea, nahiz eta familiako beste kide batzuekin bizi.<br>Kasu horietan, prestazioen gehieneko zenbatekoa handitzea, pentsiodunek ez baitute sarrera maila handitzerik, lan-merkatuan sartuz. | **Orokorrak**<br>Baliabiderik egokienak ezartzea, behar berriekin bat etorriko diren erantzunak emateko.<br>Jadanik ezarritako tresna batzuetan nabaritu diren zenbait disfuntzio zuzentzea.<br>**Bereziak**<br>Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari dagokionez, sistema autonomotzat hartzea.<br>Ereduaren oinarri kontzeptualak eta egitura- eta antolamendu-oinarriak finkatzea.<br>Prestazio modalitateak diseinatzea eta antolatzea komeni da.<br>Diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzeko tresnak EAEko eremu osoan bateratasunez ezartzea. |

T 2. **Bazterkeriaren kontrako legeek izandako bilakaera**

| | Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa. | 8/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 9/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Eskubide Sozialen Gutunarena. | 4/2003 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa. | 4/2007 Legea, ekainaren 22koa, maiatzaren 22ko Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea eta abenduaren 27ko Eskubide Sozialaren Gutunaren 10/2000 Legea aldatu zituena. | 8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituena. | Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legea, abenduaren 23koa. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Helburuzko biztanleak** | Oinarrizko elikadura-beharrei erantzuteko behar diren baliabide ekonomikoak ez dituztenak.<br>Etxebizitza duina eta egokia izateko behar diren era guztietako baliabideak ez dituztenak.<br>Oinarrizko gizarte-eskubideez baliatzeko gaitasunik ez duen edozein hiritar. | GGDaren titularrek 60 urte betetakoan prestazioa jasotzeari uzten zioten, beste era bateko dirulaguntzak eta prestazioak eskuratzeko eskubideari hasiera emanez. Egoera horrek bidegabeko kalte ekonomikoak eta gizarteratze-arazoak eragiten zizkien titularrei. | Gizarte-bazterkeriari lotutako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo murrizteko nahitaezkoak diren berariazko, ohiko eta aparteko gastuak ordaintzeko baliabiderik ez dutenak . | Oinarrizko beharrei eta gizarteratze- eta lan-prozesuen ondoriozko beharrei aurre egiteko behar diren baliabide ekonomikoak ez dituztenak. Dualizazio- edo pobrezia-egoeran eta gizartean baztertuta daudenak. | Ikasketak bukatu edo lan-merkatuan sartzeko gogoa izan arren, bizimodu independenteari duintasunez eusteko baliabiderik ez duten gazteak. | Emakumeak, oro har.<br>Tratu txarrak jasandako emakumeak, bereziki. | Epe ertain edo luzean bizimodu independentea izan nahi luketen langabetuak edo biztanle ez-aktiboak. Talde horretan 18 eta 23 urte bitarteko gazteak ere sartzen dira. | Kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko pentsioak kobratzen dituztenak, betiere, familia-elkartasunagatik eta arrazoi ekonomikoengatik, etxekoekin edo beste batzuekin batera bizi badira. | Baliabide ekonomiko propiorik (pentsioen edo lan-errenten ondorioz) ez duten pertsonak eta bizikidetza unitateak, betiere horien hileko sarrera maila Gizarteratzeko Oinarrizko Errenta baino txikiagoa baldin bada.<br>Kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko pentsioak kobratu arren, hileko sarrera mailan Oinarrizko Gizarteratze Errentaren zenbatekora iristen ez direnak.<br>Lan-errentak dituzten arren, hileko sarrera mailan LGSren zenbatekora iristen ez direnak.<br>Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak, etxebizitzak eskuratzeko arazoak baldin badituzte. |

T 2. **Bazterkeriaren kontrako legeek izandako bilakaera**

| | Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa. | 8/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 9/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Eskubide Sozialen Gutunarena. | 4/2003 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea aldatu zuena. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa. | 4/2007 Legea, ekainaren 22koa, maiatzaren 22ko Gizarte-bazterkeriaren kontrako 12/1998 Legea eta abenduaren 27ko Eskubide Sozialaren Gutunaren 10/2000 Legea aldatu zituena. | 8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legea eta Eskubide Sozialen Gutunarena aldatu zituena. | Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legea, abenduaren 23koa. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Edukia eta berrikuntzak | Gizarteratze-hitzarmenak.<br>Erakunde arteko koordinazio-tresna politikoak areagotzea.<br>Gutxieneko errenta edo GDD jasotzeko eskubidea berrestea.<br>Gizarte-larrialdietarako laguntzei sarbidea ematea eta horien edukia zehaztea.<br>Prestazioak eskuratzeko irizpide ez-ekonomikoetan aldaketa partzialak egitea.<br>Etxebizitza independente kontzeptua birplanteatzea.<br>Prestazioen zenbatekoa finkatzerakoan, sarrera ez-konputagarrien eremua hedatzea.<br>Kudeaketa-eredua aldatzea, prestazioak hobetu garatu eta ezarriko direla bermatzeko.<br>Arau-hausteen eta zehazpenen sistema ezartzea.<br>Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da zenbatekoa. | Oinarrizko Errentak 60 urtetik gorakoei eskaintzen dien babesa hedatzea. | Foru Aldundiek gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketan egiten duten bitartekaritza-lana bertan behera uztea. | Enplegua sustatzea: lan-denbora murriztea, aparteko orduak kentzea, antolamendu modu malguak ezartzea, kontratazio berriak sustatzea, enplegu-gune eta ekonomia-sektore berriak identifikatzea eta garatzea etab.<br>Oinarrizko Errentak honako zenbateko hauek bermatuko ditu: urteko LGSaren % 75 gehi % 25 bigarren pertsonarentzat, eta % 10 gehiago pertsona bakoitzeko, hirugarrenetik aurrera,<br>Oinarrizko gizarte-eskubideak finkatzea. | Oinarrizko Errenta eskuratzeko gutxieneko adina 25 urtetik 23ra murriztea. | Herri-botereen jardueren printzipio orokorrak finkatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrari dagokionez.<br>Neurri multzo bat arautzea, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna bizitzaren eremu guztietan sustatzeko eta bermatzeko. | Premia-egoera berezietan dauden 23 urtetik beherakoek ere errenta jasotzeko aukera izango lukete, Eusko Jaurlaritzak ara bidez zehaztutako baldintzak betez gero.<br>Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreren hileko zenbatekoa 10/2000 Legean finkatutakoa izango da.<br>Oinarrizko Errenta jasotzen dutenei laguntza osagarria ordainduko zaie.<br>Oinarrizko Errentak honako zenbateko hauek bermatuko ditu: urteko LGSaren % 88 gehi % 25 bigarren pertsonarentzat, eta % 10 gehiago pertsona bakoitzeko, hirugarrenetik aurrera. | Kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko pentsioak kobratzen dituztenentzat, Oinarrizko Errentaren zenbatekoa honako hau izango da: LGSaren % 100ekoa pertsona bakar batentzat, % 25 gehiago bi pertsonaz osatutako bizikidetza unitateentzat, eta 10 % gehiago pertsona bakoitzarentzat, hirugarrenetik aurrera.<br>Unitate ekonomiko independentetzat honako hauek hartuko dira: kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko erretiro-baliaezintasun-edo alarguntasun-pentsioak kobratzen dituzten eta etxe berean beste unitate batzuekin eta ezkontidearekin bizikidearekin edo mendekoekin bizi direnak. | Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta deritzon dirulaguntza lan-errenten ondoriozko sarrerarik ez duten hiritarrei ematen zaie, betiere horien hileko sarrera maila Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino txikiagoa baldin bada.<br>Lan-sarreren Errenta Osagarria izeneko dirulaguntzak lanaren ondoriozko sarrera mailak osatzea du helburu, eta hileko sarrera mailetan Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekora iristen ez direnei ematen zaie.<br>Etxebizitza-prestazio osagarria izeneko dirulaguntzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzea du helburu, eta ohiko etxebizitzarekin edo bizitokiarekin zerikusia duten beharrei erantzuteko ematen da. |

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko 18/2008 Legea onartu zen hilabete berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea onartu zen. Bi lege horiek GEP garatzeko benetako euskarriak izan dira, bietan aurreikusitako neurri, programa edo sistemek GEParen jarduera ugari, funtsezkoak denak, mamitzeko aukera eman baitute.

Hizpide ditugun legeak bide paraleloak ari dira urratzen, sistema desberdinei baitagozkie, baina bien garapenak logika bera du oinarri, hein batean: sistemak bat ez etorri arren, ekitateari erreparatzen diote funtsean, koordinazio-organoak aurreikusten dituzte, informazioaren kudeaketari berebiziko garrantzia ematen diote eta sistemari lotutako prestazioak berrantolatzen ari dira.

## T 3. 2008ko bi lege handien ekarpenak

| | Diru-sarrerak Bermatzeko eta GIzarteratzeko 18/2008 Legea, abenduaren 23koa. | Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa. |
|---|---|---|
| **Sistemen definizioa** | Gizarte-bazterkeriaren kontrako legearen helburua Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema arautzea da, eta, horren esparruan, dirulaguntzak jasotzeko eta hainbat tresnaz baliatzeko eskubidea arautzea. Aipatutako tresnen xedeak, berriz, honako hauek dira: bazterkeria-arriskuari aurrea hartzea, bazterkeria pertsonalari edo gizarte- eta lan-bazterkeriari lotutako egoerak murriztea, eta hiritartasun-eskubide sozialaz benetan baliatzeko behar diren baliabide pertsonalak, sozialak edo ekonomikoak ez dituzten hiritarrei gizarteratzen laguntzea. | Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta emateko sare antolatua da, erantzukizun publikoan oinarritzen dena. Prestazio, zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatu itunduak hartzen ditu barne, pertsona, familia edo talde guztiei gizarteratzen eta bizimodu autonomoa izaten laguntzeko. Ildo horretan, sustapenean, prebentzioan, babesean eta laguntzan oinarritutako funtzioak gauzatzen ditu, prestazio eta zerbitzu pertsonalak eta harreman-zerbitzuak eskainiz funtsean. Gai horretako formulaziorik aurrerakoienekin bat eginez, beharren izaeran eta ezaugarrietan oinarritutako erantzun-sistema finkatzeko erabakia hartu da, taldeei eman beharreko erantzunetan oinarritutako egitura alde batera utziz. Horrek ez du esan nahi, ordea, erantzun-sistemaren baitan talde horien xehetasunei babesik eta erantzunik emango ez zaienik. |
| **Ekitatea: oinarrizko ardatza** | Hiritar guztiei Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak barne hartzen dituen dirulaguntzak eta gizarteratze-tresnak eskuratzeko aukera bermatzea, berdintasun- eta ekitate-irizpideei jarraiki. Horretarako, aipatutako laguntzak eta tresnak Autonomia Erkidego osoan bateratasunez ezartzeko neurriak hartuko dira. | EAEko Herri Administrazioek prestazio eta zerbitzuen estaldura, gutxienez, bermatu beharko dute, baliabideek Autonomia Erkidego osoan banaketa homogeneoa izan dezaten, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztutakoari jarraiki. Halaber, aipatutako prestazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna bermatuko dute, ekitate-irizpideak oinarri hartuta, baldintza pertsonalen edo sozialen araberako inolako bereizketarik egin gabe. Horrez gain, ekintza positiboen eta aukera- eta tratu-berdintasunaren inguruko neurriak ere hartu ahal izango dituzte, beren jardueretan sexuen arteko berdintasunaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegiari sarbidea emanez, eta, era berean, belaunaldi arteko eta kultura arteko ikuspegia txertatuz. Halaber, EAEko Herri Administrazioek, hizkuntza-araudia betetzeko, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatuko diete hiritarrei. |
| **Koordinazio-organoak** | Kontsulta- eta partaidetza-alorrean, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua sortu dute, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko gaiei lotutako eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailari atxikita. Aipatutako Kontseiluan Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udaletako ordezkariek hartuko dute parte, eta hauen guztien ordezkariek ere bai: sindikatuetakoek, enpresaburuen elkarteetakoak, erabiltzaileenak, gizarteratze-alorrean esku hartzen duten gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak, eta sektore horretako profesionalenak. | Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Kontseilua sortuz, EAEko Herri Administrazioen lankidetza eta koordinazioa bideratzeko aukera formala eskainiko du Sistemak, Autonomia Erkidego osoan prestazio eta zerbitzu guztien garapen koherentea eta bateratua bermatzeko.<br><br>Kontsulta- eta partaidetza-alorrean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua sortu dute. Bere ezaugarriak eta funtzioak eta Ongizateko Euskal Kontseiluak orain arte izan dituenak antzekoak dira. Gainera, Foru Aldundietan eta udaletan ere horrelako kontseiluak eratzeko asmoa dago, eta aurreikuspenen arabera, Autonomia Erkidegoan sektore-kontseiluak osagarriak sortuko dira. |
| **Informazioa kudeatzea** | EAEko Herri Administrazioek “Diagnostikoa eta esku-hartze soziala” izeneko informatika-tresna erabiliko dute, beharrei buruzko informazioa biltzeko, tokian tokiko eremuko diagnostiko sozialak egiteko, eta diagnostiko indibidualak eta gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuak gauzatzeko. | Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea. |

| T 3. **2008ko bi lege handien ekarpenak** | | |
|---|---|---|
| **Prestazioak** | Gizarteratzeko Oinarrizko Errenta pentsioen edo lan-errenten ondoriozko baliabide ekonomiko propiorik ez duten pertsonei eta bizikidetza unitateei emango zaie batik bat, betiere horien hileko sarrera maila Gizarteratzeko Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino txikiagoa bada. Aipatutako prestazioarekin batera, gizarteratzeko edo lan-munduan sartzeko laguntza bereziak emango dira, gizarteratze-hitzarmenen bidez.<br><br>Pentsioen Errenta Osagarria kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko pentsioak dituztenei emango zaie, hileko sarrera maila LGS baino txikiagoa bada. Horrez gain, kasuan kasuko Gizarte Zerbitzuko kideek, beharren diagnostikoa burutu ondoren, egokia edo beharrezkoa baderitzote, gizarteratzeko edota lan-munduan sartzeko laguntza bereziak ere emango dira.<br><br>Lan-sarreren errenta osagarria lan-errentak dituztenei ematen zaie, hileko sarrera mailan Gizarteratzeko Oinarrizko Errentaren zenbatekora iristen ez direnean. Prestazio horrez gain, lan-egoera hobetzeko laguntza bereziak emango dira, Enplegu Zerbitzuen bidez. Era berean, kasuan kasuko Gizarte Zerbitzuko kideek egokia edo beharrezkoa baderitzote, gizarteratzeko bestelako laguntzak ere emango dira.<br><br>Etxebizitza-prestazio osagarria beharrik larrienak dituztenei –alegia, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei– ematen zaie, etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten. Prestazio horren bidez, bera, orain arte GLLen bidez estali diren premia askori erantzungo zaie. Baina bien artean funtsezko desberdintasun bat dago: prestazio osagarria eskubidetzat jotzen da. Horrela, aurrerantzean, GLLak aparteko beharretarako dirulaguntzak izango dira berriz. | Prestazio teknikoetan harremanen alorra ere jorratuko da, laguntzazkoa, eta ahal den neurrian, erabiltzaileen partaidetzarekin gauzatuko da hori guztia.<br><br>Hartzaileei gizarteratzen eta bizimodu autonomoa izaten laguntzea izango da dirulaguntzen helburua. Ildo horretan, gizarteratze-prozesuan babesa eskaini eta mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeren ondoriozko beharrei aldi baterako edo behin betiko erantzungo zaie.<br><br>Erabiltzaileei eta zaintzaileei bizimodu autonomoa izaten eta gizarteratzen laguntzea izango da prestazio teknologikoen helburua. Tokian tokiko testuinguruan txertatzen lagunduko zaie, eta, ahal den neurrian, autonomia-gabeziak dituztenek beren ohiko bizitokian bizitzen jarraitzearen alde egingo da. |

Errealitatearen bilakaeraren ondorioz, Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legearen eredua eta Eskubide Sozialen Gutuna birformulatzeari ekitea komeni zen, bi helburu orokor lortzeko: batetik, baliabide egokiagoak ezartzeko, behar berrien araberako erantzun hobeak eman daitezen; bestetik, jadanik ezarritako tresna batzuen ezarpenean nabaritu diren hainbat disfuntzio zuzentzeko. Helburu bereziak, berriz, honako hauek ziren:

- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema, hain zuzen, sistema autonomo bihurtzea. Osotasun koherente integratu baten baitan, hainbat kudeaketa-formula erabiltzeko aukera egongo litzateke. Izan ere, formula horietaz gaur egun gizarte-zerbitzuak eta enplegu-zerbitzuak arduratzen diren arren, etorkizunean, egokia bada, beste jarduera-eremu batzuetan txertatu ahal izango dira guztiak, edo batzuk bederen.

- Ereduaren oinarri kontzeptualik eta egitura- eta antolamendu-oinarririk egokienak finkatzea, horien izaera dela eta, eskubideak berma daitezen. Oinarri horiek, gainera, diseinu berezia eta malgua behar dute izan, estaldura-sistema arian-arian hedatzeko aukera eman dezaten, eskuragarritasunekin bat. Horrela, sistemako hainbat tresna batera erabiliz, etengabeko aurrerapausoak emango lirateke unibertsalizaziorako bidean.

- Gero eta nabarmenagoa den egoera bat bideratzeko moduko konponbideak aurkitzea. Hau da, aztergai dugun prestazioa sarrera maila txikiak osatzeko dirulaguntzatzat hartzen da, gero eta gehiago, eta arazo

ekonomikoak dituzten hiritarrei bakarrik ematen zaizkie. Horrelako hiritarrek, beraz, ez dute behar gizarteratzeko babes berezirik. Hartzaile moten bilakaera horren iturburu nagusiak hiru dira: lan-merkatuaren kolokatasuna eta soldata maila txikiko lanpostu kopuruaren gorakada; bestetik, prestazioa eskatzeko gutxieneko muga ekonomikoa handitu izana, horrek nolabaiteko sarrera propioak dituzten familia unitateei ere ireki baitizkie ateak; azkenik, prestazioa eskatzeko gehieneko adina bertan behera utzi izana. Azken ezaugarri horren ondorioz, norbere sarrerekin eta baldintzekin bizimodu duina izateko aukerarik ez duten pentsiodunei ere eman zaie sarbidea. Aipatutako aldaketak kontuan hartuta, hainbat prestazio modalitate diseinatzeko eta antolatzeko aukera komenigarritzat jo da. Ildo horretan, sarrera propioak osatzeko modalitateak sortuko lirateke berariaz, diru-iturri horien jatorriaren (lan-errentak edo pentsioak) arabera, eta, gainera, kudeaketa arinagoa izango litzateke. Ondorioz, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen lan-zama arindu egingo litzateke hein batean, eta gizarteratzeko laguntzen beharrik handienak dituzten taldeekin buru-belarri aritzeko aukera izango lukete.

- Hiritar guztien tratu-berdintasuna bermatzeko baliabideak eskaintzea, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko tresnak Autonomia Erkidegoko eremu osoan bateratasunez ezarriz. Horrela, estalduraren alorrean egun dauden desberdintasun batzuk bertan behera geratuko lirateke. Bistakoa da lurralde historiko guztietan pobreziaren edo langabeziaren eragina ez dela berbera, baina hala ere, aipatutako desberdintasunak ez dira onargarriak .

- Dirulaguntza osagarrien sistema egonkorra egituratzea, diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzen dituzten hiritarrei etxebizitzarekin zerikusia duten egitura-gastuak ordaintzen laguntzeko. Horrela, gizarte-larrialdietarako laguntzak bideratzeko eta aparteko gastuetarako erabiltzeko aukera egongo litzateke, eta egiturazko arazo horri erantzun egonkorra, baina behin-behinekoa, emango litzaioke, harik eta etxebizitza-politika publikoak, gizarte-babeseko helburuekin lotura estua duenak, gaiari ikuspegi osoago batetik heldu arte.

- Eredu berria ezartzea, gizarteratzeko biderik egokiena enplegua dela kontuan hartuta. Lan-merkatuan sartzea, baita soldata txikiko lanpostuetan ere, aukera erakargarri bihurtzea izango litzateke kontua. Horrela, gainera, Europako Enplegu Estrategiak gizarte-kohesioaren eta lan-merkatuko sarbideen inguruan finkatutako jarraibideak beteko lirateke.

- Gizarteratzeko eta eragile guztiak koordinatzeko zerbitzu espezializatuak sortzearen alde egitea. Alor horretan, izan ere, sakabanaketa eta aniztasuna gizarte-ongizatearen gainerako alorretan baino handiagoak dira.

Araudiaren helburua diru-sarrerak bermatzeko prestazioak unibertsalizatzea den arren, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kideek jakinarazi dutenez, talde batzuek gizarteratze-bideetan parte hartzeko arazo bereziak dituzte: batik bat, egoera irregularrean dauden etorkinek, emakumeek (orokorrean, eta bereziki familia-zamak dituztenak), 50 urtetik gorakoek, ijitoek, eta, neurri txikiagoan, luzaroko langabeek eta trastorno fisiko zein psikikoak edo mendekotasunak dituztenek.

| 2. jarduera | *Arau-esparru orokorrean egindako aldaketei dagozkien Dekretuak onartzea.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ○ ○

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, gure ebaluazioa egiten ari ginela onartu zuten. Beraz, Oinarrizko Errentaren inguruko araudi berria garatzeko Dekretuak, gizarte-larrialdietarako laguntzak, gizarteratze-hitzarmenak eta sistemaren gainerako oinarrizko elementuak onartzeko astirik ez da egon.

Ebaluazio hau tarteko garaian egin denez, ziur aski, orain arteko prozesuetan gertatu den bezala, aurreikusita dauden Dekretuak Planaren indarraldia bukatu aurretik onartuko dira.

### 1.1.2. Arauak egokitzea, gizartegintza indibidualizatua sustatzeko eta indartzeko eta gizarteratze-mekanismoak areagotzeko

| 3. jarduera | *Errefortzu-langileak kontratatzeko dirulaguntzen banaketari buruzko Agindua aldatzea. Ildo horretan, laguntzak banatzerakoan, Oinarrizko Errentaren eta GLLren onuradunak gizarteratzeko hitzarmenak sinatu dituzten eta horiei babes-programa pertsonalizatuak eskaintzen dizkieten udalei emango zaie lehentasuna.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ● ●

Aipatutako jarduera gauzatzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko martxoaren 12ko Agindua onartu zen. Aginduaren bidez, 2008an zehar gizarteratze-programetarako indartze-langileak kontratatzeko emango diren dirulaguntzen nondik norakoak arautu ziren.

Aginduak GEParen jarduera jakin bati erantzun nahi izan dio berariaz, udalen baliabideak indartzeko, gizarteratze-lanean gero eta gehiago murgil daitezen. Urrats bat izan da, hain zuzen, azken urteotako araudi-garapenaren prozesuan. Aurretiazko azterketa batean, araudi-esparru handien bilakaeraren nondik norakoak ikusi zituzten, legeei erreparatuz. Baina aginduei erreparatuz hobeto nabaritzen dira behar-egoeretan nolako aldaketak egokitu diren, eta diru-sarrerak bermatzeko prestazioen helburua zein den: arian-arian unibertsalizatzea, gizartegintza indibiduala sustatzeko eta gizarteratze-mekanismoak indartzeko. Aldaketa horren ezaugarri nagusiez jarraian mintzatuko garen arren, aipatutako funtzioetarako langileak kontratatzeko premiaren iturburua dela azpimarratu nahi dugu.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko aginduen ondorioz, erakunde guztietan egin beharko dira aldaketak, nola gizarte-zerbitzuetako zereginetan, hala baliabideetan.

Batetik, aurrekontuen mugak finkatzeko ardura udalei eta mankomunitateei dagokie. Horiez gain, gizarteratze-programak egiten dituzten partzuergoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek Eusko Jaurlaritzak jardueretarako eta gizarteratze-programetarako emandako laguntzak arautu behar dituzte. Baliabide pertsonalen edo sozialen gabeziak murriztea da helburua, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei bizimodu independentea izateko aukera eskaintzeko.

Erakunde horiek teknikarien eta administrazio-langileen kontratazioa sustatu behar dute, gizarteratze-hitzarmen eta -programak errazago kudea daitezen, eta, ildo horretan, diru-ekarpenak egingo dira. Horrela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak 5.865.000 €-ko aurrekontua du, 2008an zehar indartze-langileen, teknikarien eta administrazio-langileen kontratazioa finantzatzeko, Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan egingo diren gizarteratze-programetan jardun dezaten. Ildo horretan, 1.949.000 €-ko jarduera osagarria finkatu da.

Gastu jakin batzuei aurre egiteko adinako sarrerarik ez izateagatik bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat gehieneko kopuruak finkatu dira. Gainera, Auzolan programarako deialdia egin beharko dute, prestakuntza-prozesua eta praktikak uztartuz lana aurkitzeko aukerak eskaintzeko.

Hizpide ditugun aginduetan beste era bateko laguntzak arautzea ere proposatzen da: espetxeetako presoekin ekintza-programak eta gizarte-sentsibilizazioak egiteko ematen direnak, alegia. Alor horretan esperientzia duen langileak behar dira.

T 4. **Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren aginduek izandako bilakaera**

| | 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA | 2008ko otsailaren 13ko AGINDUA | 2008ko otsailaren 27ko AGINDUA | 2008ko martxoaren 5eko AGINDUA | 2008ko martxoaren 12ko AGINDUA | 2008ko apirilaren 9ko AGINDUA | 2008ko maiatzaren 21eko AGINDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Helburua** | 10/2000 Legeak kopuruen alorrean finkatutako aldaketen araberako egokitzapenak gauzatzea.<br><br>Baliabideak zenbatzerakoan, norbere edo inoren konturako lanaren ondoriozko sarrera-portzentaje jakin batzuk kontuan ez hartzea. | 2008ko urtealdiko GLLen gastu espezifiko bakoitzaren gehieneko zenbatekoak finkatzea.<br><br>Estaldura-kredituak banatzeko irizpideak adieraztea.<br><br>2008ko lehen seihilekorako aurrekontuen muga finkatzea. | Eusko Jaurlaritzak partzuergoei, mankomunitateei, udalei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei 2008ko urtealdian zehar gizarteratze-jarduerak eta -programak gauzatzeko emango dizkien laguntzak arautzea. Jarduera eta programa horiek EAEn egingo dituzte, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean.<br><br>Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei dagokienez, baliabide pertsonalak eta sozialak murriztea da helburua, bizimodu independentea izateko aukera eskaintzeko. | Auzolan Programako 2008ko laguntzak eskuratzeko deialdia egitea. Aipatutako laguntzak gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei emango zaizkie, lan-munduan sartzen laguntzeko. Egoera horietan daudenei gizarte-onurako enpleguak lortzeko aukera ematea da helburua, prestakuntza-prozesua eta lan-praktikak uztartuz. Bigarrenei aldi baterako lan-kontratu partzialak egingo zaizkie. | EAEko toki-erakundeei teknikariak eta administrazio-langileak kontratatzeko laguntzak ematea, batik bat gizarteratze-hitzarmenak eta gizarteratze-programa berriak errazago kudea daitezen. Horretarako, diru kopuru jakin batzuk emango zaizkie. | Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bidez, espetxeratutakoekin edo horien senitartekoekin 2008ko urtealdian zehar programa jakin batzuk gauzatzeko emango dituen laguntzak arautzea: gizarte-ekintzako. programak, gizarte-sentsibilizaziokoak, ikasketa-programak edo antzekoak. Horiek guztiak EAEko nahiz kanpoko espetxeetan gauzatuko dira. | EAEko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzak 2008ko bigarren seihilekoan izango dituen aurrekontuak mugatzea. |
| **Hartzaileak** | EAEko udalak eta mankomunitateak. | Ohiko edo aparteko gastu jakin batzuei aurre egiteko behar diren baliabideak ez dituztenak, gizarte-bazterkeriari lotutako egoerak saihesteko edo murrizteko. | Gizarteratze-programak egiteko asmoa duten partzuergo, mankomunitate eta udalak.<br><br>EAEn gizarteratze-programak, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean, egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, Elkarte edo Fundazioen Erregistroan inskribatuta daudenak. | Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden hiritarrak. | EAEko toki-erakunde guztiak: udalak, mankomunitateak nahiz zerbitzu-elkarteak. | Legez eratutako irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak, espetxeratutakoen inguruko gizarte-ekintzaren alorrean esperientzia dutenak, betiere deialdian zehaztutako gaienerako baldintzak betetzen badituzte. | EAEko udalak eta mankomunitateak |

GEPean honako adierazle hau proposatu zen aztergai izan dugun jarduera ebaluatzeko: zenbat gizarteratze-hitzarmen sinatu diren kontuan hartzea. Ebaluazioan parte hartu duten udalen eta mankomunitateen arabera (guztien artean 1.286.132 biztanle ordezkatzen dituzte), 2007an 5.081 sinatu zituzten eta 2008an 4.705, urriaren 31ra arte. Iturri horiek adierazi dutenez, hitzarmenen jarraipena ez da izaten erabateko: gizarte-zerbitzuen % 24,1ek egiten du kasu guztien jarraipena.

T 5. **Sinatutako gizarteratze-hitzarmenen jarraipena**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Beti** | 7 | 24,1 |
| **Gehienetan** | 13 | 44,8 |
| **Batzuetan** | 5 | 17,2 |
| **Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez** | 0 | 0,0 |
| **ED/EDE** | 4 | 13,8 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

4. jarduera — *Gizarteratze-alorreko jarduerak egiteko dirulaguntzei buruzko Araua aldatzea, GKEekin urte anitzeko hitzarmenak sina daitezen. Hitzarmen horien helburua bazterkeria maila handiko taldeak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko prozesuak kudeatzea izango da, oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza emanez eta horiekin koordinaturik jardunez.*

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Udalak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ● ○

Jarduera hori gauzatzeko asmoz, Agindua aldatzeko erabakia hartu eta 2008ko otsailaren 27ko Agindua onartu zen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, EAEko gizarteratze-alorreko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko. Dena den, horiei ez zaie urte arteko izaera eman. 2008rako aurreikusitako dirulaguntzak finantzatzeko zenbatekoa 1.845.000 €-koa da.

Bilboko udala izan da alor horretako balorazioak helarazi dituen bakarra.

Bilboko udalak ez du dirulaguntza hori eskatu, bere gizarte-ekimenekin bateratzea zaila iruditzen zaiolako. Udalaren iritziz, dirulaguntza toki-administrazioei eman beharko litzaieke, hirugarren sektorearekin lankidetza-hitzarmenak sinatu eta elkarlaneko gizarteratze-programak abiaraz ditzaten. Gizarte-ekimenetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko lankidetza-ziurtagiriak eskatu ohi dira, batzuetan hauxe gertatzen delako: toki-administrazioekiko lankidetza-hitzarmenak sinatzen dira programetarako dirulaguntzak eskatzeko, baina gero programak beti ez dira bat etortzen oinarrizko gizarte-zerbitzuen beharrekin, eta, oro har, aipatutako zerbitzuei ez zaie laguntzen gizarteratze-prozesuetan benetan esku hartzen.

Bestalde, Bilboko udalak jakinarazi digunez, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak udal-zerbitzuei ez diete ematen inolako informaziorik ez dirulaguntza eskarien helburu diren programen edukiei buruz, ezta lortutako dirulaguntzei buruz ere. Azkenik, bazterkeria handiko taldeetako esku-hartze sozialak ia inoiz ez dira izaten oinarrizko gizarte-zerbitzuen erantzukizuna, kalean bizi direnentzako udal-programa berezien edo foru aldundietako programa espezializatuen bidez gauzatzen baitira.

## 1.2. GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESERAKO POLITIKEN DIAGNOSTIKOA ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA BATERATZEA ETA OROKORREAN HEDATZEA

### 1.2.1. Beharrezko erreminta tekniko eta informatikoak garatzea eta hedatzea gizartegintza indibidualaren diagnostikoa eta plangintza azkarrago burutzeko, eta informazioa hedatzeko eta eragileak koordinatzeko, bai plangintza orokorrari bai esku-hartze pertsonalari dagokionez.

| | |
|---|---|
| 5. jarduera | *"Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoko diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako" erremintaren erabilera orokorrean hedatzea, gizarteratze-prozesuetan nahitaezko bihurtzea eta aipatutako sistemako erremintak estandarizatzeko prozesuan txertatzea. "Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoko diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako" erreminta erabiltzen laguntzeko eta irakasteko taldeak sortzea..* |

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ○

Eztabaida sortu da Diagnostikoaren aplikatiboaren erabilera erabat hedatzeko asmoaren inguruan. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eginahalak egin dituen arren, Diagnostikoaren aplikatiboa ez da orokortu, inondik inora, eta, gainera, oztopo gaindiezinak daudela dirudi.

Arazoaz jabetu ondoren, ezartzeko arazo nagusiak zehatz-mehatz zein diren ezagutzen saiatu gara gure ebaluazioan zehar, kontuan hartu behar baita gizarte-zerbitzuek balorazio positiboa egin zutela aplikatibo komuna ezartzeko premiaz (GEParen 2004-2006 ebaluazioa).

EAEko gizarte-zerbitzu guztiei (172) galdeketa bidali genien, eta 59k epearen barruan erantzun ziguten. Horietako askoren erantzunak bat datoz: 29, alegia. Erantzun horiek 1.286.132 biztanle ordezkatzen dituzte, hau da, EAEko biztanleen % 60 inguru.

Erantzunetako datuen arabera, ebaluazioan parte hartu duten gizarte-zerbitzuei dagokienez, % 40k baino gehiagok erreminta gutxi ezagutzen du, edo ezer ere ez, % 37,9k neurri batean ezagutzen du, eta % 27,6k ezin hobeto.

T 6. **Eusko Jaurlaritzak sortutako diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbateraino ezagutzen den**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Oso ongi** | 8 | 27,6 |
| **Neurri batean** | 11 | 37,9 |
| **Gutxi** | 8 | 27,6 |
| **Ezer ere ez** | 4 | 13,8 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileek erremintaren erabileraz duten ezagutzari dagokionez, zerbitzu horien % 44,8ko langile batek ere ez daki erabiltzen.

T 7. **OGZetako langileek ba al dakite aplikatiboa erabiltzen?**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Denek edo ia denek** | 12 | 41,4 |
| **Batzuek** | 2 | 6,9 |
| **Inork ere ez** | 13 | 44,8 |
| **ED/EDE** | 2 | 6,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Aurreko datuarekin lotura zuzena duen xehetasun bat aipatuko dugu: oinarrizko gizarte-zerbitzuen % 44,8ko gizarte-langileei ez diete aplikatiboa erabiltzen ikasteko prestakuntzarik eman. Prestakuntza egokia eman zaiela uste dutenen portzentajea txikia da: % 24,1, hain zuzen.

T 8. **Aplikatiboa erabiltzen ikasteko prestakuntza**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Behar bestekoa** | 7 | 24,1 |
| **Nahiko urria** | 6 | 20,7 |
| **Urria** | 2 | 6,9 |
| **Ezer ere ez** | 13 | 44,8 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Gizarte-zerbitzuen erdiak baino gehiagok ez du inoiz ere erabiltzen, eta % 20k baino gehiagok nahikoa espedientetan edo espediente guztietan erabiltzen du. Erremintaren erabiltzaileen iritziak ez datoz bat, ordea. Batzuen ustez, erreminta ona da gizarte-larrialdietarako laguntzak eta Oinarrizko Errenta kudeatzeko, eta, era berean, gizarteratze-hitzarmenak eta horiei buruzko diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko. Beste batzuen ustez, aldiz, erreminta ez da egokia oinarrizko gizarte-zerbitzuetako benetako lanetarako, sail horietako zeregin nagusiak –prestazioak eta baldintzak kudeatzea eta izapidetzea, alegia- ezin baitira egin programaren bidez. Gainera, informazioaren estatistika-tratamendua oso mugatua dela eta administrazio-lanak ez dituela errazten uste dute.

**T 9. Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbateraino erabiltzen den**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Ez dute ezertarako ere erabiltzen** | 4 | 13,8 |
| **Espediente batzuetan** | 2 | 6,9 |
| **Nahikoa espedientetan** | 7 | 24,1 |
| **Espediente guztietan edo ia guztietan** | 15 | 51,7 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Erreminta erabiltzen ez duten gizarte-zerbitzuak, beraz, erdia baino gehiago dira, baina ordezkatzen duten biztanle kopurua askoz ere handiagoa da: % 80tik gorakoa. Hau da, Diagnostikoa egiteko erreminta udal txikietan besterik ez da ezarri.

**T 10. Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboa zenbat biztanle potentzialekin erabiltzen den**

| | Zenbat biztanlerekin | Laginaren portzentajea |
|---|---|---|
| **Ez dute ezertarako ere erabiltzen** | 1.063.492 | 82,7 |
| **Espediente batzuetan** | 134.862 | 10,5 |
| **Nahikoa espedientetan** | 45.697 | 3,6 |
| **Espediente guztietan edo ia guztietan** | 40.377 | 3,1 |
| **ED/EDE** | 1.704 | 0,1 |
| **Guztira** | 1.286.132 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Azken datua beheko taulan argi islatzen da, 45.000 biztanletik gorako eta beherako udal edo mankomunitateetako gizarte-zerbitzuen arteko alderik adierazgarrienak azaltzen baitira. Ikusten denez, 45.000 biztanletik gorako udal edo mankomunitateetako gizarte-zerbitzuen % 85ek baino gehiagok ez du aplikatiboa erabiltzen. Gainera, langile guztiek edo gehienek ez dute kasu bakar batean ere erabiltzen, eta % 90i ez diote eman ia inolako edo inolako prestakuntzarik erabiltzen ikasteko.

T 11. **Diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako aplikatiboaren erabileran nolako aldeak dauden, tamainaren arabera**

| | 45.000 biztanle baino gutxiago | | 45.000 biztanle baino gehiago | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Oso ongi ezagutzen dute** | 7 | 33,3 | 1 | 14,3 |
| **Langile guztiek edo gehienek erabiltzen dute** | 11 | 52,4 | 0 | 0,0 |
| **Erabiltzen ikasteko prestakuntzarik ez edo oso urria** | 12 | 57,1 | 7 | 90,0 |
| **Ez dute aplikatiboa erabiltzen** | 9 | 42,9 | 6 | 85,7 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Ez dirudi aplikatiboa hain gutxi erabiltzearen arrazoia funtzionamendua denik: zerbitzuen % 20,7ko kideek funtzionamenduan akats handiak daudela adierazi duten arren, % 41,4ko kideek ez dute arazo handirik nabaritu, eta gainerakoek ez dute erantzun.

Hainbat arrazoi aipatu dira Diagnostikoaren aplikatiboa zergatik ez den orokortu azaltzeko: adostasunik eza, diseinu txarra, orain arte erabili diren beste erreminta batzuekin lortutako emaitza onak...

Gizarte-zerbitzuetako kideen ustez, aplikatiboa erabiltzeko oztopo nagusia hauxe da: ez datorrela bat oinarrizko gizarte-zerbitzuetako benetako lanarekin. Izan ere, beren zeregin nagusietarako, baliabideak eta prestazioak kudeatzeko eta izapidetzeko, ezin dira aplikatiboaz baliatu. Estatistika mailan, bestalde, oinarrizko errentei eta gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko datuak bakarrik lor daitezke, eta ez gainerako prestazioei buruzkoak. Gainera, gizarteratze-baliabideak soilik kudea daitezke, eta kontuan hartu behar da gizarte-zerbitzuetako arretak beste hainbat alor hartzen dituela barne: familiak, zaharrak, haurrak, nerabeak, emakumeak... Ondorioz, eskari horiek kudeatzeko, beste programa batzuk erabili behar dira, eta espediente berarentzat aplikatibo bat baino gehiago bateratzea korapilatsua da. Horrez gain, erremintak ez du loturarik beste udal-fitxategi batzuekin, adibidez erroldarekin, eta datuak batetik bestera automatikoki pasatzea ezinezkoa da.

Lana oztopatzen duten arazo teknikoak ere atzeman dituzte, hala nola, ez dagoela atzera egiterik, erraz blokeatzen dela, eskariak bikoiztu egiten direla, ordainketak kudeatzen denbora asko ematen dela, eskari berriak egiteko bidea oso luzea dela... Galdetegiari erantzun dion udal batek beste iruzkin bat gaineratu du: ordainketa-baimenak sartu behar direla, eta agiri horiek ez dituela gizarte-sailak kudeatzen, ekonomia-sailak baizik. Azkenik, hona hemen beste oztopo bat: espedienteetako erreferentziazko pertsona hiltzen denean, zaila dela zenbakia mantentzea estatistika-datuak lortzeko.

Hizpide dugun erreminta erabiltzen ez duten udalen artean, beren programak erabiltzeko ohiturak oso eragin handia du. Zenbait udaletan, gainera, lanez gainezka daudenez, ez dute programa berri bat ezartzen hasteko astirik. Getxon, adibidez, ez dute erabiltzeko asmorik. Laguntzeko eta informazioa bidaltzeko prest dauden arren, udaleko gizarte-zerbitzuen behar guztiei erantzun egokia emateko gai izango den aplikatibo bakar integrala sortu eta ongi finkatu arte, aplikatibo berririk ez dutela ezarriko jakinarazi dute.

Ildo berean, Bilboko udalekoek aplikatiboa beren jarduera, zerbitzu eta programekin bateratzeko zailtasunak azpimarratu dituzte, horien guztien abiapuntua Gizarte Zerbitzuen Lege berria baita. Administrazioetako (Eusko Jaurlaritzako Sail, Foru Aldundi eta Udaletako) informatika-tresnak bat ez datozenez, “lana bikoiztu/hirukoiztu egiten da, eta eraginkortasuna murriztu”. Laburbilduz, informatika-tresnak eta -euskarriak bateratzeko eskatzen dute. Vitoria-Gasteizen, beren informatika-erreminta dute duela hainbat urte, eta udal-administrazioak kudeatzen dituen esku-hartze sozialen urrats guztiak hartzen ditu barne. Gainera, udaleko beste informatika-programa batzuei loturik dago. Hala ere, aplikatiboa oso aurrerapauso garrantzitsua iruditzen zaie, gizarte-politiken kudeaketa, kontrola, ebaluazioa eta plangintza hobetzeko, baina gabezia handi bat dutela uste dute: gizarte-bazterkeriaren kontrako baliabidek kudeatzeko besterik ez du balio, eta udal-gizartegintzan askoz ere alor eta baliabide gehiago lantzen dira.

Udaletako gizarte-zerbitzuetako kideen balorazioez gain, aztergai dugun erremintarekin zerikusia duten beste administrazio batzuetara ere jo genuen, informazio eske. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren iritziz, erreminta udalen % 70ek erabiltzen duen arren, biztanleriaren % 30 bakarrik ordezkatzen du. Ezarpenari buruzko hasierako helburuak ez direla bete uste dute, ez omen delako adostasunik lortu. Zuzendaritzaren aurreikuspenen arabera, Gizarte Zerbitzuen Lege berriak Prestazioen Katalogoa eta Kartera finkatuko du, baina ez da izango kudeaketa-tresna, aginte- eta plangintza-antolamendua baizik. Katalogoak beste kudeaketa-tresna batzuk hartuko lituzke barne, hala nola, Diagnostikoa egiteko erreminta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bertako administrazioan Giza Eskubideen Sarea eta estraneta dituztela adierazi digu, eta, horiekin Diagnostikoa egiteko erremintaren funtzioak betetzen direla funtsean. Hamabost urte daramatzate beren erremintak erabiltzen, eta Diagnostikoa egiteko erreminta baino eraginkorragoak iruditzen zaizkie.

Bizkaiko Foru Aldundiak egoitza-zerbitzu espezializatuen eskaeren inguruko 550 balorazio edo diagnostiko egin zituen 2007an. Hainbat arazoren ondorioz, espedienteak ezin izan zituzten sortu Diagnostikoa egiteko erremintaren informatika-aplikatiboan, eta paperezko euskarriaz baliatu ziren. Erreminta zehatza iruditzen zaie, informazio asko eskaintzen duelako eta GLPak gauzatzeko urratsak erraztu egiten dituelako, baina akats bat azpimarratu dute: denbora luzea ematen dela erabiltzen.

Diagnostikoa egiteko erremintari dagokionez, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institutuak tresnaren xehetasunak azaltzeko bileretan parte hartu izan du, eta, ondorioz, ongi ezagutzen eta baloratzen dute. Hala ere, Arabako GOFIak egun erabiltzen duen tresna baino zabalagoa eta konplexuagoa denez, erreminta berriarekin beharren diagnostikoa egitea lan nekezagoa izan daitekeela uste dute.

T 12. **Aplikatiboaren funtzionamenduan akats larririk atzeman den**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Bai** | 6 | 20,7 |
| **Ez** | 12 | 41,4 |
| **ED/EDE** | 11 | 37,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Diagnostikoaren aplikatiboa ez denez orokorrean hedatu, gizarte-zerbitzu askotan beste informatika-erreminta bat erabiltzen dute.

T 13. **Zuen udalean edo mankomunitatean beste informatika-erremintaren bat erabiltzen al duzue?**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Bai** | 12 | 41,4 |
| **Ez** | 16 | 55,2 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Diagnostikoaren aplikatiboaren nahiz kasuan kasuko erreminta alternatiboaren bidez, espedienteen % 85 inguru informatizatuta dago.

| 6. jarduera | Gizarte.net helbidean eskuragarri dagoen "Diagnostikoa eta esku-hartze soziala" erreminta hedatzea, prestazio-programa eta gizarteratze- eta laneratze-programa guztietan erabil dadin. |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Hainbat programatan, adibidez Auzolanen, aplikatiboa erabiltzea zen jardueraren helburua, baina oraindik ez da halakorik egin. GKEek honako hau jakinarazi dute: edozein aplikatiboren erabilera hedatzeko prest daudela, betiere gizartegintza indibidualizatua sustatzeko eta gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuen eta erakunde laguntzaileen arteko sare-lana indartzeko baliagarria izanez gero.

Diagnostikoaren aplikatiboa erreminta alternatiboa baino gehiago erabiltzen da diagnostiko sozialak burutzeko, laneko plan partekatuak egiteko eta gizarteratze-hitzarmenak gauzatzeko. Erreminta alternatiboa, aldiz, gehiago erabiltzen da gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzeko eta, batik bat, Oinarrizko Errentaren eskariak eta aldaketak izapidetzeko.

T 14. **Zertarako erabiltzen dituzue erremintak?**

| | Diagnostikoaren aplikatiboa | | Erreminta alternatiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Diagnostiko sozialak egiteko** | 9 | 31,0 | 5 | 17,2 |
| **Lan-plan partekatuak egiteko** | 7 | 24,1 | 5 | 17,2 |
| **Gizarteratze-hitzarmenak gauzatzeko** | 11 | 37,9 | 8 | 27,6 |
| **GLLak kudeatzeko** | 13 | 44,8 | 16 | 55,2 |
| **Oinarrizko Errentaren eskariak eta aldaketak izapidetzeko** | 5 | 17,2 | 16 | 55,2 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

| 7. jarduera | *Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Lanbideko Orientazio Zerbitzuen eta EINren arteko lankidetza-protokoloak orokorrean hedatzea.* |
|---|---|

- ✓ Enplegu Zuzendaritza
- ✓ EIN
- ✓ Tokiko enplegu-agentziak
- ✓ Udalak
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ● ○

Finkatutako protokoloak gizarte-zerbitzuen eta enplegu-sailaren lankidetza-asmoekin bat etorri behar du. Helburu hori lortzeko sinatu da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzaren arteko lankidetza-protokoloa, enplegu- eta gizarteratze-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea helburu duena. Interesak uztartuz, aldeetako bakoitzaren baliabideak erabiltzerakoan eta koordinatzerakoan are eraginkortasun handiagoa lortzen saiatuko dira.

Halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuek eta Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren sareko orientazio-zerbitzuek lankidetza-protokoloa sinatu dute, bien arteko koordinazioa hobetzeko. Horren bidez, orain arte noizbehinkako lankidetzak iraunkor bihurtzeaz gain, elkarlanerako baldintzak finkatu dituzte, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen ekintzen eraginkortasuna areagotzeko eta bazterkeria-egoeran daudenei gizarteratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko. Aipatutako protokoloa mamitzeko, Eusko Jaurlaritza Lasarte-Oriako eta Irungo (Gipuzkoa), Amurrioko (Araba) eta Basauriko eta Barakaldo-Inguraldeko (Bizkaia) udalekin aritu da elkarlanean.

EINekiko lankidetzari dagokionez, eskaintza egin ziotela eta ezetz erantzun zutela dio Eusko Jaurlaritzak, baina SPEE-EINeko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzen arabera, “ez dute horrelako ekimenen berri izan, eta inork ez die ezer eskaini, ez Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak, ez oinarrizko gizarte-zerbitzuek… Gizarteratze Planaren helburuak lortzeko lankidetza-hitzarmen formalak egiteari dagokionez”.

Gainera, hainbat onuradun lan-munduan sartzeko programa eta pizgarri jakin batzuez baliatzen egon daitezkeela azaldu du EINek. Gai hori garatzeko, hiru lege dituzte:

- 43/2006 Legeak pizgarriak finkatu zituen: hobariak emango dira Gizarte Segurantzako kuotetan, “bazterkeria-arriskuko” taldean sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak kontratuz gero.
- 44/ 2006 Legeak pizgarriak aldatu eta beste arrisku talde batzuk zehaztu zituen.
- 1/2004 Legea, genero-indarkeriaren kontra babesteko neurri integralei buruzkoa. Langabezian dauden biktimei lan-munduan sartzen laguntzeko neurri bereziak finkatu zituen. Ildo horretan, biktimentzako enplegu-programa onartuko eta arautuko duen Errege Dekretua oraindik ez da

onartu, eta Lan Sailarekiko protokolorik ere ez da egin, baina, hala ere, SPEEko hiru Lurralde Zuzendaritzetan, interesatuek hala eskatuta, EAEko Administrazioaren ekintzetan parte hartzeko eta dirulaguntzak eskuratzeko beharrezkoak diren egiaztagiriak egiten ari dira.

EINek jarraian zehaztuko diren programak aipatu dizkigu. SPEEren aurrekontuen kargura finantzatzen dituzte, horietan bazterkeria-arriskuan daudenak berariaz aipatzen baitira. Programan ezaugarri orokorrak aipatzen dira, xehetasunak ematen hasi gabe. Honako hauek dira:

- Enplegua sustatzeko programak, toki-administrazioetako erakundeekin edo irabazi-asmorik gabeko bestelako elkarte eta erakundeekin elkarlanean. Desabantailak dituzten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak ere onuradun potentzialtzat hartzen dira.
- Lanbide-prestakuntzarako programak, lantegi-eskolak, ofizio-etxeak eta enplegu-tailerrak. Horietako ikasle batzuk proiektuetan parte hartzen ari diren langileak eta gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden langabetuak dira.

Tokiko garapen-agentziek harreman estandarragoak dituzte gizarte-zerbitzuekin, eta, jarrian, harreman horien adibide batzuk aipatuko ditugu.

- DONOSTIAKO SUSTAPENA. Donostiako udaleko gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileak Sustapenera eta hortik Gizarte Ongizate Sailera bideratzeko protokoloak finkatu dira.
  *2008ko urtarriletik urrira arte, 295 erabiltzaile bideratu zituzten Gizarte Ongizatetik Sustapenera.*
- BILBOKO LAN EKINTZA. Lankidetza-hitzarmena sinatu da, udaleko gizarte-zerbitzuen bidez haurrak zaintzeko zerbitzuak eskain daitezen.
  *OGZetako 108 erabiltzaile (2008ko urtarriletik urrira) eta Oinarrizko Errenta jasotzen ari diren 319 lagun (% 12) bideratu zituzten guztira.*
  *Auzolan programa gizarte-zerbitzuekin elkarlanean gauzatzen da, parte hartzeko ezinbestekoa baita OGZen erabiltzailea izatea.*
  *2008an abiarazitako prestakuntza-espezialitateak: azaleren garbiketa, ostalaritza-laguntzailea eta garbiketa-langilea.*
  *Aipatutako espezialitateetako prestakuntza-ekintzak 3 izan dira.*
  *Parte-hartzaileen kopurua: 34.*
  *2008an zehar bukatutako ekintzen ondorioz lan-munduan sartzea lortu dutenen portzentajea % 56koa da.*
  *Programaren zenbatekoa 332.623 eurokoa izan da guztira.*
- VITORIA-GASTEIZKO EKONOMIA SUSTAPENEKO SAILA: Gizartegintza Sailak eta Ekonomia Sustapenerako Sailak lankidetza-protokoloa finkatu dute, laneratze-alorrarekin zerikusia duten hiru alderditan esku-hartzeko bide integratuak jorratzeko asmoz. Aipatutako hiru alderdiak hauek dira: lanerako prestakuntza, enplegu- eta prestakuntza-ekintzak, eta lanerako orientazioari lotutako esku hartzeak. Horietan guztietan, EINen jarraibideak ez ezik, Eusko Jaurlaritzarenak ere betetzen dituzte, Ekonomia Sustapenerako Saila “Lanbideren zentro laguntzaile” homologatua baita.
  *Enplegu- eta prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileen % 90-95 oinarrizko gizarte-zerbitzuek bideratutako erabiltzailea da.*
  *Planteatutako beste bi jardueretan, bideratutako erabiltzaileak banan-banan aukeratu dituzte, bakoitzaren interesak eta beharrak kontuan hartuta.*
- TXORIERRIKO BEHARGINTZA. Inolako protokolo formalik sinatu ez den arren, OGZek erabiltzaileak bideratzen dituzte, batik bat Agentzia hori Lanbideren orientazio-zentro homologatua delako, eta, gainera, Auzolan programak kudeatzen dituelako. Horregatik, OGZek bideratutako erabiltzaile asko hartzen dituzte, aipatutako programak egiteko edo lana bilatzen laguntzeko. EINek ere bideratzen du jendea, nahiz eta, aurreko kasuan bezala, protokolo ofizialik ez egon.

- DEBEGESA. Ez da protokolorik sinatu, baina udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean aritu ohi dira, eta jendea bideratzen digute, orientazio-prozesuetan eta lan-munduan sartzeko prozesuetan parte har dezaten.
*2008an elkarrizketa pertsonalak egin, arreta eskaini, enplegu-eskariak eguneratu eta Auzolan programan parte hartzeko baldintza egokiak betetzen diren egiaztatu zuten: 56 lagun guztira.*
- DURANGALDEKO BEHARGINTZA. Durangaldeko Behargintzak etengabeko harremanak ditu mankomunitateko oinarrizko gizarte-zerbitzuekin. Gainera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin (SPEE-EIN) batera, Lanerako Orientazio (LO) programan parte hartzen du, eskualdeko langabetuei lanerako orientazio-zerbitzua eskainiz, bakarka eta taldean. 2007-2008 urtealdian, 140 lagun hartu zituzten. Azkenik, lanerako-orientazio-zerbitzua dute, eta, bertan, lanerako orientazio-ekintzak egiten dituzte, bakarka eta taldean. 2007an zehar, 278 lagun hartu zituzten, eta hainbat eratako lanerako orientazio-ekintzak landu zituzten, enplegagarritasuna areagotzeko. Dena den, Durangaldeko Behargintza ez denez Lanbideko orientazio-zerbitzu homologatua, Lanbideko prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi duten erabiltzaileak beste zentro homologatu batzuetara bidali behar izaten dituzte. Jende gehiena Durangoko Sartu elkartera bideratzen dute, eta kasuan kasuko "egokitasun-egiaztapenak" bertan egiten dituzte.
- GETXO. Urtean bi koordinazio-bilera egiten dira, eta hainbat bilera berezi, programen arabera. Herri Administrazioen Ministerioarekiko koordinazioari dagokionez, 3. helburuari lotutako programako parte-hartzaileen bazterkeria-adierazleak jorratzen dituzte elkarlanean, helburu hori Getxoko Udalarekin batera finantzatzen baitute. Bestalde, orientazio-zerbitzuek bertako eremuan dihardute, Lanbideren zentro laguntzaileak baitira. Uribe Kostako gizarte-langileekin ere koordinatzen dira.
- INGURALDE. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileak Euskal Orientazio Zerbitzura bideratzeko protokoloa sinatu dute, urtero berritzen dena. Aipatutako zerbitzuak, izan ere, lan espezializatua egiten du gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden taldeekin. Era berean, Barakaldoko udaleko Gizarteratze Saileko koordinatzaileek Inguraldek kudeatzen dituen Auzolaneko programetan esku hartzeko protokoloak ere sinatu dira.
*2007an, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik 234 lagun bideratu zituzten EOZra.*

  2008an, urriaren 31ra arte, 161 lagun bideratu zituzten oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik EOZra.
- Erabiltzaileak bideratzeaz eta horiei guztiei hileko, hiruhileko, seihileko eta urteko jarraipena egiteaz gain (fitxak itzultzeke eta bilera presentzialak egiteke daude), gizarte-zerbitzuetako teknikariek partaidetza aktiboa izan dute Auzolaneko programetan. INGURALDEk Auzolaneko lau programa kudeatzen ditu urtero. Programen diseinua egiterakoan, taldeak aukeratzeko eta jarraipena egiteko urratsetan eta programaren amaieran, gizarte-zerbitzuetako kideak bertan izaten dira.
- IRAURGI LANTZEN. Enplegu-zerbitzua dute Lanbideren baitan, eta, beraz, ez da orientazio-zerbitzurik eskaintzen. Orientazioa hartu nahi duten erabiltzaileak zerbitzu hori eskaintzen duten zentrorik hurbilenetara bideratzen dituzte: Urretxukora (Uggasa), Eibarkora (Debegesa) eta Azpeitikora (Erroak Sartu elkartea). Bestalde, ez dute protokolo jakin bat finkatu edo ezarri oinarrizko gizarte-zerbitzuekin. Dena den, udaleko eta udalaz gaindiko hainbat erakunderen arteko koordinazioaren ondorioz, erabiltzaileak enplegu-zerbitzura, orientazio-zerbitzuetara edo oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bideratzen dituzte.
- OARSOALDEA. Eskualdeko gizarte-zerbitzuekin sarean dihardu, eta lan-protokoloa finkatu dute guztien artean. Aipatutako protokoloaren helburuak honako hauek dira:
1.- Gizarte-zerbitzuek erabiltzaileak Enplegu Zerbitzura bideratu ahal izatea, eta alderantziz.
2.- Banakako enplegagarritasun-diagnostiko sozio-laboralak egitea, laneratze-plan pertsonal integralak, kasuan kasuko helburua eta jardueraren arduraduna zehazteko. Aipatutako diseinuan parte hartzen duten eragileek horren guztiaren berri izaten dute.

  3.- Orokorrean, lankidetza horrek jardueren diseinuari aurrea hartzeko aukera ematen digu, gizarte-zerbitzuetara jotzen dutenen ezaugarrien

arabera.
*2007an, 552 lagun hartu, 262 enplegagarritasun-diagnostiko egin eta 359 gizarteratze-ibilbide pertsonalizatu finkatu dira.*

- UGGASA. Zumarragako udalak (oinarrizko gizarte-zerbitzuak) eta UGGASAk (Lanbideren zentro laguntzaileak) lankidetza-hitzarmena sinatu zuten. Eta 2008ko ekainean, beste horrenbeste egin zuten Urretxuko eta Legazpiko udalekin. Horrela, aipatutako zerbitzuen arteko lankidetzaren baldintzak finkatu ziren, gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko jardunbideen eraginkortasuna areagotzeko.

Ebaluazioan parte hartu duten oinarrizko gizarte-zerbitzuei dagokienez, 2007an 3.803 lagun bideratu dituzte enplegua sustatzeko erakundeetara eta 2008an, urriaren 31ra arte, 3.887 lagun. Ikusten denez, gorako joera da nagusi.

T 15. **Egokia denean, erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzen dituzue?**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Beti edo ia beti** | 15 | 51,7 |
| **Askotan** | 9 | 31,0 |
| **Batzuetan** | 3 | 10,3 |
| **Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez** | 0 | 0,0 |
| **ED/EDE** | 2 | 6,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Oso udal gutxik sinatu dituzte protokoloak oinarrizko gizarte-zerbitzuekin eta Lanbiderekin, eta are gutxiagok EINrekin. Hala ere, argi dago udal gehienetako oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta Lanbidek elkarlanean eta koordinaturik dihardutela. Ebaluazioan parte hartu duten udalen artean, Arrigorriaga eta Elgoibar dira jendea EINera bideratzen duten bakarrak. Zenbait udalek Sartu, Behargintza eta Lantegi Batuak elkarteekin sinatu dituzte protokoloak, lan-munduan sartzeko aukerak sustatzeko. Vitoria-Gasteizen, udaleko Gizartegintza Sailak eta Ekonomia Sustapenerako Sailak koordinazio- eta lankidetza-protokoloa ezarri dute, bakoitzaren eskumenak errespetatuz, baterako jardunbideak finkatzeko. Vitoria-Gasteizko udalak adierazi digunez, protokolo horretatik abiatuz, ekarpenak egin ziren Eusko Jaurlaritzak egindakoarentzat. Azkenik, Lanbideren orientazio-zerbitzuekin lankidetza-hitzarmenik ez dutela sinatu adierazi digu Bilboko udalak. Horren arrazoia, neurri batean, enplegu-sare publikoaren eta erakunde laguntzaileen artean dagoen nahasketa omen da.

**T 16. Egokia denean, erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzeko protokoloaz baliatzen zarete?**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Beti edo ia beti** | 7 | 24,1 |
| **Askotan** | 4 | 13,8 |
| **Batzuetan** | 7 | 24,1 |
| **Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez** | 10 | 34,5 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Ia udal guztietan, protokoloaz bestelako prozedurak erabiltzen dituzte jendea enplegu-zerbitzuetara bideratzeko.

**T 17. Protokoloaz bestelako prozeduraren bat erabiltzen al duzue erabiltzaileak enplegu-zerbitzuetara bideratzeko?**

| | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| **Bai** | 14 | 48,3 |
| **Ez** | 12 | 41,4 |
| **ED/EDE** | 3 | 10,3 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Datuak agerian uzten dutenez, udal edo mankomunitaterik txikienak dira jendea enplegu-zerbitzuetara bideratzeko joerarik handiena dutenak eta protokoloa gehien erabiltzen dutenak.

**T 18. Enplegu-zerbitzuetara bideratzeko joera, tamainaren arabera.**

| | 45.000 biztanle baino gutxiago | | 45.000 biztanle baino gehiago | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Beti edo ia beti bideratzen dute jendea enplegu-zerbitzuetara** | 12 | 57,1 | 3 | 42,9 |
| **Enplegu-zerbitzuetara bideratzeko protokoloa ez dute inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez erabiltzen** | 6 | 28,6 | 3 | 42,9 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

| 8. jarduera | *Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema garatzea eta, horren baitan, dirulaguntzen modulua berariaz finkatzea.* |
| --- | --- |

- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ● ○

Gure ebaluazioan zehar, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, onartu dute. Aurreikuspenen arabera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema garatuko da, aipatutako legearen babespean.

12/2008 Legearen bigarren kapituluan zehazten denez, “Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema diseinatu, abiarazi eta mantenduko da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen alderdi nagusiei lotutako ezagutza eguneratuak, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio mailen jarraipena errazteko, Prestazio eta Zerbitzuen Karteran aurreikusitakoekin bat. Aurreikuspen horiek, halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu orokorrean finkatutako baldintzetara egokituko dira, gizarte-zerbitzuen plangintzari eta antolaketari dagokienez”.

Aipatutako informazio-sistema abian jarri zen Gizarte Zerbitzuen Legearen bidez, baina mendekotasun-laguntzak bakarrik hartzen ditu kontuan, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko laguntzak baztertuz.

Foru Aldundiei dagokienez, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institutuak bilera egin zuen Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin. Bertan, eskatzen dioten informazioa guztia nahi den formatuan emateko prest daudela baina, oraingoz, informatika-sistema aldatzeko asmorik ez dutela jakinarazi zuten Gizarte Ongizateko Foru Institutuko kideek. Bestalde, Euskal Informazio Sistema bakarra finkatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Lege berriak aldarrikatzen den bezala, egokitzat jotzen dute, Euskal Autonomia Erkidego osoan alderdi guztien artean adostutako informatika-tresna bakarra erabiltzea onuragarria izango litzatekeelako.

Udal guztiek ez dute Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren berri, baina ezagutzen dutenek oso balorazio positiboa egiten dute, EAEko gizarte-egoeraren ikuspegi orokorra izaten eta udalen eta lurralde historikoen arteko konparazioak egiten lagunduko lukeelako. Baina horretarako, ezinbestekoa da udal guztiek eskuragarri izatea.

| 9. jarduera | *Informatika-aplikazio egokia egitea, xehetasun hauek guztiak ezagutzeko: EAEko gizarteratze-baliabideen mapa, unean uneko eta lurralde bakoitzeko baliabide eskuragarriak, eta horiek eskuratzeko baldintzak eta okupazio maila. Sisteman jasotako informazioa eta “Diagnostiko eta Esku-hartze Sozialetarako” aplikatiboarekin jasotakoa elkarri lotuta egongo lirateke.* |
|---|---|

- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ○ ○

GEParen arabera, Gizarte Gaietako Sailburuordetza izango litzateke gai horretako erakunde arduraduna, baina jarduerak “gizarteratze-baliabideekin” duenez zerikusia, badirudi Gizarteratze Zuzendaritzari dagokiola erantzukizuna.

Ildo horretan, informatika-erreminta adostuta dagoela eta orokorrean ezartzeko lehen probak egiten ari direla adierazi digu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak. Behin ongi finkatutakoan, gizarte-baliabideei buruzko informazio eguneratua ez ezik, EAEko gizarte-zerbitzuen alorreko baliabide, zerbitzu eta prestazio guztiei buruzko informazio eguneratua ere emango du.

Bizkaiko Foru Aldundiari, ordea, gizarteratze-zerbitzuetako baliabide eskuragarriei buruzko informazioa eguneratuta edukitzea ia ezinezkoa iruditzen zaio, eta desegokia ere bai, baliabide eta onuradun talde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Udal gehienetan ez dute aplikazioaren berri, baina balorazio positiboa egin dute. Getxoko eta Vitoria-Gasteizko udalak dira ezagutzen duten bakarrak. Lehenengoak jadanik sartu du informazio bertan; bigarrenak, aldiz, bazekien Gizarte Sailak aplikazioa ezartzeko asmoa zuela, baina ez zekien bukatuta zegoenik eta probak egiten hasita zeudenik.

### 1.2.2. Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea, ebaluazioen, jardueren jarraipen sistematikoen eta kalitate-planen ezarpenaren bidez

| 10. jarduera | *Gizarteratzearen alorrean lan egiten duten zentro eta zerbitzuetan kalitatezko erremintak sustatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto aprobetxatzeko, eta emandako zerbitzuen eta gauzatutako programen eraginkortasuna balioestea, ebaluazio-tekniken bidez eta sistema etengabe hobetuz.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ○

Jarduerarekin zerikusia duten parte-hartzaileen aniztasuna dela eta, erakundeek zer egin duten labur-labur aipatzea erabaki dugu.

Kalitatezko erremintak sustatzeko ekimenik gauzatu ez den arren, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak kalitateari, ebaluazioari eta etengabeko hobekuntzari lotutako hainbat ekimen egin ditu:

- Gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistika (2006).
- Gizarteratze-enpresen ebaluazioa (2006).
- AUZOLAN programaren ebaluazioa (2002-2005).
- Gizarteratzeko Euskal Planaren ebaluazioa (2003-2005).
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Plana.

Arabako Foru Aldundiak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko dirulaguntza-programak ebaluatu ohi ditu. Onuradunen azterketak egiten dituzte, gizarteratze- eta lan-ibilbideak, Arabako landa-guneetako enplegagarritasun-indizea eta hirugarren sektorearekiko lankidetza-hitzarmenak oinarri hartuta.

2007an, Bizkaiko Foru Aldundiak, gizarteratze-zerbitzuak eta -baliabideak sortzeko eta hobetzeko programaren bidez, 23 azterketa- eta jarraipen-bisita, itunpeko zentroen baldintzen azterketari eta egiaztapenari buruzko 80 txosten eta diruz lagundutako 56 proiekturen jarraipen- eta kontrol-lanak egin ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi alderdi hartzen ditu kontuan, bere dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeei dagokienez: batetik, kalitate-ziurtagiriak izatea; bestetik, Euskalitekin batera gizarteratze-erakundeak hobetzeko programak sustatzea.

Udal eta mankomunitateek emandako erantzunen arabera, Bilbon, Uribe Kostan eta Vitoria-Gasteizko udalean kalitate-planak ari dira egiten.

Horrela, Bilboko udala kalitate-prozesuak ari da garatzen, besteak beste, gizarte-ekintzaren alorrean. Bilboko udal-zerbitzuen katalogoa egiten hasi dira, baita zerbitzu-aukerenak ere... eta adierazle-eredu bat ezartzeko azterlana ari dira egiten, EAEko sei udalik handienekin eta EHUrekin elkarlanean. Eredu hori EAEko gizarte-zerbitzuen kudeaketak alderatzeko erabiliko da. Azkenik, Bilboko Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuari kalitatearen Q bereizgarria eman diotela azpimarratu behar da.

Uribe Kostan oinarrizko gizarte-zerbitzuek emandako arreta ari dira ebaluatzen, eta Vitoria-Gasteizen sailak berrantolatzeko plana egiteari eta abiarazteari ekin diote, gizarte-zerbitzu guztietako irizpideak berrikusteko, arrazionalizatzeko eta bateratzeko. Gainera, besteak beste, gizarte-zerbitzuen lan-zama eta kopurua neurtzen ari dira, baliabideak berrantolatzeko eta esku-hartze sozialak hobeto antolatzeko. Ildo horretan, beren informatika-aplikazioaz (GESIS) baliatzen dira datuak ustiatzeko.

Bestalde, ebaluazioan parte hartu duten GKE guztiek kalitatearen aldeko apustua egin dutela nabarmendu dute. Izan ere, alor horretan oso ugariak dira kalitate-ziurtagiriak, auto-ebaluazioko prozesuak... Beraz, gizarteratze-alorrean lan egiten duten zentro eta zerbitzuek kalitatezko erremintak sustatzeko asmoa ontzat jo dute, baina, hala ere, erakunde bakoitzak informazioa biltzeko erabiltzen dituen jardunbideen berezitasunak errespetatu egin behar direla uste dute.

| | |
|---|---|
| *11. jarduera* | *Oinarrizko Errenta ebaluatzeko eredua diseinatzea eta ebaluazio-adierazleak zehaztea, erabilera hobetzeko erabakiak neurtzeko, kontrolatzeko eta bideratzeko. Era berean, hartzaileen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko aldizkako informazio-sistema sortzea, eta alderdi horiek ebaluatzerakoan foru-aldundietako eta udaletako gizarteratze-sailetako arduradunen irizpideak hartzea kontuan, batik bat.* |

- ✓ Zerbitzu eta Programen Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ○

2008an, Oinarrizko Errentaren onuradunei buruzko azterketa egin zuten, eta balio erantsi nagusietako bat hauxe izan zen: hartzaileen oinarrizko profilak finkatu ziren, lana aurkitzeko ahalmenaren arabera. Proposatutako ikuspegiari jarraiki, beharrak hartu zituzten kontuan, taldeak baino gehiago, eta oinarrizko bi aldagai aztertu ziren: “lan-egoera” eta “mugak”.

Lan-egoera:

- Lanean ari diren 60 urtetik beherakoak: norbere kontura edo soldatapean merkatu normalizatuan, babestuan zein ezkutukoan. Langabezian urtebete baino gutxiago daramatenak.
- Urtebete baino gehiago daramatenak langabezian.
- Etxeko lanak egiten dituzten 60 urtetik beherakoak.
- 60 urte edo gehiago dituztenak, jubilatuak, pentsiodunak eta ikasleak.

Mugak:

- Mugarik gabe.
- A muga: adina.
- B muga: arazo fisikoak edo psikologikoak.
- C muga: norbait zaindu behar izatea.
- D muga: merkatura egokitzeko arazoak eta prestakuntza- edo erregulartasun-gabeziak.

Bi aldagaiak uztartuz hartzaileen oinarrizko profilak finkatu zituzten, lana lortzeko ahalmenaren arabera. Horietatik abiatuta, Administrazioak esku-hartzeetarako ildoak diseinatu ahal izango ditu, profil bakoitzekoen enplegagarritasuna areagotzeko, eta Oinarrizko Errentaren programa hobetzeko erabakiak hartzeko prozesuak kontrolatu, diseinatu eta bideratzeko.

Arabako Foru Aldundiak, lurralde historiko osoan, Vitoria-Gasteizen izan ezik, Oinarrizko Errenta jasotzen dutenei buruzko azterketa egin du urtero, 2003tik hona. 2008an, gainera, 2004an, 2005ean, 2006an eta 2007an Oinarrizko Errenta kobratu zuten pertsonei eta bizikidetza unitateei buruzko azterketen datuak alderatu zituzten, txosten batean.

2007an, Arabako lurralde historikoan Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonei buruzko azterlana egin zuen GOFIk, eta, gainera, bere datu-basean oinarrituz,

hasieratik, 1989tik, gaur egunera arte Oinarrizko Errenta kobratu dutenen inguruko estatistika-azterketa burutu zuen. Etxe onuradunen ezaugarriak egiaztatzea zuten helburu, Oinarrizko Errentari buruzko azterketa dinamikoa oinarri hartuta. GOFIren datu-basea aztertzeko eta elkarrizketetarako titularren laginak mugatzeko, hiru multzo bereizi zituzten onuradunen artean: hartzaile kronifikatuak, ziklikoak eta aldi baterakoak.

- Kronifikatuak: Oinarrizko Errenta azken hiru urteetan jarraian kobratu dutenak.
- Ziklikoak: azken bost urteetan programan aldizka sartu eta irten direnak.
- Aldi baterakoan: azken bost urteetan behin edo behin kobratu arren, programatik irten ondoren berriz itzuli ez direnak.

GOFI, bestalde, Arabako Gizarte Behatokia ari da garatzen, lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen jarduerei buruzko informazio osagarria emateko. Behatokiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak estatistika-datu jakin batzuk eskaintzen dizkie gizarte-ongizatearen alorreko teknikariei eta hiritarrei oro har. Aipatutako datuak hainbat helburutarako erabil daitezke:

- Arabako gizarte-zerbitzuen sarearen alderdi nagusiak ezagutzeko.
- Kuadrillen edota udalen arteko konparazioak egiteko.
- Lurralde historikoko baliabide eskuragarriak eta beharrak bat datozen ikusteko.
- Erreferentziazko zerbitzuak eta jardunbide egokiei lotutako estandarrak bat datozen ikusteko.
- Gizarte-zerbitzuek lurralde historikoan izandako bilakaeraren jarraipena egiteko.

Arabako Gizarte Behatokiak honako adierazle hauek ditu Oinarrizko Errentaren inguruan:

- Oinarrizko Errentaren titularrak, 2007ko abenduaren 31n (10.000 biztanleko tasa).
- Oinarrizko Errenta kobratzen duten 30 urtetik beherako titularren proportzioa (%).
- Oinarrizko Errenta kobratzen duten 50 urteko edo gehiagoko titularren proportzioa, 2007an (%).
- Pertsona bakarreko guneetan bizi diren Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Guraso bakarreko familietan bizi diren Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Seme-alabak dituzten familia-guneetan bizi diren Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Seme-alabarik gabeko familia-guneetan bizi diren Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Familia zabaletan bizi diren Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Oinarrizko Errenta orain dela 3 urte edo lehenagotik kobratzen duten titularren portzentajea, 2007an (%).
- Urtean zehar GLL ere jaso duten Oinarrizko Errentaren titularren portzentajea, 2007an (%).
- Urtean zehar prestazioa jasotzeari utzi dioten Oinarrizko Errentaren titularren proportzioa, 2007an (%).
- Oinarrizko Errenta kobratzen duten familia unitateen batez besteko tamaina, 2007an.
- Oinarrizko Erretan kobratzen duten onuradunen kopurua, 2007ko abenduaren 31n (10.000 biztanleko tasa).
- Oinarrizko Errentaren titular berriak, 2007an (10.000 biztanleko tasa).
- Oinarrizko Errentari lotutako biztanleko ohiko gastu publikoa, 2006an.

- Gizartean baztertuta daudenentzako gastu publikoari dagokionez, Oinarrizko Errentaren portzentajea 2006an (%).

Udal gutxitan erabiltzen dute adierazle-taula propioa, pertsona bakoitzak lan-munduan sartzeko duen ahalmena neurtzeko eta lantzeko. Baina denak bat datoz honetan: Udal guztietan erabiltzeko moduko bilakaera-eredu homogeneoa ezartzeko beharra dagoela, eta eredu horretan aurkibidean argi zehaztutako adierazle-taula ulergarriak erabiltzea komeniko litzatekeela.

Bilboko Gizarte Ekintza Sailak Kontrol eta Ikuskaritza Negoziatua sortu zuen 2007an, dirulaguntzak edo gutxieneko sarrerak jasotzen dituztenen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko jarraipena egiteko. Ildo berean, teknikari bat hartzeko asmoa dute, kalitate- eta komunikazio-arduraduna izan dadin.

Portugaleteko udalaren iritziz, ebaluazioa egiteko ezinbestekoa da Oinarrizko Errentaren helburuak ezagutzea, eta xede bakarra, ustez, gutxieneko sarrera maila jakin bat bermatzea dela kontuan hartuta, ez dakite beste zer alderdi ebaluatu nahi diren. Bermeoko udalak Ogasuneko datuak alderatzeko proposamena egin du. Eta Erandiokoak honako iruzkin hau helarazi digu: ebaluazio-eredu sistematiko operatiboa sortzeko, Gizartenet sistema osoa erabili eta adierazleei erantzuteko behar den informazioa eskuratu behar dela.

Andoainen, adierazle propioak dituzte pertsona bakoitzak lan-munduan sartzeko duen ahalmena neurtzeko eta lantzeko. Vitoria-Gasteizen, berriz, urtero txostenak egiten dituzte gizarte-larrialdietarako laguntzen eta Oinarrizko Errenten unean uneko urtealdiko aurrekontuaren bilakaeraz, onuradunen gizarte- eta demografia-profilaz, “kronifikazio” mailaz eta atzemandako iruzurrez. Txosten koiunturalak ere egiten dituzte, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eskari zehatzei erantzuteko.

Laburbilduz, lurralde-eremuetan hainbat adierazle finkatu dituzte Oinarrizko Errentaren ebaluazio sistematikoa gauzatzeko. Dena den, adierazle horiek guztiak eredu bakar batean uztartu eta antolatu beharko lirateke, EAE osoan erabil dadin.

### 1.2.3. Koherentzia eta sinergiak bultzatzea Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen artean

| 12. jarduera | *Gizarteratzeko Erakunde arteko Plana Immigraziorako Euskal Planarekin, Erakunde arteko Enplegu Planarekin, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planarekin, Gizarte Politikak Ebaluatzeko Planarekin eta Drogomendekotasunaren Euskal Planarekin etengabe koordinatzeko baliabideak jartzea.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietarako Sailburuordetza
- ✓ Enplegu Zuzendaritza
- ✓ Ebaluazio Zuzendaritza
- ✓ Familia Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Gizarteratze Zuzendaritzak baditu koordinazio-harremanak Familia edo Lan Zuzendaritzarekin, Sail berean baitaude. Planaren garapenean dihardute beste Zuzendaritza edo Sail batzuekin, berriz (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila, adibidez), ez dago koordinazio iraunkorreko eremurik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko Immigrazio Zuzendaritzarekin elkarlanean jardun badugu ere lanen batean.

Elkarlanerako sinergiak inorekin egitekotan, Enplegu Planarekin egin behar izan ditu EGPak. Koadro honetan ikusten da nola egiten duten bat planteamenduek eta helburuek.

**2007-2010 ENPLEGU PLANA (LABURPENA)**

2007-2010 Enplegu planaren xedea da jendea lanbideratzea, enplegagarritasun mailak areagotzea eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea hobetzea. Erabateko enplegua, egonkorra eta kalitatezkoa lortzea eta gizarte- eta lurralde-kohesioari laguntzen dion lan-merkatua sustatzea du helburu orokor. Horretarako erabili behar den estrategietako bat da berariazko neurriak bultzatzea ezaugarri eta premia bereziko kolektiboentzat.

Eskumenak banatzeko proposamen bat finkatzen du plan honek, eta Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua) eta foru-aldundien eta enplegu-politika aktiboak bultzatzen dituzten tokiko erakundeen arteko koordinazio-, lankidetza- eta elkarlan-eredua argitzen laguntzen du.

Zenbait lege-berrikuntza eta -ekimen hartu ditu aintzat Plan honek; besteak beste, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Legea, Gizon eta Emakumeen arteko IV. Berdintasun Plana, II. Euskal Immigrazio Plana, Lan Merkatu Arruntera Minusbaliotasunen bat duten Gizon-emakumeak Biltzeko Plana (2004-2006)…

Minusbaliotasunen bat duten gizon-emakumeen enplegagarritasuna eta benetako enplegu-tasa hobetzeko estrategiei lehentasuna ematen die Planak, bai eremu arruntean bai babestuan.

Ardatz estrategiko hauek ditu 2007-2010 Enplegu Planak:

1) Lan-merkatuan emakume gehiagok jardutea, egokitzen lagunduz eta oztopoak gaindituz, emakumezkoen kalitatezko enplegua lortzeko. Familia eta lana uztartzea, Lanbidek proposatutako langabetuentzako lanbideratze-aukerak lehendik dauden familia eta etxeetako beharrizanak arintzeko laguntzekin uztartzea, profesionalizazioaren bidez pertsonaren aldeko

zerbitzuen sektorean kalitatezko enplegua sustatzea (gizarte-ekonomiaren alorrean, batik bat), gizonen eta emakumezkoen enplegu-tasak parekatzea, lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten emakume taldeen langabezia-tasa murriztuz, eta abar.

2) Gazteen enplegagarritasuna hobetzea, haien prestakuntza sustatuz eta etorkizun profesionalik oneneko lanbideetara erakarriz. Bultzatu beharreko neurrietako batzuk hauek dira: gazteen enplegu-tasa areagotzea, batez ere lan-merkatura biltzeko zailtasun bereziak dituztenena, eta behar hainbateko prestakuntzarik ez duten eta kalitate eskaseko lanetan diharduten gazteen etorkizuneko enplegu-igurikimenak hobetzea.

3) Herritar adinduenen enplegu-aukerak areagotzea eta haien enplegagarritasuna sustatzea. Horretarako, langabe adinduenak artatzeko berariazko tresnak erabili beharko dira.

4) Adineko jendea kudeatzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko politikak bultzatzea. Adinagatiko diskriminazioak sorrarazten eta adineko jendea enplegutik bazterrera uzten duten balio sozial eta kulturalen aldaketa sustatzea, edo adineko jendea artatzeko jardunbide egokiak ezartzea eta giza baliabideetako politika integralak abiaraztea adineko jendearen kudeaketa aktiboa egiteko.

5) Immigranteen lanbideratzea sustatzea. Immigrazio-politika aktiboa sustatu behar da, sektore estrategikoetara jende trebatua erakartzeko; halaber, immigranteen berariazko premiak asetzeko neurriak hartu behar dira enplegu-politika aktiboetan.

6) Enplegu-kalitatea sustatzea eta ezkutuko ekonomia murriztea. Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna bultzatu behar dira, batez ere emakume, gazte eta immigranteei dagokienez, eta ezkutuko enplegua murrizteko sentsibilizazio eta informazio ekintzak sustatu.

7) Euskal herritarren jarduera ekintzailea sustatzea. Herritarren sen ekintzailea bultzatu behar da, autoenplegua eta ekonomia sozialeko ekimen berriak batez ere, zenbait kolektibok ordezko lanik aurkitzeko. Halaber, herritarrei laguntzeko berariazko zerbitzu-sektore bat bultzatu behar da, kalitatea eta profesionaltasuna irizpide direla betiere, batik ekonomia sozialaren eremuan.

8) Enplegu-politiken prebentzio-ahalmena areagotzea eta deslokalizazioen zein enpresa-berregituraketen eragin negatiboa murriztea. Eragileen arteko lankidetza eta integrazioa sustatu behar da deslokalizazioei eta/edo enpresa-berregituraketei aurre egiteko, eta berariazko laguntza-tresnak sortu prozesu horiek kaltetutako herritarrak artatzeko.

9) Koordinazio-ekintzak sustatzea politika-enpleguaren helburuak lortzeko funtsezko diren alorretan. Sendotu eta zabaldu egin behar da oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta Lanbideko orientazio-zerbitzuen arteko lankidetza-protokoloa, eta koordinazio-tresna egonkor bihurtu. Bestalde, enpleguarekin estuki lotutako eremuetan diharduten beste eragile batzuekiko koordinazio-formulak ere aztertu behar dira

| *13. jarduera* | *Foru Aldundiek eta, hala badagokie, udalek programa eragileak idatz ditzaten sustatzea, horietan azaltzeko gizarteratze-helburuak eta horien bidez estaldura homogeneoa emateko aipatutako kolektiboei.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Bertako enplegu-agentziak
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ○

Alde izugarria dago, lurralde batetik bestera, gizarteratze-helburuak proposatzen dituzten programa eragileen artean. Ez da aurkitu garatutako gizarteratze-politikak zehazten dituen programarik. Programa-definizioek eta erabiltzaile, itunpeko erakunde, berariazko helburu eta abarren araberako sailkapenek jarduera ugari erakusten dute, baina, aldi berean, helburu eragileak esparru teoriko batean egituratzeko nolabaiteko ezintasuna ere adierazten dute.

Hona hemen programa-zerrenda, hiru foru-aldundiek eta ebaluazioan jardun diren Tokiko Garapen Agentziek emana.

T 19. **Araba: gizarteratze- eta lanbideratze-programak**

| Jarduerak | Programak | Parte-hartzaileak (2007) | Aurrekontua (2008) |
|---|---|---|---|
| Hitzarmena Euskadiko Bergizarteratze Erakundearekin (IRSE), baztertuta dauden gizon-emakumeak lanbideratzeko jarduera-programa garatzeko. Programak: | Oinarrizko trebeziei buruzko tailerrak | 11 lagun | 448.180,00 € |
| | Lorezaintza-, merkataritza- eta abeltzaintza-ikastaroak | 18 lagun | |
| | Lorezaintza- eta ostalaritza-ikastaroak | 23 lagun | |
| Hitzarmena Arabako Gurutze Gorriarekin, zailtasun sozialak dituzten gizon-emakumeak gizarteratzen trebatzeko. | | | 1143.824,85 € |
| Hitzarmena Arabako Gurutze Gorriarekin, Arabako LHn bizi diren immigranteak lanbideratzeko programak garatzeko. Programak: | Lanean hasi aurreko trebakuntza | 107 lagun | 94.080,51 € |
| | Lanerako orientazioa | 308 lagun | |
| | Trebatze-ekintzak | 65 lagun | |
| | Enplegua bilatzeko eremua | 85 lagun | |
| | Neurri osagarriak: garraio-bekak, haurtzaindegia eta trebakuntzarako laguntzak | 44 laguntza | |
| | Lan-merkatuan txertatutako lagunak, guztira | 156 lagun | |
| Lankidetza-hitzarmenak Gasteizko Udalarekin eta Arabako Elizbarrutiko Cáritasekin. Programak: | | 201 lagun | |
| | Lan Bila programa | 2 lagun | 60.000,00 € |
| | "Artezale" elkartasun-denda | 43 lagun | 146.577,00 € |
| | "Berjantzi", arropa-berrerabilpenerako tailerra eta denda | 17 lagun | 17.529,00 € |
| Lankidetza-hitzarmena SARTU Bergizarteratze Elkartearekin, egoera txarrean dauden herritarrak gizarteratzeko | Gizarteratzeko udal-planak Arabako Lautadako, Laudio, Amurrio, Guardia-Arabako Errioxa eta Añanako Kroadriletan | 740 lagun | 260.436,00 € |

**T 19. Araba: gizarteratze- eta lanbideratze-programak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| tokiko plana garatzeko. Programak: | Laneko Bitartekaritza Programa | 166 onuradun (172 kontratazio, 294 enplegu-eskaintza; enplegu-eskaintza itxiak, 141; harremanetan jarritako enpresak, 60) | |
| Lankidetza-hitzarmena Ajebask-ekin gizarteratzeko eta lanbideratzeko zailtasun bereziak dituztenak Trebatzeko Programako jarduerak garatzeko. Programak: | Autoenpleguari buruzko sentsibilizazio-jardunaldia hainbat herritar eta eragilerekin | 20 eragile | 9.098,00 € |
| | Sentsibilizazio-jardunaldia immigranteekin | 15 lagun | |
| | Laguntza eta aholkularitza enpresa-ekimen jakin batzuetan | 6 proiektu | |
| Lankidetza-hitzarmena Arabako Elizbarrutiko Cáritasekin, gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten gizon-emakumeak trebatzeko programa garatzeko. Programa: | Ingurumenari buruzko sentsibilizazioko lau modulu | 39 lagun | 1.258,26 € |
| 20.000 biztanletik beherako tokiko erakundeei Laguntzeko Deialdi Publikoa, gizon-emakume eta kolektiborik ahulenak gizarteratu eta laguntzeko programetarako. | | 15 lagun | 310.825,00 € |
| Lankidetza-hitzarmena Beti-Gizartean Fundazioarekin, erakundeko gizarteratze-programako zerbitzuak garatzeko. Programak: | Tinko Garbiketak gizarteratze-enpresa (Araba) | 16 emakume (gizarteratze-kontratua) | 104.470,00 € |
| | Ikatzbizi gizarteratze-enpresa | 5 emakume (gizarteratze-kontratua) | |
| | Ireki Bideak proiektua | 5 lagun | |
| GOFE hitzarmena Asociación Hogar Alavés elkartearekin – Oinarri Zentro Okupazionalarekin | | 21 egoiliar | 52.497,00 € |
| GOFE hitzarmena ASASAM elkartearekin. | Gaixotasun mentalak dituztenentzako zentro okupazionala | 35 lagun | 95.000,00 € |
| | Informazioa eta orientazioa | 29 lagun | |
| | Tailer psikosoziala | 47 lagun | |
| GOFE hitzarmena Secretariado General Gitano (Ijitoen Idazkaritza Nagusia) Fundazioarekin. Trebakuntza eta Enplegu Programa: harrera eta informazioa, diagnostikoa eta lanbide-orientazioa. | | 250 lagun | 42.436,00 € |
| | Trebakuntza okupazionala eta profesionala | 55 lagun | |
| | Lanbideratzea (azterketa eta lan-bilaketa aktiboa) | 34 kontratu | |
| | Lanbideratzea (kontratazioak) | 154 kontratu | |
| GOFE hitzarmena Gao Lacho Drom elkartearekin, lanbideratzeko aurre-trebakuntza zerbitzua garatzeko. | Oinarrizko trebakuntza akademikoa emakumezkoei | 81 emakume | 112.248,86 € |
| | Ekintzak landa-eremuan: Bastida | 21 haur | |
| | Ekintzak gazteekin (Sansomendi eta Alde Zaharra) | 142 gazte | |
| | Gidabaimena ateratzeko oinarrizko ikaskuntza-ikastaroa | 55 lagun | |

Iturria: Arabako Foru Aldundia (2008).

T 20. **Gipuzkoa: Aldundiarekin hitzartutako programak**

| Erakundea | Zentroa | Erabiltzailea | Profesionalak 2007 | Profesionalak 2008 |
|---|---|---|---|---|
| AGIPAD | ESKU HARTZE FAMILIARRA | TOXIKOMANOAK | 3,2 | 3,2 |
| | SEGIMENDUA | TOXIKOMANOAK | 1,7 | 1,7 |
| | ALKOHOLIKOEN GIZARTERATZEA | TOXIKOMANOAK | 1 | 1 |
| | ESKU HARTZE PSIKOSOZIALA | TOXIKOMANOAK | 5,3 | 5,3 |
| | HAURTXOAK PROGRAMA | TOXIKOMANOAK | 1,2 | 5 |
| ASFAMOGI | UMEZAINAK | GURASO BAKARREKO FAMILIAK | 3,7 | 3,7 |
| CARITAS | IJITO FAMILIEN TREBAKUNTZA | IJITOAK | 1 | 1 |
| | LAGUNTZA SOZIALA | IMMIGRANTEAK | 3 | 3 |
| | SOZIALA ETA LABORALA | IMMIGRANTEAK | 1 | 2 |
| | BOLUNTARIOAK | OROKORRA | 1 | 1 |
| | LANBIDERATZE AURREKO TAILERRAK | ETXERIK GABEAK | 3,5 | 3,5 |
| | EGUNEKO ATERPEA | ETXERIK GABEAK | 2,6 | 2,6 |
| | GAUEKO ATERPEA | ETXERIK GABEAK | 1,9 | 1,9 |
| GURUTZE GORRIA | KULTURA ARTEKO BITARTEKARITZA | IMMIGRANTEAK | 1 | 2 |
| | LAGUNTZA SOZIALA | IMMIGRANTEAK | 4 | 5 |
| | BOLUNTARIOAK | OROKORRA | 2 | 2 |
| | EMANTZIPATZEKO LAGUNTZA | GAZTEAK | 2 | 2 |
| | SOZIALA ETA LABORALA | IMMIGRANTEAK | 4 | 5 |
| EMAUS | BALORAZIO PSIKOSOZIALA | | 0 | 1 |
| INIC. GITANA | ESKU-HARTZE FAMILIARRA | IJITOAK | 10 | 10 |
| IZAN FUNDAZIOA | HARRERA | TOXIKOMANOAK | 12,3 | 12,3 |
| | ESKU HARTZE FAMILIARRA | TOXIKOMANOAK | 2 | 2 |
| | SEGIMENDUA | TOXIKOMANOAK | 2 | 2 |
| | ALKOHOLIKOEN GIZARTERATZEA | TOXIKOMANOAK | 2 | 2 |
| | NORBERA | TOXIKOMANOAK | 3,5 | 3,5 |
| ERESGI | GIZARTE SUSTAPENA KARTZELAN | KARTZELA | 2,7 | 2,7 |
| TEL ESPERAN (itxaropenaren telefonoa) | ARRETA ZERBITZUA | BAKARDADEA | 1,8 | 1,8 |
| SAREA FUND. | AUTOENPLEGUA | SOZIALA ETA LABORALA | 0,9 | 0,9 |
| | TREBAKUNTZA SOZIAL ETA PROFESIONALA | SOZIALA ETA LABORALA | 2,5 | 2,5 |
| | ENPLEGU KUDEAKETA AKTIBOA | SOZIALA ETA LABORALA | 2,5 | 2,5 |
| ERROAK (SARTU) | GIZARTE LAGUNTZA | SOZIALA ETA LABORALA | 2,5 | 2,5 |
| | TREBAKUNTZA SOZIAL ETA PROFESIONALA | SOZIALA ETA LABORALA | 0,6 | 0,6 |
| | ENPLEGU KUDEAKETA AKTIBOA | SOZIALA ETA LABORALA | 2,5 | 2,5 |
| ZABALTZEN (SARTU) | GIZARTE LAGUNTZA | SOZIALA ETA LABORALA | 1 | 1 |
| | ENPLEGU KUDEAKETA AKTIBOA | SOZIALA ETA LABORALA | 1 | 1 |
| LOIOLA ETXEA | LAGUNTZA KARTELATIK IRTEN BERRIEI | PRESO OHIAK | 1,3 | 1,3 |

## T 20. Gipuzkoa: Aldundiarekin hitzartutako programak

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | BITARTEKO PROGRAMA | BITARTEKARITZA PENALA | 1 | 1 |
| | EMANTZIPATZEKO LAGUNTZA | GAZTEAK | | 1 |
| RAIS | TOPALEKU | ETXERIK GABEAK | 2 | 2 |
| | KALEKO ESKU HARTZEA | ETXERIK GABEAK | 2 | 2 |
| PEÑASCAL FUNDAZIOA | GIZARTE LAGUNTZA | SOZIALA ETA LABORALA | | 0,6 |
| | TREBAKUNTZA SOZIAL ETA PROFESIONALA | SOZIALA ETA LABORALA | | 0,2 |
| | ENPLEGU KUDEAKETA AKTIBOA | SOZIALA ETA LABORALA | | 1,2 |
| SOS ARRAZAKERIA | IZAPIDEAK BIZKORTZEA | IMMIGRANTEAK | | 2 |
| GUZTIRA | | | 99,2 | 113 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2008).

## T 21. Gipuzkoa: Aldundiarekin hitzarmena duten gizarteratze-zentroak

| Erakundea | Zentroa | Erabiltzailea | Lekuak 2007 | Lekuak 2008 |
|---|---|---|---|---|
| ABEGI | Aterpetxea | IRAGAITZAZKO BIDARIAK | 9 | 9 |
| | Goizaldi pisua | ETXERIK GABEAK | 3 | 3 |
| CARITAS | EMAKUMEAK pisuak | EMAKUMEZKOAK | 8 | 8 |
| | Sorabilla | GAZTEAK | 14 | 14 |
| | Trintxer | ETXERIK GABEAK | 23 | 23 |
| | Emeki | EMAKUMEAK | 4 | 4 |
| | Trintxer, pisu bat | ETXERIK GABEAK | 3 | 3 |
| | 5 pisu | IMMIGRANTEAK | 28 | 28 |
| GURUTZE GORRIA | 4 pisu | EMANTZIPAZIOA | 24 | 36 |
| | 1 pisu | LARRIALDIAK | 4 | 4 |
| | 10 pisu | IMMIGRANTEAK | 60 | 60 |
| EMAUS | "Isla" | BAZTERTUAK | 24 | 24 |
| | Balorazioa | BALORAZIOA | 12 | 12 |
| | Itsas Etxea | BALORAZIOA | 16 | 16 |
| | Isla, etxebizitza bat | BAZTERTUAK | 4 | 4 |
| | Isla, pisu bat | BAZTERTUAK | 4 | 8 |
| IZAN FUND. | Bergizarteratzea | TOXIKOMANOAK | 60 | 60 |
| | Urigain | TOXIKOMANOAK | 18 | 18 |
| | Alkoholikoen gizarteratzea | TOXIKOMANOAK | | 8 |
| | M.A.I.S. | TOXIKOMANOAK | 6 | 6 |
| LARRATXO | Aterpetxeak | ETXERIK GABEAK | 11 | 11 |
| LOIOLA | Loiola Etxea | PRESO OHIAK | 12 | 12 |
| | 2 pisu | PRESO OHIAK | 6 | 6 |
| KOLORE GUZTIAK | Emantzipazioa | GAZTEAK | | 11 |
| PEÑASCAL | Emantzipazioa | GAZTEAK | | 8 |
| GUZTIRA | | | 353 | 396 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2008).

T 22. **Bizkaia: Aldundiaren programak**

| Programak | Ezaugarriak | Parte-hartzaileak | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| AZTERKETA ETA KOORDINAZIO AZPIPROGRAMA | Gizartean baztertuta dauden gizon-emakumeen egungo eta etorkizuneko beharrizanei buruzko azterketak prestatzea eta abiaraztea, zerbitzu-zorroko arreta-baliabideen arabera. | 22 erakunde | Gastu orokorrei egozgarria |
| | Gizarte Ekintza Sailarekin hitzartutako eremuko tresnetan, arreta-ereduak zehaztu eta homogeneizatzea. | | |
| | Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarik jaso edo harekin hitzarmenik egin nahi duten eremuetako tresnen gutxieneko baldintzak zehaztea. | | |
| | Batzorde teknikoetako partaidetza. | | |
| | Erakundeen arteko foroetako eta sektore-behatokietako partaidetza. | | |
| | Koordinazio-bilerak. | | |
| ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK SORTU ETA HOBETZEKO AZPIPROGRAMA | Lankidetza-hitzarmenak sinatu eta garatzea gizarte-bazterkeriaren eremuan lanean diharduten erakundeekin. | 62 zentro/zerbitzu | Lankidetza-hitzarmenak: 8.510.325€ |
| | Gizartetik baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei laguntzeko baliabideetan inbertitzeko dirulaguntzak ematea. | | Inbertsiorako laguntzak: 250.000€ |
| | Gizarte-bazterkeriaren eremuko baliabideak aztertu eta haien segimendua egiteko bisitak sustatzea. | | |
| | Gizarte Ekintza Sailarekin hitzartutako eremu-baliabideetan, zerbitzua nola ematen den aztertu eta behatzea. | | |
| ZUZENEKO ARRETA: AZPIPROGRAMA | Beharrizanen diagnostikoa eta balorazioa. | 550 lagun | Gizarteratzeko dirulaguntza indibidualak: 1.288.748,00 € |
| | Egoitzan bertan ematen den arreta. | 624 lagun | Gizarteratzeko dirulaguntzak, familiei: 2.423.797,00 €<br>Gizarteratzeko zentroetan egoteko dirulaguntzak: 83.400,00 € |
| | Egoitzaz kanpoko arreta (eguneko zentroak eta lanean hasi aurreko tailerrak). | 884 lagun | |
| | Arreta drogazaleak artatzeko programetan. | 538 lagun | |
| | Arreta gizarteratzeko beste programa batzuetan | 3.231 lagun | |
| | Gizarteratzeko dirulaguntza indibidualak ematea. | 545 onuradun hilean, batez beste | |
| | Gizarteratze-zentroetan egoteko dirulaguntzak ematea. | 2 lagun. | |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia ( 2008).

T 23. **Tokiko Garapen Agentziak: programa eragileak**

| Agentzia | Programak edo esparruak | Erabiltzaileak | Aurrekontua |
|---|---|---|---|
| DONOSTIAKO SUSTAPENA | 28 jarduera (2008ko urtarriletik urrira), lan-merkatutik kanpo geratzeko arriskuan zeudenentzat. | 227 | |
| LAN EKINTZA | BIZKAIKO FORU ALDUNDIA<br>Prestakuntza profesionala jasotzeko edo hobetzeko trebakuntza-ekintzak egin dira programa honetan, langabeei edo laneko egonkortasuna hobetzeko premia zutenei zuzenduak.<br>2008an hasitako trebakuntza-espezialitateak: adin txikiko, immigrante eta tratu txarren biktimekiko esku-hartze soziala; sistema fotovoltaiko eta eolikoen instalatzaile.<br>Egindako trebakuntza-ekintzak: 2<br>% 95eko lanbideratze-tasa eragin zuten 2008an amaitutako ekintza horiek. | 20 | 70.400€ |
| | SPEE INEM<br>Lanik gabe zeuden gizon-emakumeak trebatu eta enplegua izateko edo lehendik zutenari eusteko aukerak hobetu egin ziren trebakuntza-ekintza hauen bidez. Teorikoa eta praktikoa izan zen prestakuntza, eta praktikak egin ziren zenbait enpresatan.<br>2008an hasitako trebakuntza-espezialitateak: geriatriako erizain-laguntzaile eta etxeko zerbitzari.<br>Egindako trebakuntza-ekintzak: 2<br>% 70eko lanbideratze-tasa eragin zuten 2007an amaitutako ekintza haiek (2008an amaitutako ekintzarik ez dagoelako ematen dugun datu hori). | 30 | 63.450€ |
| | EUSKO JAURLARITZA<br>Lanbide Heziketaren bidez, ikasgela eta tailerreko prestakuntza teoriko-praktikoa eta enpresako prestakuntza praktikoa uztartzen dituzten trebakuntza-ekintzak egin ziren, ikasleen enplegagarritasuna hobetu eta, hartara, haien lanbideratzea sustatzeko.<br>Emandako trebakuntza-ekintzak: kutxazain/birjartze-lanak, aretoko zerbitzari eta laguntza behar dutenen arreta.<br>Egindako trebakuntza-ekintzak: 3.<br>% 69ko lanbideratze-tasa eragin zuten 2008an amaitutako ekintza horiek. | 36 | 46.340€ |
| | BILBOKO ALDE ZAHARREKO, SAN FRANTZISKOKO ETA ZABALAKO 2005-2009 PLAN BEREZIAREN BARRUAN SUSTATUTAKO EKINTZAK<br>Trebakuntza-espezialitateak: geriatriako laguntzailea, lanbide-aniztasuna (igeltserotza, pintura, pladur-a), ingurumen-langilea eta jende-zaintza: zaharren eta haurren zaintza.<br>Ekintza-kopurua: 6 | | 592.654€ |

### T 23. **Tokiko Garapen Agentziak: programa eragileak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | LAN EKINTZA BILBO<br>Bilboko Lan Ekintzako Lanbide Orientazioa Zerbitzuan artatutako jendearen ezaugarriak eta zenbait profil okupazionalen enplegu-aukera onak ikusirik, Bilboko Lan Ekintzak zenbait trebakuntza-ekintza antolatu zituen, prestakuntza profesionalaren bitartez enplegua errazago lortzeko.<br>Emandako trebakuntza-espezialitateak: segurtasun-zaindaria, biltegiko langilea, orga jasotzaileen gidaria, pertsona helduen oinarrizko zaintza (e-learning-a).<br>Egindako trebakuntza-ekintzak: 3<br>% 75eko lanbideratze-tasa eragin zuten ekintza horiek. | 39 | 36.543€ |
| GASTEIZKO EKONOMIA SUSTAPENEKO SAILA | Aipagarrienak deskribatuko ditugu, iraupen luzeagoko ibilbideak eta lan-kontratua ekarri ohi dituztelako. Horietako gehienek (% 90-95) Oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik datozen kolektiboei eragiten diete:<br>Enplegu-programak ( INEM-CCLL; Auzolan ondokoak...): 18 proiektu. | 31 | Saileko partida propioen zenbatekoa: 578.000 €<br>(Funtzio Publikoko Sailaren soldata-kostuak eta proiektua finantzatzen duten erakundeen (INEM eta Eusko Jaurlaritza) dirulaguntzak gehitu behar zaizkio horri. |
| | e-f ekintzak, beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekin: hitzarmenak sinatu genituen SARTU Araba Bergizarteratze Elkartearekin eta Ijitoen Idazkaritza Orokorrarekin. Bestalde, Udalaren ureztatze-lanetako azpikontratan bitartekari izan ginen. | 18 | |
| | Programa “mistoak”: enplegua-trebakuntza (Auzolan; udal-programak; Lanbide programak...): 11 proiektu. | 115 | |
| BEHARGINTZA GERNIKALDEA | Auzolan | | Dirulaguntzak jaso genituen Eusko Jaurlaritzatik eta Aldunditik zenbait programatarako. |
| | Ezkutuko ekonomian diharduten EMAKUME zaintzaileentzako gizarte-laguntzaile ikastaroa. | | |
| | Hastapen profesionala (Iniciación profesional (eskola-porrotak eragindako gazteak) | | |
| BEHARGINTZA TXORIERRI | Gizarteratzeko eta lanbideratzeko jarduera-programa bat | 48 | 9.000€ |
| | Trebakuntza okupazionaleko Aldundiaren sei ikastaro | 35 | 90.000€ |
| DEBEGESA | Langabeentzako (EMAKUMEENTZAKO, batez ere) trebakuntza okupazionaleko ikastaroak | | 109.000€ |
| | Lanbide-orientazioko programa-garapena, LANBIDE barruan | | |
| DURANGALDEKO BEHARGINTZA | Industriako mantentze-lanetako langilea | 8 | 38.785€ |
| | Harreragilea/administraria | 10 | 34.470€ |
| | Geriatriako laguntzailea etxeetan eta zaharrentzako egoitzetan | 10 | 35.383€ |
| | Mekanizazio konbentzionaleko eta CNCko teknikaria | 10 | 52.538€ |
| | Arreta merkataritza-guneetan | | 36.100€ |
| | Ile-apainketa eta estetikako laguntzailea | | 46.900€ |
| | Geriatriako laguntzailea etxeetan eta zaharrentzako egoitzetan | 15 | 34.120€ |
| | Teknologia berriak eta EMAKUMEAK eta IMMIGRANTEAK (I) | 10 | 5.070€ |
| | Teknologia berriak eta EMAKUMEAK eta IMMIGRANTEAK (II) | 9 | 1.857€ |
| | Teknologia berriak eta pertsona helduen eguneroko bizimodua | 9 | 4.056€ |
| | Lana bilatzeko trebeziak eta gaitasunak | | 4.040€ |

| T 23. **Tokiko Garapen Agentziak: programa eragileak** | | | |
|---|---|---|---|
| | ENPLEGUA BILATZEKO GAKOAK EMANGO DIZKIZUGU (2. DEIALDIA) | 10 | |
| | Enplegu-tailerra: lana bilatu eta aurkitzeko gakoak. | 21 | 2.430€ |
| GOIEKI | Denentzako da Goieki-ko enpresa-sehaskaren zerbitzua, ezaugarrien arabera programa batzuek laguntza gehiago eskaintzen badute ere. | | |
| IRAURGI LANTZEN | Udalek bultzatzen dituzte enplegu-eta trebakuntza-politika aktiboak, gizarteratzea bultzatzen duten organismoekin batera (Sartu-k, Azpeitian, adibidez), eta Auzolaneko programak eta bestelakoak egiten dira. | | |
| LEA ARTIBAI | Lan bila ari direnei lagundu eta agian interesatzen zaizkien eskaintzen berri ematen zaie. BFAko programak dira (langabeentzako ikastaroak). | | |
| OARSOALDEA | SORTU tailer okupazionala. Bazterketa-egoera larrian daude parte-hartzaileak (2. taldeko diagnostiko SOZIAL ETA LABORALA), hau da, aldez aurretik alderdi sozialak landu behar dituzte, muga handiak baitituzte: gaitasun-gabezia, jarduerarik eza, isolamendu soziala; osasun-, higiene- eta elikadura-gabeziak, trebetasun sozialik eza, inguruko presioarekiko tolerantzia-gabezia eta lanerako erritmorik eza. Hori guztia dela eta, zailtasun handiak dituzte gizarteratze-baliabiderik zorrotzenak eskuratzeko. | 14 | Lau udalen ekarpena 8.000 €-koa izan da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze Zuzendaritzak ere dirulaguntza eman du. |
| | Txertatu tailer okupazionala. 2. taldeko diagnostiko SOZIAL ETA LABORALA dute tailer honetako parte-hartzaileek, eta lanbideratze-pronostiko zaila , hau da, aldez aurretik alderdi sozialak landu behar dituzte, muga batzuk baitituzte: osasun-, higiene- eta elikadura-gabeziak, etxeko lanak, trebetasun sozialik eza, inguruko presioarekiko tolerantzia-gabezia eta lanerako erritmorik eza. Hori guztia dela eta, zailtasunak dituzte gizarteratze-baliabiderik zorrotzenak eskuratzeko. Jarduera industrial erdi-produktiboa egiten da tailerrean, hots, ez dute ekoizpen-atalase jakinik bete behar, eta ez dute harreman juridiko-laboralik. | 15 | Lau udalen ekarpena de 8.000 €-koa izan da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze Zuzendaritzak ere dirulaguntza eman du. |
| | Egokitze Soiolaboraleko Tailerra. Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Oarsoaldea S.A. Tokiko Garapen Agentziaren Enplegu Sailaren artean eratutako Esku-hartze Plan Bateratuan sartzen da programa hau. Programa horietan parte hartzen duten sei lagunak sei hilabeterako kontratatzen ditu Pasaiako Udalak, egun-erdiko lanaldian, eta Obra eta Zerbitzu Saileko lanak egiten dituzte. | 6 | Pasaiako Udalak eman du finantziazioaren % 100 |
| SFC SESTAO | Izarte programaren barruan, “Lokal eta eremu publikoetako pinturaren mantentze-lanak” deritzon trebakuntza- eta enplegu-programa. | 11 | 103.291,52 €-ko finantziazioa; horietatik, 101.191,52 € Eusko Jaurlaritzak eman zituen, eta 2.100,00 € Sestaoko Udalak. |

| 14. jarduera | *Erakundeen arteko mahaiak sustatzea Lurralde Historiko bakoitzean, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta gizarteratzearen aldeko politikak koordinatzeko.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Eusko Jaurlaritzak ez du egin, oraingoz, mahai horiek sustatzeko ahalegin aktiborik.

Araban badago baztertutako jendea gizarteratzeko mahairik, eta horko partaide dira GOFE, Gasteizko Udala (Esku-hartze Soziala eta Sustapen Ekonomikoa), Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze Zuzendaritza eta elkarte hauek: IRSE, Sartu, Caritas, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, ASAFES, Beti Gizartean Fundazioa eta IZAN Elkartea.

Arabako Koadrila guztietan daude Gizarteratze Batzordeak. Horietako partaide dira gizarteratze-teknikariak, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileak, prebentzio komunitarioko teknikariak, enplegu-teknikariak eta udaletako gizarteratze-planetako teknikariak. Hiru hilean behin egiten dituzte bilerak, beharrizanak aztertu eta Koadrila eta gizon-emakume bakoitzaren premietara egokitutako programak eratzeko. Batzorde bat dago Koadrilako, Aiaran izan ezik (hiru daude). 2008an, 15 bilera egin zituzten.

Bizkaian, hainbat kontseilutan hartzen du parte Gizarte Ekintza Sailak (Ongizate Sozialeko Euskal Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko erakundeen arteko Jarraipen Batzordea, Gizarteratze Batzorde Iraunkorra...), baina ez dago erakundeen arteko Bizkaiko mahairik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du parte hartzen erakunde arteko inongo mahaitan; dena den, herrialde horretan plataforma bat eratzekotan dira GKE-ekin eta udalekin. Gasteizko Udalak bakarrik hartzen du parte erakundeen arteko mahaietan; hauetan, zehazki: Gizarte eta Immigrazio mahaietan, eta Arabako Lanbideratze Mahaian.

Durango eta Pasaiak, berriz, inguruko udalekin elkarlanean jarduten dute (Durangaldekoak alde batetik, Oarsoaldekoak bestetik). Azkena aipatutakoek batzorde bat eratu dute, non Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin koordinazio-protokolo bat ezarri duten atzerritarren gaietarako.

Zenbait GKEren iritziz, beharrezkoa da Bizkaian mahai bat eratzea, eta komenigarria litzatekeela diote guztiek.

| 15. jarduera | *EAEko espetxeetan kondena betetzen ari direnei gizarte-zerbitzu gehiago eskaintzea, batez ere neurri judizialak betetzen ari diren adingabeko lege-urratzaileei.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ●

Espetxeetan gizarte-zerbitzuak sustatzeko zenbait ekintza zehaztu dira. Espetxeetako gizarte-zerbitzuek bultzatzen dituzte ekintza horiek, eta hala egiaztatu digute EAEko hiru espetxeetako zuzendariek. Alabaina, ez da atzeman elkarlanik GEPak arduraduntzat jotzen zituen gainerako erakundeen artean, hau da, Aldundien eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailaren artean. Bi erakunde horiek diotenez, estatu espainiarrari dagozkio horretarako eskumenak, edo Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari.

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak, hain zuzen, neurri judizialen bat (zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-eginkizunak, barneratzea, tratamendu anbulatorioa...) betetzen ari diren gazte lege-urratzaileekin lan egiten du, Gazteentzako Justiziako Ikastetxeekin eta Kanpoko Zerbitzuekin elkarlanean. Gazteentzako justiziako neurri-betearazpen sistemak baliabide hauek ditu:

- 4 ikastetxe (62 lagunentzako lekua).
- 4 egoitza autonomo (20 lagunentzako lekua).
- 3 kanpoko talde (25 profesional).

Lurralde Historikoei dagokienez, Bizkaiak eta Gipuzkoak diote ez dutela eskumenik alor horretan. Araban, berriz, badituzte zenbait programa zigorrak betetzen ari direnei laguntzeko.

T 24. **Araba: zigorrak betetzen ari direnei laguntzeko programak**

| Hitzarmena | Helburua | 2007an artatutakoak | 2008ko aurrekontua |
|---|---|---|---|
| GOFE hitzarmena, Gasteizko Udala eta Presoei Laguntzeko Elkartea (ADAP) | Langraitzeko espetxeko EMAKUME presoei laguntzeko etxea | 22 EMAKUME | 83.594,00€ |
| GOFE hitzarmena, Gasteizko Udala eta HIESaren aurkako Batzordea | Langraitzeko espetxeko gizonezko presoei laguntzeko etxea. | 143 gizon | 165.124,00€ |
| GOFE hitzarmena HIESaren aurkako Herritar Batzordearekin | Erregimen irekian espetxe-zigorrak betetzen ari direnak lanbideratzeko harrera-etxea. | 15 lagun | 71.288,00€. |
| GOFE hitzarmena HIESaren aurkako Herritar Batzordearekin. | Langraitzeko espetxeko bigarren graduko presoei bergizarteratzen laguntzeko etxea irekitzeko hitzarmena. | 13 gizon | 18.025,00€ |
| GOFE hitzarmena, Gasteizko Udala eta HIESaren aurkako Batzordea | Baldintzapean libre dauden gizonezkoei bergizarteratzen laguntzeko harrera-etxea. | 11 gizon | 33.505,00€ |

Iturria: Arabako Foru Aldundia (2008).

GKE batzuek ez dute izan GEParen jardueraren berri, kolektibo horrekin lan egiteko programak dituzten arren. 2008an gora egin zuen espetxeetan lan egiten duten gizarte-laguntzaile emakumezkoen kopuruak, eta nabarmen lagundu zuen horrek espetxeetako emakume helduei gizarte-zerbitzuak emateko. 2008ko azaroan, langile horiek jada ez zeuden kontratatuta, eta etenda zegoen zerbitzu-eskaintza.

## 1.3. PRESTAZIO EKONOMIKOETAN AHALIK ETA KALITATERIK HANDIENA LORTZEA, BEHARRIZAN EGOERAN DAUDEN BIZIKIDETZA UNITATE GUZTIENTZAT BERMATZEA ETA OINARRIZKO ESKU HARTZE INTEGRALAK SUSTATZEA

### 1.3.1. Oinarrizko errenta unibertsalizatzeko bidean aurrerapausoak ematea, arian-arian

| 16. jarduera | *Bizikidetza unitatea berriro definitzea, familia-gunearen benetako egoerara hurbilduz kontzeptua eta, hartara, familia-gunetik kanpo dauden familia-kideak bizikidetza unitate independentetzat jo ahal izateko, egoera jakin batzuetan.* |
|---|---|

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ●

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, bizikidetza unitatea berriro definitzeko aukera ematen du. Pentsiodunak dira unitate berri horietako bat, 8/2008 Legeak (Pentsio Osagarriei buruzko Legea) aurreratu zuenez. 18/2008 Legeak pertsona edo talde hauek jotzen ditu bizikidetza unitatetzat:

- a) Etxe edo ostaturen batean bakarrik bizi diren pertsonak, hauek izan ezik: bakarrik bizi arren beste batzuekin ezkontza-lotura edo ezkontzaren antzeko beste harreman iraunkor baten bidezkoa dutenak, banandu edo dibortziatzeko izapideak egiten ari direnean edo arau bidez zehazten diren egoera berezietan.
- b) Etxe edo ostatu berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarrekiko lotura hauetakoren bat dutenak: ezkontza edo ezkontzaren antzeko beste harreman iraunkorren bat, adopzioa, laugarren mailarainoko odolkidetasuna edo bigarren mailarainoko kidetasuna, edo familia-harrera iraunkorra, edo adopzio-aurrekoa edo babesa.
- c) Aipatutako lotura horietatik batere ez duten eta etxe edo ostatu berean elkarrekin bizi diren pertsonetako bakoitza, arau bidez zehaztutako muturreko premia-egoera egiaztagarrietan daudenak.

Salbuespen gisara, bizikidetza unitatetzat joko dira:

- a) Zahartzaro-, ezintasun- edo alargun-pentsioen (kotizaziopekoak edo kotizaziorik gabekoak) onuradun direnak, eta haien ezkontideak edo ezkontzaren pareko harreman iraunkor bidez haiekin lotutakoak, eta haiekiko mendekotasun ekonomikoa dutenak.
- b) Etxean tratu txarrak jasan eta ohiko bizilekutik alde egin dutenak, seme-alabekin (baldin badute).
- c) Beren kargura adingabeko pertsonak dituztenak.
- d) Banandu edo dibortziatu egin direlako, behar adina baliabide ekonomiko ez zutelako edo gizarte-zerbitzuek muturrekotzat jotzen duten egoeraren batengatik ohiko bizilekutik alde egin behar izan duten eta bakarrik dauden pertsonak.

Azkenik, salbuespen gehiago zehaztea ere aurreikusten da; besteak beste, behin-behineko harrera-formulak.

2009ko ekitaldirako, 245,66 milioi eurokoa da diru-sarrerak bermatzeko aurrekontu-partida; 2008an, berriz, 197,3 milioikoa izan zen. Legearen babespean sortutako unitate berriei laguntzeko da, hein handi batean, igoera.

Berariaz pentsioen osagarritarako erabiliko den aurrekontu-partida 24,77 milioi eurokoa da.

| 17. jarduera | *Oinarrizko Errentaren zenbatekoa LGSren % 100arekin parekatzea 65 urtetik gorako Oinarrizko Errentaren hartzaileei eta premia-egoeran dauden adin horretatik beherako pentsiodunei.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ●

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, bete egiten du jarduera hau lanbide arteko gutxieneko soldata adinako hileko diru-sarrerarik ez duten premiadun pentsiodunek osatutako bizikidetza unitateei dagokienez, gizarteratzeko eta babes sozialeko Oinarrizko Errentaren alorrean.

Pentsiodun horiei dagokienez, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 dute gehieneko zenbatekoa pertsona bakarreko bizikidetza unitateek, eta % 135erainokoa hiru lagun edo gehiagoko bizikidetza unitateek.

| 18. jarduera | *Salbuespen gehiago sartzea, 23 urtetik beherako adin nagusikoek Oinarrizko Errenta eskuratzeko aukera izan dezaten: 18-23 urte bitartekoen taldeko premia berezidun kasu guztiak sartzea, premia-egoera horiek arautzea, eta Erakunde arteko Jarraipen Batzordeak irizpideak finkatu eta bateratzea, araudian ageri ez den egoera oro behar bezala aztertu eta bidera dezaten Gizarte Zerbitzuek eta Foru Aldundiek.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ○

GEPak proposatzen zuen 18 eta 23 urte bitartekoek Oinarrizko Errenta jaso ahal izateko salbuespen berriak erregulatzeko araudia onartzea. Horretarako, ekainaren 22ko 4/2007 Legea onartu zen, zeinak Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legea eta Eskubide Sozialen Gutunari buruzko 10/2000 Legea aldatzen zituen, eta prestazioa jasotzeko gutxieneko adinaren mugak dekretu bidez igotzeko aukera ematen dion gobernuari.

- Lehena.– Maiatzaren 22ko Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 18.1 artikuluaren d) letra aldatu eta honela geratzen da: «d) 23 urtetik gorakoa izatea. Alabaina, premia berezian dauden eta gainerako baldintzak betetzen dituzten 23 urtetik beherakoak ere sar daitezke, Eusko Jaurlaritzak arau bidez erabakitzen duen modura, eta, kasu guztietan, pertsona hauek: adin txikikoak edo minusbaliatuak ekonomikoki beren kargura dauzkatenak; aitarik eta amarik ez dutenak; etxean tratu txarrak jaso dituztenak eta gutxienez sei hilabete lehenagotik

beste pertsona bati ezkontza bidez edo ezkontzaren pareko beste harreman iraunkor baten bidez lotuta daudenak ».

Ondoren, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak) agindu zuen 23 urtetik gorakoak behar dutela izan Oinarrizko errenta jaso dezaketen onuradunek, premia berezian dauden eta gainerako baldintzak betetzen dituzten 18 urtetik gorakoak izan ezik, Eusko Jaurlaritzak arau bidez erabakitzen duen moduan, eta, kasu guztietan, beste hauek:

- Baliaezintasun-pentsioak jasotzen dituztenek.
- Aitarik eta amarik ez dutenek.
- Adin txikikoak edo pertsona heldu minusbaliatuak edo zaintza behar dutenak beren ardura ekonomikoaren pean dituztenek.
- Etxean tratu txarrak jaso dituztenek.
- Ezkontza bidez edo ezkontzaren pareko beste harreman iraunkor baten bidez gutxienez sei hilabete lehenagotik beste pertsona batekiko lotura dutenek.

2008an, 18 eta 23 urteko 694 lagunek jasotzen zuten Oinarrizko errenta.

Alabaina, ez da inongo aurrerapenik atzeman jardueraren bigarren atalari dagokionez. Erakundeen arteko Jarraipen Batzordearen irizpideak bateratzea du xede atal horrek, araudian ageri ez den edozein premia-egoera behar bezala azter eta bidera dezaten gizarte-zerbitzuek eta foru-aldundiek.

| | |
|---|---|
| 19. jarduera | *Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden guraso bakarreko familiei ematen zaien babesa areagotzea. Oinarrizko Errentaren hobari edo gehigarri bat ematea, guraso bakarreko familietako seme-alabak zaintzeko.* |

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ●

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, dirulaguntza osagarria ezartzen du guraso bakarreko familientzat (aita edo ama, seme-alaba batekin edo batzuekin, eskaria aurkeztean ezkontza-harremanik edo antzekorik ez duena).

Arau bidez finkatuko da zenbatekoa, bai gizarteratzeko eta babes sozialeko Oinarrizko Errentarena, bai lan-errenten errenta osagarriena.

| | |
|---|---|
| 20. jarduera | *Gizarteratze-zentroei buruzko hitzarmenaren arauzko garapena.* |

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietarako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Helburua da behin-behineko zentroetako erabiltzaileek Oinarrizko Errenta jaso ahal izatea.

Horretarako, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, salbuespen gehiago ezartzeko aukera aurreikusten du; besteak beste, aldi baterako harrera-formulak.

*Oinarrizko Errentaren unibertsalizazioa eta 2008ko familia Inkesta.*

Jardueratzat aurreikusia ez egon arren, Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailak egindako 2008ko Familia Inkestako datuak ere eransten ditugu, Oinarrizko errentaren unibertsalizazioaren (1.3.1 helburua) ikuspegi bat izatearren.

Bi informazio nagusi hartu ditugu inkestatik, biak ere unibertsalizazio-helburuari lotuak: zenbat dakien EAEko populazioak prestazioari buruz, eta horren erabilera maila (gaur egun eta iraganean).

Lehenbiziko datu azpimarragarria da EAEko familietatik % 40k baino gehiagok duela Oinarrizko Errentaren berri.

| T 25. **Oinarrizko Errentaren gaineko ezagutza** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Bai** | 2.137 | 43,79 |
| **Ez** | 2.743 | 56,21 |
| **Guztira** | 4.880 | 100,00 |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Lagin horretatik, % 5ek bakarrik jasotzen du edo jaso izan du noizbait. Bat dator datu hori 2007ko errenta-hartzaileen kopuruarekin (32.000, gutxi asko), hots, 787.000 familiaren % 4a (Eustat, 2006).

Oinarrizko Errentaren berri dutenetatik, % 12,17k erabili du.

| T 26. **Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu Oinarrizko Errenta (horren berri badutenak)** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Bai** | 260 | 12,17 |
| **Ez** | 1.877 | 87,83 |
| **Guztira** | 2.137 | 100,00 |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

**2008ko Familia Inkestaren ZEHAZTAPENAK**

1.- Familiak: Sendi baten etxean elkarrekin bizi direnak.

2.- Familia unitateak: elkarrekin ahaidetasun-loturak dituzten pertsonak, etxe edo familia berean bizi direnak.

- Beraz, ez dago nahitaezko loturarik etxearen eta familia unitatearen artean.
- Etxe batzuetan, elkarrekin ahaidetasunik ez duten pertsonak bakarrik bizi dira.
- Etxe batzuetan, besteekin ahaidetasunik gabeko pertsonaren bat (etxeko zerbitzaria, apopiloa, maizterra...) dagoen familia unitatea dugu.
- Etxe batzuetan familia unitate bat baino gehiago daude.

3.- Familia unitate nagusia: Etxe bateko erreferentziazko pertsonaren familia unitatea jotzen da beti familia unitate nagusitzat.

- Etxearen jabe edo jabekide den pertsona, alokairu-kontratua izenpetu duena edo etxearen erabilera laga zaiona hartzen da familiako erreferentziazko pertsonatzat.
- Familia unitate batzuk (bakarrik bizi direnenak, edo ahaidetasunik gabeko pertsonekin bizi diren erreferentziazko pertsonenak) pertsona bakarrekoak izan ohi dira.

4.- Familia-gunea: ezkontza- edo ahaidetasun-harremanak lotzen dituen pertsonek soilik osatzen dute familia-gunea; beraz, bikoteak eta etxe berean bizi diren seme-alabek osatzen dute, soilik, familia-gunea.

- Pertsona bat ezin da izan, aldi berean, familia-gune bat baino gehiagokoa; hortaz, jatorrizko gunetik atera egiten da ezkontza-harremanik edo antzekorik hastean, edo guraso izatean.

Horregatik, bada, badaude:

- Inongo familia-gunerik gabeko etxeak: familia ez diren guztiak, eta familia diren batzuk ere,
- Gune bakarrekoak,
- Zenbait familia-gune dituzten etxeak, eta
- Familia-gune bat, edo gehiago, dituzten etxeak, baina erreferentziazko pertsona haietako batekoa ez dutenak.

Arau gisara, etxeko erreferentziazko pertsonarena jotzen dugu familia-gune nagusi. Erreferentziazko pertsona ez bada etxeko inongo gunetako kide eta gune bakarra baldin badago, horixe hartzen da nagusitzat; bat baino gehiago badaude, pertsona nagusiarekin ahaidetasun-maila hurbilenekoa duena.

Oinarrizko Errentari buruzko ezagutza maila familia unitatearen motaren arabera aztertuta, ikusten da euren mendeko seme-alabak dituzten familiek eta guraso bakarrekoek ezagutzen dituztela gehien.

T 27. **Oinarrizko Errentaren ezagutza maila, familia-gune nagusiaren arabera**

| Zer motatako familia-gune nagusia | Bai | Ez | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Pertsona bakarrekoa** | % 41,0 | % 59,0 | % 100 (865) |
| **Familia ez den pertsona anitzekoa** | % 41,0 | % 59,0 | % 100 (61) |
| **Gunerik gabeko familia** | % 27,7 | % 72,3 | % 100 (83) |
| **Guraso izan aurreko ezkontideak** | % 46,0 | % 54,0 | % 100 (309) |
| **Euren mendeko seme-alabak dituzten gurasoak** | % 49,4 | % 50,6 | % 100 (1.486) |
| **Mendeko ez dituzten seme-alaben gurasoak** | % 40,5 | % 59,5 | % 100 (511) |
| **Guraso diren ezkontideak** | % 38,9 | % 61,1 | % 100 (1.006) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, euren mendeko seme-alabekin** | % 50,0 | % 50,0 | % 100 (186) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, mendeko ez dituzten seme-alabekin** | % 45,9 | % 54,1 | % 100 (268) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko seme-alabekin** | % 60,0 | % 40,0 | % 100 (10) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko ez diren seme-alabekin** | % 50,0 | % 50,0 | % 100 (4) |
| **Gune anitzekoa** | % 39,6 | % 60,4 | % 100 (91) |
| **Guztira** | % 43,8 | % 56,2 | % 100 (4.880) |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Alabaina, Errenta erabiltzen dutenetatik, guraso bakarrekoak edo ezkonduz gerokoak dira ugarienak.

T 28. **Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu Oinarrizko Errenta? (horren berri badutenak). Familia-gune nagusiaren motaren arabera**

| Zer motatako familia-gune nagusia | Bai | Ez | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Pertsona bakarrekoa** | % 20,3 | % 79,7 | % 100 (355) |
| **Familia ez den pertsona anitzekoa** | % 20,0 | % 80,0 | % 100 (25) |
| **Gunerik gabeko familia** | % 17,4 | % 82,6 | % 100 (23) |
| **Guraso izan aurreko ezkontideak** | % 7,7 | % 92,3 | % 100 (143) |
| **Euren mendeko seme-alabak dituzten gurasoak** | % 10,5 | % 89,5 | % 100 (743) |
| **Mendeko ez dituzten seme-alaben gurasoak** | % 4,8 | % 95,2 | % 100 (210) |
| **Guraso diren ezkontideak** | % 4,2 | % 95,8 | % 100 (404) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, euren mendeko seme-alabekin** | % 46,4 | % 53,6 | % 100 (97) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, mendeko ez dituzten seme-alabekin** | % 11,4 | % 88,6 | % 100 (132) |

T 28. **Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu Oinarrizko Errenta? (horren berri badutenak). Familia-gune nagusiaren motaren arabera**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko seme-alabekin** | % 50,0 | % 50,0 | % 100 (6) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko ez diren seme-alabekin** | % 100,0 | % 0,0 | % 100 (2) |
| **Gune anitzekoa** | % 50,0 | % 50,0 | % 100 (36) |
| **Guztira** | % 12,2 | % 87,8 | % 100 (2.137) |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

### 1.3.2. Gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta espezializatzea

| 21. jarduera | *Etxebizitza Prestazio Osagarria ezartzea eta eskubide bihurtzea, aldian behin etxearen alokairu-gastuak edo interesenak edo etxea nahiz ohiko bizilekua erosteko eskatutako kredituen amortizazioak ordaintzeko gastuak aurkezten eta egiaztatzen dituzten pertsonentzat.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ● ●

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, zenbait berrikuntza dakartza. Horietako bat da etxebizitza-prestazio osagarria, premia larrienean daudenei etxea ordaintzen laguntzeko sortua.

Orain arte gizarte-larrialdietarako laguntzek estaltzen zituzten premiak estaltzea du xede prestazio honek, alde oso nabarmen batekin: orain, eskubide bihurtu da.

Bilboko Udalaren iritziz, prestazioaren helburua egokia izanik ere, zaila gerta daiteke haren kudeatzea, estatu espainiarreko beste araudi bati gainjartzen eta, ondorioz, gogotik igoarazten dituelako kudeaketa-baliabideak; horrez gain, nora jo ez dakitela uzten omen dute herritarrak, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei asko areagotzen omen die administrazio-lana, esku-hartze sozialaren kaltetan. Beraz, nahitaezko jotzen da dirulaguntzen esleipena sinpleago bihurtzea, izapideak azkarrago egitea, prozesuak arrazionalizatzea, espedienteen kudeaketa eta izapidetzea administrazio bakar batek egitea, eta, azken batean, diru-sarrerak bermatzeko sistema koherente, bateratu eta integrala —gizarte-zerbitzuen sarean zertan egonik ez duena— sortzea.

| 22. jarduera | *GLLen jatorrizko izaera (laguntzazkoa eta behin-behinekoa) sendotzea, betiere laguntza horien bidez ordaintzen diren edukien izaera egokitzeari kalterik egin gabe, prestazioak finantzatzeko behar hainbat baliabide emanez programa horiei.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak

cumplimiento 2008 ● ● ●

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzekoak, ohiz kanpoko izaera itzultzen die gizarte-larrialdietarako laguntzei, etxebizitza-prestazio osagarria sartzearekin.

Araudia aldatu aurretik EAEko udaletan GLLen egoera zertan zen azalduko dugu hemen, labur. Aldaketa premiazkoa zela erakusten digu laburpen honek, eta hari buruzko zenbait iritzi ere ageri ditu.

EAEko gizarte-zerbitzuetako arduradunek zioten legez, aldian behingo laguntza arruntak bihurtuak ziren, *de facto*, GLLak. Etxebizitza edo bizileku baten alokairua edo kredituen interesak nahiz amortizazioak ordaintzeko gastuei dagokie, alde

handiagatik, kostu handieneko kontzeptua. Gizarte-zerbitzuen % 80 baino gehiagoan, gastu horiek jaten dituzte gizarte-larrialdietarako laguntzen erdiak baino gehiago; gizarte-zerbitzuen heren batean, berriz, % 75 baino gehiago.

T 29. **Gastu-portzentajea, GLLen kontzeptuen arabera**

| GLLen aurrekontuaren %, OGZko | Etxebizitza edo ostatua | Etxebizitzaren mantentzea | Altzariak eta etxetresna elektrikoak | Egokitzapenak, konponketak | Lehen mailako premiak | Aldez aurreko zorrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **% 25etik behera** | 9,5 | 76,2 | 100,0 | 93,8 | 88,9 | 91,7 |
| **% 25 eta % 49 bitartean** | 9,5 | 19,0 | 0,0 | 6,3 | 5,6 | 8,3 |
| **% 50 eta % 74 bitartean** | 47,6 | 4,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **% 75etik gora** | 33,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 5,6 | 0,0 |
| **Guztira** | 100,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek emandako informazioen arabera, 7.785.572 € eman zituzten udalek eta mankomunitateek, 2007an, GLLetako gastuak ordaintzeko. 2008ko urriaren 31 arte, berriz, 4.012.917 € zen zenbatekoa.

2007an eta 2008an (urriaren 31 arte), estali gabe geratu ziren GLLen eskari kopurua 730ekoa izan zen, kalkuluen arabera, eta horiek estaltzeko 7.090.027 € beharko lirateke, kalkulu berek dioskutenez. Laguntza-gasturik handiena eragiten duen kontzeptua etxebizitza edo ostatuena izan arren, estali gabeko eskaririk handiena ere kontzeptu horrek du: etxebizitza- edo ostatu-kontzeptuari dagokio estali gabeko eskaria asetzeko beharko litzatekeen zenbatekoaren % 75.

T 30. **2007an eta 2008an estali gabe geratutako GLL eskarien kalkulua**

| LLren kontzeptua | Kopurua | Zenbatekoa | Zenbatekoaren portzentajea |
|---|---|---|---|
| **Etxebizitza edo ostatua** | 318 | 5.201.043€ | % 75,3 |
| **Etxebizitzaren mantentzea** | 129 | 1.507.390€ | % 21,8 |
| **Altzariak eta etxetresna elektrikoak** | 5 | 13.910€ | % 0,2 |
| **Egokitzapenak, konponketak** | 5 | 68.325€ | % 1,0 |
| **Lehen mailako premiak** | 36 | 64.814€ | % 0,9 |
| **Aldez aurreko zorrak** | 12 | 47.138€ | % 0,7 |
| **Guztira** | 505 | 6.902.620€ | % 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Udal edo mankomunitate gutxitan izan ohi da aski Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-partida Oinarrizko Errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen eskatzaileak artatzeko, eta, gehienetan, euren aurrekontuekin osatu behar izaten dituzte.

Batzuetan, Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zenbatekoak murriztu egiten dituzte udal eta mankomunitateek, edo kontzeptuen arteko lehentasunak finkatzen dituzte. Gehienetan, etxebizitzatarako laguntzek (amortizazioa, alokairua edo mantentze-lanak ordaintzekoak) izaten dute lehentasuna, baina, batzuetan, ez dira ematen eskatutako laguntzak, aurrekontu-estaldurarik ez dutelako.

Herri batzuetan, bestalde, gertatu ohi da ez dutela baliabiderik laguntza horietatik kanpoko gastuei ekiteko; horrenbestez, aurreko urteko datuen araberako aurrekontua egiten dute urte-hasieran, edo, dirua agortzean, itxarote-zerrendak egiten dituzte.
Araban, Legeak agintzen duenaren arabera aplikatzen du GOFEk gizarteratzeko Oinarrizko errenta 2008ko uztailaz geroztik, GLLak ohiz kanpoko premietarako bakarrik erabil daitezen. Positiboa da horren balorazioa, hobetu egiten baitu lehengo egoera eta murriztu laguntza eskuratzeko adina, baina zailtasun gehiago atzematen da segimenduari dagokionez.

Beraz, positiboa deritze gizarte-zerbitzuei araudi berriak Oinarrizko Errentaren osagarri jotzea etxebizitzari dagozkion gizarte-larrialdietarako laguntzak. Alabaina, etxebizitzen mantentze-lanak egiteko laguntzak ere Oinarrizko Errentan sartu behar liratekeela deritzote. Araudia aldatu beharra dagoela uste dute, prestazioen hasierako helburuak ez baita egungo berak: izan ere, nolabaiteko jarraitutasunarekin ematen zaie laguntza zenbait kolektibori, larrialdietan eman beharrean, eta kroniko bihurtu dira.

Ongi deritzote, halaber, gizarteratze-laguntzak kudeatzeko EAEko gizarteratze-sistema berria (gizarte- eta enplegu-zerbitzuen osagarria) sortu izanari. Izapideak erraztu eta bizkortu egin behar lirateke, dena den, lan administratibo-burokratikoa areagotu egiten baita. Horixe da, hain justu ere, udal gehienek egozten dioten akatsik nagusiena.

| 23. jarduera | *Gizarteratze-prozesu puruak prozesu mistoetatik edo babes sozialeko beste batzuetatik bereiztea, eta azken horietarako diru-sarrera osagarrien mekanismoak ezartzea, kudeaketa automatizatuagoa, gardenagoa eta arinagoa bermatzeko.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ●

Berriro ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, estaltzen du jarduera hori, gizarteratze-prozesu puruak bereizi egiten baititu prozesu mistoetatik edo babes sozialekoetatik. Horretarako, bi modalitatetan bereizten da diru-sarrerak bermatzeko errenta: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta, batetik, eta lan-errentak osatzeko errenta, bestetik.

Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta.

- Lan-errentatik datozen diru-baliabide propiorik ez duten eta hileko diru-sarreren zenbatekoa Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekora iristen ez zaien pertsona eta bizikidetza unitateentzat.
- Gizarteratze-hitzarmen baten araberako gizarteratze- eta/edo lanbideratze-laguntza espezifikoak gehitu behar zaizkio prestazio horri, baldin eta dagokion gizarte-zerbitzuak ez badu aurkakorik ebazten, premien diagnostikoa egin eta gero.
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa izan behar du Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Oinarrizko Errentak bizikidetza unitatea osatzen duten pentsiodunek ez badute bizimodu duina eramateko adinako diru-sarrerarik eta baldintzarik, sarrera-maila horretara iristen ez direlako, eta une horretan lan-merkatuan txertatzeko moduan ez badaude.

Lan-errenten osagarria.

- Lan-errentak badituzten eta hileko diru-sarrerak Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Oinarrizko errentaren zenbatekora iristen ez zaizkienentzat.
- Prestazio honekin batera laguntza espezifikoak eman behar dira pertsona horien egoera laborala hobetzeko, enplegu-zerbitzuen bitartez, baita, gizarte-zerbitzuak egoki edo premiazko baderitzo, gizarteratzeko beste laguntza batzuk ere.

Kudeaketa automatizatuagoa, gardenagoa eta arinagoa egitearren, diru-sarrerak bermatzeko bi errenta modalitate sortu dira; hartara, argitu eta ordenatu egin dira orain arte oso sakabanaturik zeuden zenbait egoera.

*Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta 2008ko familia Inkesta.*

Jarduera gisara aurreikusia ez egon arren, Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailak egindako 2008ko Familia Inkestako datuak eransten ditugu, gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereizteko giltzarri baitira gizarte-larrialdietarako laguntzak.

Inkestatutako familietatik, herenak baino gehiagok dute gizarte-larrialdietarako laguntzen berri, Oinarrizko Errentaren berri dutenek baino askoz gutxiagok.

| T 31. **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen berri zenbatek duten** | | |
|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Bai** | 1.739 | 35,64 |
| **Ez** | 3.141 | 64,36 |
| **Guztira** | 4.880 | 100,00 |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Laguntzen berri duten familietatik, % 10ek erabiltzen ditu edo erabili izan ditu noizbait.

| T 32. **Erabiltzen duzu edo erabili izan duzu GLLrik? (horien berri dutenek)** | | |
|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Bai** | 172 | 9,89 |
| **Ez** | 1.567 | 90,11 |
| **Guztira** | 1.739 | 100,00 |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Oinarrizko Errentaren balorazioetan bezala, inkestatutako herritarren bi herenek uste dute mugatuak edo txikiegiak direla laguntzak. Laguntza-erabiltzaileen % 29,65ek bakarrik dio nahikoa direla.

| T 33. **Zenbatekoaren balorazioa (erabiltzen dutenek)** | | |
|---|---|---|
| | Maiztasuna | Portzentajea |
| **Nahikoa** | 51 | 29,65 |
| **Mugatua** | 57 | 33,14 |
| **Txikiegia** | 64 | 37,21 |
| **Guztira** | 172 | 100,00 |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen berri gutxien duten familia motak gunerik gabekoak dira, hots, beren diru-sarrerak badituzten pertsona independenteak eta, itxuraz behintzat, kargarik gabeak. Segur aski, datu horren zergatiaren argigarri izango da familia mota horietako gizon-emakumeen adina.

T 34. **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen ezagutza maila, familia-gune nagusiaren motaren arabera**

| Familia-gune nagusiaren mota | Bai | Ez | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Pertsona bakarrekoa** | % 33,4 | % 66,6 | % 100 (865) |
| **Familia ez den pertsona anitzekoa** | % 34,4 | % 65,6 | % 100 (61) |
| **Gunerik gabeko familia** | % 16,9 | % 83,1 | % 100 (83) |
| **Guraso izan aurreko ezkontideak** | % 37,2 | % 62,8 | % 100 (309) |
| **Euren mendeko seme-alabak dituzten gurasoak** | % 42,2 | % 57,8 | % 100 (1.486) |
| **Mendeko ez dituzten seme-alaben gurasoak** | % 30,5 | % 69,5 | % 100 (511) |
| **Guraso diren ezkontideak** | % 29,9 | % 70,1 | % 100 (1.006) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, euren mendeko seme-alabekin** | % 43,0 | % 57,0 | % 100 (186) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, mendeko ez dituzten seme-alabekin** | % 39,6 | % 60,4 | % 100 (268) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko seme-alabekin** | % 40,0 | % 60,0 | % 100 (10) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko ez diren seme-alabekin** | % 25,0 | % 75,0 | % 100 (4) |
| **Gune anitzekoa** | % 27,5 | % 72,5 | % 100 (91) |
| **Guztira** | % 35,6 | % 64,4 | % 100 (4.880) |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

Guraso bakarreko familiek erabiltzen dituzte gehien gizarte-larrialdietarako laguntzak.

| T 35. **Erabiltzen duzu, edo erabili izan duzu GLLrik? (horien berri dutenek) Familia-gune nagusiaren motaren arabera** | | | |
|---|---|---|---|
| **Pertsona bakarrekoa** | % 16,3 | % 83,7 | % 100 (289) |
| **Familia ez den pertsona anitzekoa** | % 14,3 | % 85,7 | % 100 (21) |
| **Gunerik gabeko familia** | % 28,6 | % 71,4 | % 100 (14) |
| **Guraso izan aurreko ezkontideak** | % 7,0 | % 93,0 | 1% 100 (15) |
| **Euren mendeko seme-alabak dituzten gurasoak** | % 8,0 | % 92,0 | % 100 (627) |
| **Mendeko ez dituzten seme-alaben gurasoak** | % 1,9 | % 98,1 | % 100 (156) |
| **Guraso diren ezkontideak** | % 1,7 | % 98,3 | % 100 (301) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, euren mendeko seme-alabekin** | % 32,5 | % 67,5 | % 100 (80) |
| **Guraso izan ondorengo ezkontideak, mendeko ez dituzten seme-alabekin** | % 10,4 | % 89,6 | % 100 (106) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko seme-alabekin** | % 75,0 | % 25,0 | % 100 (4) |
| **Guraso bakarrekoa, haren mendeko ez diren seme-alabekin** | % 100,0 | % 0,0 | % 100 (1) |
| **Gune anitzekoa** | % 44,0 | % 56,0 | % 100 (25) |
| **Guztira** | % 9,9 | % 90,1 | % 100 (1.739) |

Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Saila. 2008ko Familia Inkesta.

### 1.3.3. EAEko hiru lurralde historikoetako diru-sarrerak bermatzeko prestazioak uztartzea eta bateratzea

2008an onartutako bi lege nagusietan, Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemen diseinu, planifikazio, gauzatze, sustatze eta koordinatzearen ardura nagusia hiru Herrialde Historikoetan, baita beste biekin hain estu lotuta dagoen gizarte-zerbitzuen sistemarena ere.

T 36. **Eusko Jaurlaritzaren eskumenak**

| | Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea | Gizarte Zerbitzuen Legea |
|---|---|---|
| Diseinua | Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzeko behar hainbat baliabide eta bitarteko jartzea, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege Aurreproiektuan urtero sail bakoitzak txertatu beharreko programen bitartez.<br><br>EAEko gainerako administrazioekin elkarlanean eta haiekin koordinatuta, diagnostikoko eta esku-hartze planifikatu eta pertsonalizatuko bitarteko teknikoak diseinatu eta aplikatzea. | Gizarte-zerbitzuak erregulatzea, zentro eta zerbitzuen baimenak, erregistroa, itunak, homologazioak, ikuskapenak eta zerbitzuak arautuz, baita haiek baimentzeko eta funtzionatzeko behar diren funtzionamendu-, material- eta langile-betekizunak ere.<br><br>EAEko Gizarte-zerbitzuen Prestazio eta Zerbitzu Zorroa prestatu eta onartzea.<br><br>Doakoak ez diren prestazio eta zerbitzuetan erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa arautzeko irizpide orokorrak finkatzea.<br><br>Euskal Gizarte Zerbitzuen Sisteman parte hartzeko baldintzak betetzen diren zehazteko bitarteko teknikoak finkatu eta onartzea. |
| Planifikazioa | Dirulaguntzei eta Lege honetan aurreikusitako gainerako gizarteratze-tresnei dagozkien estatistikak planifikatu eta prestatzea, eta horiek eratu eta mantentzea, estatistikei buruzko araudiari jarraiki eta EAEko gainerako administrazioekin elkarlanean eta haiekin koordinatuta. | Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen planifikazio orokorra, bai Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoari bai eratzen diren sail bakoitzeko planei eta plan bereziei dagokienez, lehentasunak finkatu eta Lege honetan araututako eskubideak benetan gauzatzeko behar diren zerbitzu eta prestazioen hornikuntzan maila homogeneoak bermatzeko EAE osoan, Foru Aldundien eta Udalen gainean duen koordinazio-eskumenari jarraiki. |
| Gauzatzea | Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzan txertatutako programak, prestazioak eta zerbitzuak (Lege honetan eta bere garapen-arauetan txertatuak) gauzatzea. | Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzako prestazio eta zerbitzuen hornikuntza: telelaguntza-zerbitzua, 22. artikuluko 1.7 atalean arautua; informazio- eta orientazio-zerbitzuak, 22. artikuluko 2.6.1 atalean arautuak; familia-elkartzeari buruzko atala, ebazpen judizial bidezko kasuak artatzeko zerbitzuari dagokionez, 22. artikuluko 2.6.3.2 atalean arautua; familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala, 22. artikuluko 2.6.3.3 atalean arautua, betiere 38.3 eta 38.4 artikuluek diotenaren arabera gerora egin daitezkeen zuzeneko ekintzen kalterik gabe. |

| T 36. **Eusko Jaurlaritzaren eskumenak** | | |
|---|---|---|
| **Sustapena** | Gizarteratzeko jarduera eta esku-hartze komunitarioak sustatu, prestatu eta garatzea. | Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea sustatu eta bultzatzea, eta herritarren partaidetza, elkarteak eta boluntarioen jarduera sustatzea, baita erabiltzaileen eta profesionalen partaidetza ere gizarte-zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan, betiere saiatuz gizonen eta EMAKUMEZKOEN partaidetza orekatua bultzatzen. |
| **Koordinazioa** | Sailen arteko Gizarteratzeko Batzordea martxan jartzea eta haren lanak bultzatzea.<br><br>Sailen arteko Gizarteratze Batzordea eratzea. | Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren koordinazio orokorra, EAE osoan bermatzeko prestazio eta zerbitzuen garapen orekatua, hartara haiek eskuratzeko homogeneotasuna bermatzeko, eta gizarte-zerbitzuen eta sistema eta politika publikoen arteko koordinazio-mekanismoak jartzea, gizarte-ongizatean zuzeneko eragina dutela —batez ere osasun-, hezkuntza-, etxebizitza- eta enplegu-zerbitzuetan—, baita diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzeko ere, beren eskumeneko lurralde-eremuan.<br><br>Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Zerbitzua diseinatu eta mantentzea, EAEko gainerako administrazio publikoekiko koordinazio-eskumenei jarraiki eta arau bidez finkatzen den bezala, Zerbitzuaren alderdi nagusiei buruzko ezagutza eguneratua izateko eta gizarte-zerbitzuen alorrean planifikazio-koherentzia eta -egokitasuna lortzeko.<br><br>Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sortu, zuzendu, antolatu eta mantentzea, Lege honek esleitzen dizkion betekizunak gara ditzan. |

| *24. jarduera* | *Hiru Herrialde Historikoetako Oinarrizko Errenta Sistema bateratzea, eta guztietan sendotzea administrazioaren ikuskatze-tresnak.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ● ●

Eusko Legebiltzarrak, 2005eko azaroaren 23ko saioan, ebatzi zuen “Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela Oinarrizko Errenta, eta, beraz, hari dagokiola hura finantzatzea, kasu guztietan, baita beste erakunde batzuek diru-sarrera osagarririk ematea saihestea ere, EAEn prestazio hori jasotzeko eskubidea duten herritarren artean tratu-desberdintasunak eragiten baitituzte”.

Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko errenta arautzen duen abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzekoak, 3. artikuluan ditu jasoak bere oinarrizko printzipioak; besteak beste, hiru Herrialde Historikoen arteko harmonizazioa.

- Berdintasuna eta ekitatea zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eta haien aplikazioan. Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sisteman, euskal administrazio publikoek bermatu egin behar dute dirulaguntzak jasotzeko eta gizarteratzeko zein lanbideratzeko tresnak eskuratzeko eskubidea, ekitate-eskubideari jarraiki, inongo bereizketarik

egin gabe egoera pertsonal edo sozialen arabera, eta era homogeneoan autonomia-erkidego osoan. Udalek edo Herrialde Historikoek ez dute eskumenik zerbitzu eta prestazioen esleipenean eta aplikazioan inongo bereizketarik egiteko, ezta Lege honetan araututako prestazioen diru-osagarriak arautu edo aplikatzekorik ere, betiere egoerarik ahulenean daudenen aldeko ekintza positiboak aplikatzeari kalterik eragin gabe.

Hortaz, bat-egiteak badu jada lege-indarrik, eta hasiak dira mikrosimulazio-ereduak zerga-itzulpenen bitartez bideratzeko Oinarrizko Errenta, 69. jardueran ikusiko dugunez.

Bilboko Udalak positibotzat jo du jarduera hori, nahiz eta uste prestazio ekonomikoen sistemaren bat-egitea kudeaketa administratiboko unitate espezifiko bateratu eta gutxi asko dezentralizatuetara zabaldu behar litzatekeela, oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik aparte egin dezaten espedienteen izapidetzea.

| 25. jarduera | *EAEko hiru Herrialdeetan harmonizatzea gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako laguntzak eta laguntza bereziak.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze Batzorde Iraunkorra

2008ko betetze maila ● ● ○

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru-sarrerak Bermatu eta Gizarteratzekoak, dirulaguntzak ere arautzen ditu, tartean direla gizarte-larrialdietarako laguntzak. Larrialdietarako laguntzen printzipioak bat datoz diru-sarreretako errentarenarekin; beraz, haien harmonizazioa bultzatu behar da hiru Herrialdeetan, haiek jasotzeko berdintasunaren eta ekitatearen bitartez.

Alabaina, Aldundiek badituzte zenbait laguntza premia-egoeran izan arren GLLak eta Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubiderik ez dutenentzat.

Araban, hiru prestaziok estaltzen dituzte beharrizan horiek.

- **Gutxieneko Bermeko Laguntza Prestazioa:** dirulaguntza indibiduala da, besterenezina eta finalista, eta Kotizazio Gabeko Pentsioa edo Oinarrizko Errenta jasotzen dutenei ematen zaie, dirulaguntza gisara, baldin eta haien urteko diru-sarrerak, guztira, ez badira iristen Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren parera eta ez badiote uko egin jasotzeko eskubidea duten inongo pentsio edo osagarriri.
  - ↳ 2008an, 1.299.998,80 € erabili ziren KGPen osagarri, eta 786.535,13 € OEren osagarri.
  - ↳ Arabako Foru Aldundiak araudi hau garatu du: abenduaren 13ko Diputatu Kontseiluko 78/2006 Foru Dekretua, Arabako Herrialde Historikoan Gutxieneko Bermeko Laguntza Prestazioa (GBLP) erregulatzeko araudia onartzen duena.
- **Bizi Baldintzak eta Kalitatea Hobetzeko Laguntza Prestazioa:** dirulaguntza indibiduala da, eta dirulaguntza gisara ematen zaie kotizaziopeko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa dutenei.
  - ↳ 2008an, 226 prestazio banatu ziren, horietatik 106 2006ari zegozkionak, 30.869,34 €-ko gastuarekin; beste 120 2007ari zegozkion, 31.610,00 €-ko gastuarekin.

- 2006an eta/edo 2007an Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino errenta txikiagoa jaso zuten pertsona fisikoen bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko Laguntza Prestazioaren Deialdi Publikoa egin du Arabako Foru Aldundiak.

- **Beharrizan-egoeran daudenentzako Laguntza Bereziak.** Dirulaguntzak dira, aldizkakotasun jakinik gabeak, eta hauei ematen zaizkie: bizitzako beharrizan oinarrizkoak asetzeko diru-baliabiderik ez izan arren Oinarrizko Errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun (osorik edo partzialki) izateko eskubiderik ez dutenei, prestazio horiek jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztelako.
  - Programa horretan sartzen dira preso daudenentzako dirulaguntzak eta AFAren Adingabekoaren Kontseiluaren babespean egon eta adinez nagusi egin ondoren bolada batez dirulaguntza behar duten gazteentzakoak.
  - 2008an, 659 laguntza banatu ziren Beharrizan Egoeran daudenentzako Laguntza Programa Berezi honen bidez; horietatik, 147 BELBak ziren, eta beste 512 indarrean den araudia bete arren aurrekontu nahikorik ezagatik programa horren bidez laguntzarik jasotzerik izan ez zutenentzako laguntzak. Gastua 436.301,60 €-koa izan zen.

Bizkaiko Foru Aldundiak hiru laguntza mota banatzen ditu jarduera horren bidez.

- **Gizarteratzeko dirulaguntza indibidualak**. Gizarteratze-prozesuaren araberakoa izaten da laguntza, eta Oinarrizko Errentarekin bateragarria da. Helburua da ez diskriminatzea behar adina denbora erroldaturik ez daramatelako Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubiderik ez dutenak. Onuradunetako asko, errolda-baldintza bete arren, 23 urtez behekoak dira.
  - 545 onuradun, batez beste, hilean. Gastua, 1.288.748,00 €-koa.
- **Gizarteratzeko dirulaguntza familiarrak,** errolda-, adin- edo unitatearen eraketa-baldintzak ez betetzeagatik Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubiderik ez duten baliabiderik gabeko familientzat. Bateraezina da Oinarrizko Errentarekin, eta 12 hilabeterako (luzagarriak) ematen da, harik eta onuradunak Oinarrizko errenta jasotzeko baldintzak betetzen dituen arte.
  - 658 familia unitate onuradun hilean, batez beste. Gastua, 2.423.797,00 €-koa.
- **Gizarteratzeko zentroetara sartzeko dirulaguntzak:** lankidetza-itunik ez dagoen zentroetan bertan ematen den laguntza.
  - 2 lagun. Gastua, 83.400,00 €

Ez dugu aurkitu jarduera honen bidez harmonizatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko prestaziorik, datorren urtean martxan jartzekoa bada ere beharrizan horietarako prestazio bat. Egun, zerbitzu juridikoak berrikusten ari dira proposamena, eta 2009ko lehen hiruhilekoan zen martxan jartzekoa.

## 1.4. BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMAK GEHITU ETA HOBETZEA, *ETA PERTSONA HORIEK LAN MERKATUAN SARTU ETA IRAUTEKO NEURRIAK SUSTATZEA*

### 1.4.1. Enplegu-politika aktiboak indartu eta bultzatzea, hain zuzen baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat orain arte indarrean jarritakoak

| 26. jarduera | *Gizarteratze-enpresen garapenerako emandako laguntza sendotzea.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze-enpresak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ●

Eusko Jaurlaritzak onartutako 182/2008 Decretuak, azaroaren 11koak, gizarteratze-enpresen kalifikazioa arautu eta enpresa horietan sartzeko eta erregistratzeko prozesura ezarri zuen. Gizarteratze-enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legeari eta EAEko programaren errealitateari egokitzea zen Dekretuaren helburua.

EAEko gizarteratze-enpresen programari emandako laguntza sendotzeko asmoa 182/2008 Dekretuaren atal batzuetan islatzen da. Atal horien artean, programan sar daitezkeen pertsonen definizioa azpimarra daiteke: Gizarte Zerbitzu Publiko eskudunek hala egiaztatuta, gizartean baztertuta, langabezian eta Enplegu Zerbitzu Publikoetan izena emanda eta gizarteratzeko hitzarmena sinatu dutenak dira. Honako gizarte-talde hauek izaten dira:

- a) Oinarrizko Errentaren jasotzaileak eta errenta horren onuradunen bizikidetza unitateko kideak.
- b) Oinarrizko errenta jasotzerik ez dutenak, ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik: eskatutakoa baino denbora laburragoa daramatelako bizitzen edo erroldan izena emanda, bizikidetza unitatea eratu ez dutelako edo errenta jasotzeko legez ezarritako gehienezko denbora agortu dutelako.
- c) Adin txikikoak babesteko erakundeetatik datozen hamazortzi eta hogeita hamar urte bitarteko gazteak.
- d) Droga-mendekotasunak edo bestelako adikzio-arazoak dituztenak, gizarteratzeko edo errehabilitazio-prozesuan badaude.
- e) Espetxean daudenak, haien espetxe-egoerak lan egiteko aukera ematen badie eta haien lan-egoera arauzko lan-harremanen eremuan sartzen ez bada, baita baldintzapeko askatasunean daudenak eta espetxeratu ohiak ere.
- f) Adin txikiko barneratuak, haien egoerak lan egiteko aukera ematen badie eta haien lan-egoera lan-harreman berezien eremuan sartzen ez bada, baita zaintzapeko askatasunean eta barneratu ohiak ere.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimendutako egoitza alternatiboetatik datozenak.

- h) Euskal Autonomia Erkidegoko lan aurretiko orientazio- eta prestakuntza-programetatik edo oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik datozenak, enplegatzeko eta gizarteratzeko hitzarmen bidez.

Gizarteratze-enpresei laguntzeko programaren 2008ko deialdiari esker emandako dirulaguntzak ikus daitezke ondoko koadroan. 2008-2011 bitarteko urte anitzeko programa da.

T 37. **Gizarteratze- enpresak sortzeko eta bultzatzeko 2008an emandako dirulaguntzak**

| Empresa | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Alkar Biziz** | 51.372,18 | 45.234,00 | 45.234,00 | 7.713,62 | 149.553,80 |
| **Amaya Digital, S.L.** | 64.249,19 | 63.260,00 | 63.260,00 | 10.013,55 | 200.782,74 |
| **Amuitz Berrikuntza S.L.U.** | 2.952,78 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.952,78 |
| **Amuitz Margotu Berriak** | 15.746,07 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 15.746,07 |
| **Berezi** | 55.658,40 | 79.690,00 | 79.690,00 | 54.548,80 | 269.587,20 |
| **Berziklatu** | 123.963,69 | 44.235,00 | 44.235,00 | 9.270,50 | 221.704,19 |
| **Bidebarri** | 37.944,66 | 9.000,00 | 9.000,00 | 0,00 | 55.944,66 |
| **Bilekomen** | 59.396,84 | 36.252,00 | 36.252,00 | 15.465,65 | 147.366,49 |
| **Eficient** | 155.065,77 | 25.830,00 | 25.830,00 | 22.114,73 | 228.840,50 |
| **Ekiber** | 128.691,54 | 77.845,00 | 77.845,00 | 18.153,46 | 302.535,00 |
| **Ekorrepara** | 3.080,00 | 3.080,00 | 0,00 | 0,00 | 6.160,00 |
| **Elkar Proteo S. Coop. Iniciativa Social** | 18.250,80 | 8.324,30 | 8.324,30 | 3.507,22 | 38.406,62 |
| **Ema Com Justo** | 3.996,89 | 15.815,00 | 15.815,00 | 11.818,11 | 47.445,00 |
| **Emaus Bidasoa** | 78.697,21 | 48.675,00 | 48.675,00 | 0,00 | 176.047,21 |
| **Emaús Ezkerraldea. S.L.** | 44.647,59 | 27.202,00 | 27.202,00 | 10.554,41 | 109.606,00 |
| **Emaús Getxo Logística. S.L.** | 100.810,77 | 67.417,95 | 67.417,95 | 20.007,18 | 255.653,85 |
| **Erakus Goiztiri** | 38.767,38 | 87.900,00 | 87.900,00 | 49.132,62 | 263.700,00 |
| **Euskal Postalred S.L** | 28.634,69 | 36.836,25 | 36.836,25 | 17.901,56 | 120.208,75 |
| **Euskarri** | 47.790,84 | 50.016,25 | 50.016,25 | 7.025,41 | 154.848,75 |
| **Garbinguru, S.L.** | 15.595,46 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 15.595,46 |
| **Gizarline Telecomunicación Comunitaria S.L.** | 23.630,54 | 44.618,40 | 44.618,40 | 22.237,86 | 135.105,20 |
| **Goilurra** | 69.940,99 | 77.230,00 | 77.230,00 | 7.289,01 | 231.690,00 |
| **Ikatzbizi** | 2.012,80 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.012,80 |
| **Isla** | 228.758,43 | 189.780,00 | 189.780,00 | 65.070,36 | 673.388,79 |
| **Iturritek S.L** | 40.848,83 | 15.200,00 | 15.200,00 | 2.123,01 | 73.371,84 |
| **Izarza, S.L.** | 4.045,61 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 4.045,61 |
| **Jantziprest, S.L.U.** | 19.146,30 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 19.146,30 |
| **Kaia Lurko S.L.** | 76.797,39 | 61.440,15 | 61.440,15 | 26.642,76 | 226.320,45 |

| T 37. **Gizarteratze- enpresak sortzeko eta bultzatzeko 2008an emandako dirulaguntzak** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Keima Animazioa, S.L** | 27.592,05 | 14.650,00 | 14.650,00 | 3.807,95 | 60.700,00 |
| **Kide Emaus S.L.** | 86.788,81 | 49.145,75 | 49.145,75 | 34.356,94 | 219.437,25 |
| **Konfia** | 285.237,40 | 205.623,75 | 205.623,75 | 100.386,35 | 796.871,25 |
| **Kupelan Kentucky S.Coop** | 134.486,14 | 128.958,75 | 128.958,75 | 61.347,52 | 453.751,16 |
| **Kuttun** | 6.333,53 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 6.333,53 |
| **Liburki, S.L.L.** | 21.151,23 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 21.151,23 |
| **Medrano Ostalaritza, S.L.** | 4.335,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 4.335,00 |
| **Oarsotek** | 47.978,43 | 100.065,70 | 100.065,70 | 16.615,27 | 264.725,10 |
| **Or Konpon** | 2.898,07 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.898,07 |
| **Servicios de Hosteleria Rte. Bilbao, S.L** | 8.194,79 | 15.815,00 | 15.815,00 | 10.968,90 | 50.793,69 |
| **Sokaire Servicios de Limpieza, S.L.** | 53.053,14 | 43.616,90 | 43.616,90 | 0,00 | 140.286,94 |
| **Tinko Garbiketak, S.L.** | 77.914,03 | 94.948,70 | 94.948,70 | 25.634,67 | 293.446,10 |
| **Txukunberri Garbiketak S.L.** | 37.616,71 | 28.675,00 | 28.675,00 | 5.754,05 | 100.720,76 |
| **Zabaltegi Judimendi, S.L.** | 107.561,96 | 93.660,00 | 93.660,00 | 28.045,68 | 322.927,64 |
| **Zurtek, S.L.** | 102.605,89 | 60.800,00 | 60.800,00 | 19.444,11 | 243.650,00 |
| **Guztira** | 2.544.240,82 | 1.950.840,85 | 1.947.760,85 | 686.951,26 | 7.129.793,78 |

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, 2009.

Ebaluazioa egitean, programa indartzeko neurrien betetze maila adierazteaz gain, programaren balorazioa ere eskatu zaie eragileei.

Programaren azterketa laburraren bidez ateratako konklusio nagusien artean, erabiltzaileak balidabide horretara bideratzeko ardura duten oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta gizarteratze-enpresen arteko koordinazio falta azpimarra dezakegu. Hala ere, kasu askotan programa behar bezala ez ezagutzea da koordinazio faltaren arrazoia. Izan ere, ebaluazioan parte hartu duten gizarte-zerbitzuen % 20,7k soilik ezagutzen dute goitik behera programa.

| T 38. **Gizarteratze-enpresen programaren ezagutza** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Oso ondo** | 6 | 20,7 |
| **Nahiko ondo** | 12 | 41,4 |
| **Pixka bat** | 9 | 31,0 |
| **Gutxi edo ezer ez** | 1 | 3,4 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Ildo beretik, gizarte-zerbitzu guztiek ere ez dute programa erabiltzen. Hala dagokionean, % 24,1ek soilik erabiltzen du programa beti edo ia beti.

| T 39. **Gizarteratze-enpresen programaren erabilera** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Beti edo ia beti** | 7 | 24,1 |
| **Maiz** | 6 | 20,7 |
| **Batzuetan** | 11 | 37,9 |
| **Inoiz ez edo ia inoiz ez** | 3 | 10,3 |
| **ED/EDE** | 2 | 6,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturrria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Eusko Jaurlaritzak gizarteratze-enpresei buruz egindako ebaluazioan programarem lorpenak eta mehatxuak azaleratu dira. Duela bi urte egindako ebaluazioan, eragile guztiek aho batez oso ondo baloratu zuten programa. Azken ebaluazioan, berriz, GKE parte-hartzaile batek adierazi duenez, “gizarteratze-enpresak baliabide garestiak eta emaitza urrikoak dira, eta gainera, ez dira behar bezala txertatzen laneratzeko ibilbideetan. Hortaz, haien erabilgarritasuna berriz planteatu beharko litzateke”. Beste erakunde batzuen iritziz, berriz, premiazkoa da programa indartzea, bai ikuspegi ekonomikotik bai legezko estalduraren, laguntza teknikoaren eta abarren aldetik.

| 27. jarduera | *Auzolan programari emandako laguntza sendotzea.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratzen Zuzendaritza
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ●

Auzolan programaren bidez, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei gizarte-erabilgarritasuneko enplegua eskuratzeko aukera ematen zaie, prestakuntza eta lan-jarduera bateratzen dituen prozesuaren bidez. Lana aldi baterako eta lanaldi laburreko kontratuen bidez eskaintzen zaie onuradunei.

Eusko Jaurlaritzak indartu egin du Auzolan programa Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 2008ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez. Aginduak 2008rako dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu zuen: 7.491.841 € guztira. FSE 2007-2013 Programa Operatiboaren esparruan, Europako Gizarte Funtsak zenbatekoaren % 50 finantzatuko du.

Programa aurrera eramateko erakunde homologatuak honako hauek dira:

- Agiantza Elkartea
- Erroak Elkartea
- Gaztaroa Elkartea
- Goiztiri Elkartea
- Zabaltzen Elkartea
- Ermuko Udala
- Vitoria-Gasteizko Udala
- Behargintza Durango
- Behargintza Txorierri
- Bidasoa Activa
- Bikumé, S.L.
- Centro de Cualificación Y Empleo, S.A.
- Daiteke
- Emaus Gizarte Fundazioa
- Emaus Kooperatiba Elkartea
- Donostiako Sustapen
- Fondo Formación Euskadi, S.L.L.
- Forem
- Forlan
- Fundacion Gokai
- Gardabera
- Hegala
- Inguralde
- Instituto Europeo para la Formación, S.L.
- Lanor Elkartea, S.L.
- Lantegi Batuak
- Oarsoaldea
- Ortzadar
- Sartu Alava
- Sortarazi
- Tekfor Taldea

Era berean, Auzolan programari egindako ebaluazioen (2002-2005, 2008) helburua programa hobetu eta sendotzea baino ez da. Programa hori gizarte-zerbitzu gehienek ezagutzen dute, gainera.

| T 40. **Auzolan programaren ezagutza** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Oso ondo** | 16 | 55,2 |
| **Nahiko ondo** | 8 | 27,6 |
| **Pixka bat** | 3 | 10,3 |
| **Ezer ez edo ia ezer ez** | 1 | 3,4 |
| **ED/EDE** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturrria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Hala dagokionean, gizarte-zerbitzuen erdiek beti edo ia beti erabiltzen dute Auzolan programa.

| T 41. **Auzolan programaren erabilera** | | |
|---|---|---|
| | **Maiztasuna** | **Portzentajea** |
| **Beti edo ia beti** | 14 | 48,3 |
| **Maiz** | 1 | 3,4 |
| **Batzuetan** | 8 | 27,6 |
| **Inoiz ez edo ia inoiz ez** | 4 | 13,8 |
| **ED/EDE** | 2 | 6,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturrria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

GKE batzuek adierazi dutenez, Auzolan programak positiboak eta onuragarriak dira baina, amaitzen direnean, parte-hartzaile batzuek lan-merkatuan sartu ezinik jarraitzen dute.

| 28. jarduera | *Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren, ezgaitasunaren eremuko elkarteen eta EAEko Enplegu Zentro Berezien arteko lankidetza-programak sustatzea, ohiko lan-merkatuan sartzen laguntzeko enplegu-programen garapenari arreta berezia jarriz.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Enplegu-zentro bereziak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ●

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lankidetza-hitzarmena sinatu du EHLABE Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Babestuko Erakundeen Elkartearekin. Hitzarmenaren zenbatekoa 450.000 € izan zen 2008an eta 70.000 € 2009an. Enplegu-zentro bereziek gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat kudeatutako programen erabiltzaileak 70 dira.

Neurria ontzat eman dute GKE batzuek eta, horiek azpimarratu dutenez, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako baliabideak eta baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako baliabideak bateratzea onuragarria da. Izan ere, pertsona horiek guztiak daude gizartean gai ez direla.

| 29. jarduera | *Enpresei emandako pizgarri ekonomikoen bidez, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzea sustatzea, kontratu egonkorra eta kalitatekoa eskainita.* |
|---|---|

- ✓ Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Tokiko enplegu-agentziak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ○

Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak enplegu-programetara bideratutako dirulaguntzen zenbatekoa 4.234.950 € izan da eta aurreikusitako pizgarrien bidez 955 lagun kontratatu dira.

Tokiko Garapen Agentzietan zaila da kalitateko kontratuen bidez lan-merkatuan sartzea sustatzeko jarduerak aurkitzea. Aurkitutako bat Getxeko agentziak bultzatutakoa da:

- Enplegu-Prestakuntzako 9 programa, ibilbide pertsonalizatuaz, orientazioaz eta tutorearen laguntza zuzenaz hornituak. 3 Helburuko programek familia eta lana bateratzeko bekak barne hartzen dituzte eta enpresetan praktikak egitea aurreikusita dago haietan guztietan. Guztira 74 parte-hartzaile daude. Bekak prestakuntza zein praktikak egiteko ematen dira. Halaber, kontratazioa sustatzeko dauden laguntzen berri ematen zaie enpresei.

### 1.4.2. Enplegua sortzeko programak sustatzea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden profil berezientzat

| 30. jarduera | *Prestakuntzako eta enpleguko, eta familia eta lana bateratzeko eta laguntzeko zerbitzu espezifikoak sortzeko programa funtzio anitzekoak jartzea martxan, baztertuta geratzeko arriskuan diren sektoreentzat: guraso bakarreko familiak, kalitate apaleko lana duten edo lanik gabe dauden gazte emantzipatuak etab.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Tokiko enplegu-agentziak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ○

Jarduera horren bitartez, Eusko Jaurlaritzatik programa espezifiko batzuk sortu nahi ziren bazterketa handia jasaten duten pertsonentzat. Bazterketa handiari aurre egiteko berariazko programa horiek ez dira erabat gauzatu, baina berdin jarraitu da laguntzen EAEn gizarteratze-arloan jarduerak egiteko programei.

T 42. **Gizarteratze-jardueretarako Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako dirulaguntzak.**

| Erakundea | Jarduera | Zenbatekoa | Pertsona onuradunak |
|---|---|---|---|
| ADSIS FUNDAZIOA | Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programa (GLIP). | 37.000,00 € | 16 |
| PEÑASCAL FUNDAZIOA | Gizarteratze-ibilbideetarako jarduera-plana. | 84.000,00 € | 150 |
| ETORKINTZA FUNDAZIOA | Oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko lankidetza gizarteratze-plan pertsonalizatuetan. | 15.000,00 € | 100 |
| GIZAKIA FUNDAZIOA | Drogaren mendeko pertsonentzako gizarteratze-ibilbideak. | 9.000,00 € | 100 |
| EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA | Prestakuntza-zerbitzua. | 37.000,00 € | 55 |
| EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA | Jarrerazko, gizarteko eta laneko gaitasunetan eta trebetasunetan trebatzeko tailerra. | 39.000,00 € | 56 |
| EMAUS BILBO KOOP. ELK. | Activa-t, lanean hasi aurretik eta lanerako prestatzeko lantegiak. | 109.000,00 € | 100 |
| MAKINA ERRAMINTAREN FUNDAZIOA | Baztertuta geratzeko arriskuan diren taldeen interesak eta motibazioak identifikatzeko laguntza-jarduerak. | 17.500,00 € | 25 |
| SIDALAVA | Gizarteratzeko eta komunitatearekin lotzeko laguntza-etxea. | 30.000,00 € | |
| GAO LACHO DROM | Araban baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan diren ijito taldeen familiekiko eta pertsonekiko esku-hartze programa. | 25.000,00 € | 17 |
| IZAN ELKARTEA | Lanbide bat ikasten. Norberaren eta laneko nahiz gizarteko trebetasunetan trebatzeko prestakuntza-programa. | 21.500,00 € | 20 |
| BIDEGURUTZEA ELKARTEA | Bidegurutzea Elkartearen etxeetan jasotako pertsonentzako gizarteratze-programa. | 23.000,00 € | 16 |
| BIZITZA BERRIA | Baztertuta geratzeko arriskuan diren pertsonentzako arreta- eta mantentze-programa. | 100.000,00 € | 24 |
| LAGUN ARTEAN | Tailer sozialak. Gizarte-trebetasunak hartzeko oinarrizko prestakuntza ematea. | 9.500,00 € | 30 |
| GASTEIZKO CÁRITAS | "Santa María" prestakuntza-eskola eta lanaren bidez gizarteratzeko programa. | 6.000,00 € | 6 |
| AGLE | 60 urtetik gorako emakumeek etxean jasaten duten indarkeria prebenitzea eta haiei arreta ematea. | 4.500,00 € | 28 |
| AIZAN ELKARTEA | Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako gizarte- eta lan-orientazioa. | 3.000,00 € | 12 |
| ASAFES | Gizartean eta erkidegoan esku hartzeko programa. | 11.500,00 € | |
| AGIPAD | Arreta psikosoziala, baztertuta dauden eta drogen erabilerarekin eta mendekotasunarekin lotutako arazoak dituzten pertsonentzat. | 5.500,00 € | 17 |
| RAIS EUSKADI | Baztertuta dauden pertsonei lagun egiteko, aholku emateko, bitartekaritza eskaintzeko eta laguntzeko programa. | 38.500,00 € | 740 |
| CLARA CAMPOAMOR ELKARTEA | Guraso bakarreko familien buru diren emakumeentzako umezainak. | 50.000,00 € | 21 |
| GAZTELEKU | Gazteentzako sustapen-programa, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak bultzatzeko. | 12.500,00 € | 14 |
| SORTARAZI | Baztertuta dauden pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-tailerrak. | 18.000,00 € | 100 |
| BILBOKO ELIZBARRUTIA | Familia- eta gizarteratze-programa. Familia-esparruan ezagutza, jokabide eta jarrera egokiak bereganatu nahi dituzten pertsona helduentzako oinarrizko prestakuntza. | 150.000,00 € | 897 |
| BILBOKO ELIZBARRUTIA | Lanean hasi aurreko hezkuntza-tailerra. | 23.000,00 € | 20 |
| MARGOTU | Bazterketa jasateko arriskua duten eta baztertuta dauden emakumeen gizarteratzea. | 13.000,00 € | 12 |
| KALE DOR KAYIKO | Euskal Herriko Ijito Erkidegoa Gizarteratzeko Programa. | 21.000,00 € | |
| GOIZTIRI | Gizarteratzen laguntzeko programa. | 23.000,00 € | |
| GOIZTIRI | Aubixa: gizarte- eta lan-zailtasunak dituzten familietako neska-mutikoei gizarte- eta hezkuntza-laguntza emateko programa. | 8.000,00 € | 100 |

| T 42. **Gizarteratze-jarduaeretarako Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako dirulaguntzak.** | | | |
|---|---|---|---|
| ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA FUNTSA | Bizkaian gizarteratze-arloan jarduerak egiteko programa. | 26.000,00 € | 93 |
| ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA FUNTSA | Araban gizarteratze-arloan jarduerak egiteko programa. Gainditzen. | 17.000,00 € | 30 |
| ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA FUNTSA | Gipuzkoan gizarteratze-arloan jarduerak egiteko programa. Gainditzen. | 33.000,00 € | 121 |
| EUSKARRI | Baztertuta dauden emakumeei lagun egiteko prestakuntza-programa | 12.000,00 € | 12 |
| ZUBIETXE | Laneko lagun egitea eta orientazioa. Gizarteratze-prozesuetatik igaro diren pertsonekin lana bilatzea. | 9.000,00 € | 35 |
| ZUBIETXE | Etxe babestuen sarea. | 15.000,00 € | 90 |
| ZUBIETXE | Laguntzako eta Jarraipeneko banakako tutoretzak. | 3.000,00 € | 31 |
| SERFOLAN | Biltegizain-programa. | 11.000,00 € | 12 |
| CEAR EUSKADI | Errefuxiatuak eta etorkinak harrera-gizartean integratzeko prozesuak. | 8.000,00 € | 3621 |
| BESARKATUZ | Oso baztertuta dauden pertsonentzako egonaldi luzeko etxeak. | 9.000,00 € | 35 |
| BEHARLAN | Baztertuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programa. Basauri eta Erandio. | 7.000,00 € | 40 |
| AGIANTZA | Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea. | 20.000,00 € | 50 |
| SARTU | Sistematizazioa, gizarteratze-esperientzien ebaluaziotzat. | 10.000,00 € | |
| SARTU | Arau-esparruei eta erakunde sozialei buruzko mintegia. | 3.000,00 € | |
| ZABALTZEN | “Soraluzen eragin”. Etxeko brikolajea eta trebetasun sozio-pertsonalak | 4.000,00 € | |
| SARTU | “Gizarteratze-ibilbide malguak” programa. | 245.000,00 € | 260 |
| GASTEIZKO UDALA | “Etxeko trebetasunak”. | 4.200,00 € | 10 |
| GASTEIZKO UDALA | Enplegu-programa, ingurumen-zerbitzuetan lagunduz. Lorezaintza-ikastaroa. | 4.500,00 € | 15 |
| GASTEIZKO UDALA | Enplegu-programa, ingurumen-zerbitzuetan lagunduz. | 2.000,00 € | 15 |
| GASTEIZKO UDALA | Ostalaritzako prestakuntza-programa: zerbitzari-laguntzaileak. | 11.500,00 € | 12 |
| GASTEIZKO UDALA | Taberna/kafetegi arloko sukaldaritza eta lantokiko prestakuntza. | 7.000,00 € | 13 |
| BEASAINGO UDALA | Aurreratzen programa. | 2.000,00 € | 15 |
| HERNANIKO OSASUN PATRONATUA | Baztertuta geratzeko arriskuan eta/edo baztertuta diren pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programa. | 20.000,00 € | |
| ANDOAINGO UDALA | Gizarte- eta hezkuntza-tailerra. Lanbideak ezagutzea. | 4.000,00 € | 10 |
| LEZOKO UDALA | “Sortu” lanerako tailerraren proiektua. | 21.000,00 € | 10 |
| LEZOKO UDALA | “Txertatu” errendimendu txikiko tailerraren proiektua. | 23.000,00 € | 10 |
| DONOSTIAKO UDALA | Gizartean lagun egiteko eta sustatzeko programa. | 35.500,00 € | 12 |
| UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA | Gizarte- eta hezkuntza-ikastaroa: Sukaldaritza, etxeko kudeaketa, norberaren zaintza eta irudia. | 7.000,00 € | 10 |
| UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA | Gizarte- eta hezkuntza-ikastaroa: Lanbideak ezagutzea: baliabide orokorren oinarrizko sareranzko zubi-errekurtsoa. | 5.000,00 € | 10 |
| EIBARKO UDALA | Baztertuta dauden pertsonei gizarte eta hezkuntza mailan laguntzea, detektatutako gizarteratze-behar zehatzetan. | 6.000,00 € | 10 |
| IRUNGO UDALA | Saiatu programa. | 7.000,00 € | 15 |
| IRUNGO UDALA | “Bultzapen eta Gizarte Lagun-egitea” programa. | .15.000,00 € | 12 |
| HONDARRIBIKO UDALA | Trebetasun sozio-pertsonaletako prestakuntza. | 1.300,00 € | 63 |

| T 42. **Gizarteratze-jardueretarako Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako dirulaguntzak.** | | | |
|---|---|---|---|
| ENKARTERRIETAKO MANKOMUNITATEA | Gizarteratze- eta laneratze-arloan jarduerak egiteko lankidetza-proiektua. | 10.000,00 € | 30 |
| URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA | Emakumea, susta zeure burua. | 1.000,00 € | 10 |
| ARRASATEKO UDALA | "OINARRIAK 2008" | 14.500,00 € | 30 |
| GALDAKAOKO UDALA | Galdakaoko gizon-emakumeei zuzendutako gizarteratze- eta laneratze-jarduerak. | 13.000,00 € | 10 |
| LEA-ARTIBAIKO MANKOMUNITATEA | Pertsonei lagun egiteko ekintzak, Auzolanean parte hartu aurretik eta ondoren. | 13.000,00 € | 55 |
| SANTURTZIKO UDALA | Gizarteratzeko eta laneratzeko tokiko plana. | 22.400,00 € | 300 |
| LEIOAKO UDALA | Gizarteratzeko laguntze-zerbitzua. | 5.000,00 € | 100 |
| MUNGIALDE PARTZUERGOA | Joskintza tailerra eta norbera nola zaindu. | 2.800,00 € | 10 |
| BARAKALDOKO UDALA | "Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntze-programa gauzatzea". | 16.000,00 € | 200 |
| ERMUKO UDALA | "Herritartasun-eskola". | 75.800,00 € | 108 |
| ERMUKO UDALA | "Enplegu bidezko gizarteratze-plana". | 20.000,00 € | 187 |
| ERMUKO UDALA | "Gizarteratzeko eskola". | 17.000,00 € | 30 |
| TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA | Izaera prebentiboko eta gizarteratzeko jarduerak. | 10.000,00 € | 50 |
| PORTUGALETEKO UDALA | Gizarteratze-arloko jarduerak (kutxazain-saltzaile-birhornitzaile.) | 12.500,00 € | 15 |
| BERMEOKO OSASUN ETA GIZARTE ONGIZATERAKO PATRONATUA | Bermeoko ijito erkidegoaren eguneroko bizitza normalizatzeko programa. | 40.000,00 € | 132 |
| GASTEIZKO CÁRITAS | Enplegu bidezko gizarteratze-programa (Lagun Artea, Berjantzi eta Artezale). | 20.000,00 € | 201 |
| **GUZTIRA** | | **1.845.000,00 €** | **8.816** |

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila - 2008.

Tokiko Garapen Agentziek funtzio anitzeko prestakuntza- eta enplegu-programak jartzen dituzte martxan. Baztertuta geratzeko arrisku handia duten sektoreei egoten dira zuzenduta, askotan:

T 43. **Tokiko Garapen Agentziak: enplegua sortzeko programak**

| Agentzia | Egindako programak | Erabiltzaileak | Aurrekontua |
|---|---|---|---|
| LAN EKINTZA BILBAO | **INEMen, udalbatzaren eta EEZParen programa**<br>Lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituzten lanik gabeko pertsonekin esku hartzen duen programa bat da. | 42 parte-hartzaile | 431.095€ |
| | **Ofizio Etxea programa (EEZP)**<br>Langabe gazteei zuzendutako programa bat da. Gazte horiek lan-merkatuan eskaria duen lan batean trebatzea du helburu programak. 12 hilabeteko iraupena du: 6 hilabeteko prestakuntza teoriko-praktikoa, eta beste 6 hilabete, prestakuntza eta lana aldizkatzen direla, non udal mailako lanak egiten baitira, kontratu bitartez. | 11 parte-hartzaile | 125.693€ |

T 43. **Tokiko Garapen Agentziak: enplegua sortzeko programak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **Enplegu Tailerra programa**<br>25 urteko edo gehiagoko pertsona langabeei zuzendutako programa. Honako xede hau du: lan merkatuan eskaria duen lan batean lanbide mailako eta zeharkako gaitasunak ematea langileari. | 33 parte-hartzaile | 669.343€ |
| | **Teknologia Berrietara Hurbiltzeko Programa**<br>Ofimatikako eta Interneteko tailerra, lana bilatzera zuzendua: teknologia berrien arloko ekintza, lana bilatzea errazteko, tresna horien ezagutza urria duten erabiltzaileei zuzendua. | 155 parte-hartzaile | 21.273€ |
| | **Enplegua-Emakumea tailerra**<br>Sentsibilizazio-ekintza batzuk dira, emakume oso egoera txarrekoei eta/edo motibaziorik gabeei, edo emakume etorkinei nahiz ez-aktiboei zuzenduak, elkar ezagut dezaten, lan-merkatuak eskaintzen dituen lan-aukera benetakoetara egoki daitezen, eta beren gizarteratze-ibilbidean parte hartzea erabaki dezaten. | 46 parte-hartzaile | 3.919€ |
| | **Egoera txarreko taldeak enplegura hurbiltzeko motibazio-tailerra**<br>Sentsibilizazio-ekintza batzuk dira, gizarteratzeko zailtasunik handienak dituzten eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuetan parte hartzen ari diren pertsonei zuzenduak, elkar ezagut dezaten, eta lan-merkatuak eskaintzen dituen lan-aukera benetakoetara egoki daitezen. | 49 pertsona | 3.302€ |
| | **Gaztelaniaz alfabetatzeko tailerra, lana bilatzeko**<br>Atzerritik etorritako eta enpleguari laguntzeko Lan Ekintzak eskaintzen dituen zerbitzuak darabiltzaten pertsonei zuzendua. Hor, bi **helburu** nagusi daude: egitura gramatikal nagusien ezagutza sendotzea, eta lan-esparru zehatz batzuetan erabiltzen den gaztelaniaren hiztegia ikastea, pertsona atzerritarra modu egokian komunika dadin. | 20 parte-hartzaile | 10.014€ |
| | **Zuzeneko bitartekotza programa**<br>Programak elkarrengana hurbildu nahi ditu lanik gabe dagoen pertsona eta enpresa, pertsona horren gizarteratze-aukerak hobetzeko eta enpresen giza baliabideen premiak asetzeko. Lanik gabe dauden eta lanpostu batean sartzeko prest diren pertsonei dago zuzendua. | 89 parte-hartzaile | 35.210€ |
| DONOSTIAKO SUSTAPENA | 2 Bi enplegu- eta prestakuntza-plan | 197 enplegu-aukera, talde zehatzentzat kudeatuak, 598 postu<br>2 enplegu- eta prestakuntza-plan, 16 parte-hartzaile | |

| T 43. **Tokiko Garapen Agentziak: enplegua sortzeko programak** | | | |
|---|---|---|---|
| GASTEIZKO EKONOMIA SUSTAPEN SAILA | Jadanik lehen atalean deskribatuak (kontratazioaren osagaia tarteko dela), eta, gainera, Gizartegintza Sailetik datozen pertsona batzuen banakako parte-hartzea, prestakuntzako eta lanbide orientazioko ekintzetan.<br>Eta, halaber, era ugaritako Laguntzak eta Bekak ezartzea:<br>.- Prestakuntza eta familia bateratzeko laguntzak.<br>.- Prestakuntza-praktiketan garraiorako eta dietetan ematen diren laguntzak.<br>.- Enpresetan praktikak egiteko bekak.<br>.- Emakumezkoen auto-enplegurako laguntzak.<br>.- Ekintzaile-bekak | Oro har, baztertuta geratzeko arrisku handia duten eta 30. jardueran definitu diren sektoreetakoak. | 209.000€ |
| BEHARGINTZA TXORIERRI | 6 Auzolan | 48 pertsona | 612.000€ |
| | Lanerako prestakuntzako 6 programa (Diputazioa) | 38 pertsona | 90000€. |
| FORLAN | 3 Auzolan | 8 parte-hartzaile | Gobernu-dirulaguntza: 266.047€<br>Udal-ekarpena: 64.686€ |
| GETXO | Lanean hasi aurreko programak, Getxoko etxeko zerbitzuari buruzko azterketa, bazterketari buruzko azterketa etab.<br>Prestakuntza-programetan koordinatzen da halaber, Auzolanen eta 3 helburuko programetan nagusiki. Agiririk gabeko etorkinentzako lan-baimena lortu da, Udaleko enplegu-eskaintzarekin, Auzolan programan.<br>Hitzarmenak egin dira finantza-erakunde ugarirekin. Erakundeek mikrokredituak eskaintzen dituzte gizarteratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonek enpresa txikiak sor ditzaten.<br>BFArekiko hitzarmena, Getxo Kirolak-en Ostalaritza Proiekturako, gizarteratze-enpresa bat kudeatzeko.<br>Beste udal sail batzuekiko lankidetza (klausula taldea), gizarte-klausulak ezartzeko eta gizarteratze-enpresekin proiektuak garatzeko. | | |

| T 43. **Tokiko Garapen Agentziak: enplegua sortzeko programak** | | | |
|---|---|---|---|
| INGURALDE | Orientazio Programak<br><br>Hiru orientatzaileko talde bat eratu da. Orientatzaileak talde horiekiko lanean daude espezializatuta. Banakako orientazioaz gainera, honako hauek eskaintzen dizkiete talde horietako pertsonei: motibazioko talde-tailerrak, lana bilatzeko teknikak, Sarean lana bilatzeko teknikak, eta eskaintzak bilatzeko prentsako tailerrak.<br><br>Enplegu- / prestakuntza-programak<br><br>4 Auzolan-programa urtean, eta, hor, kontratazioaz aurreko prestakuntzako 15 egun, eta, gero, sei hilabeteko kontratazioa, non sektoreko lan-hitzarmenak zehazten baititu baldintzak.<br><br>INGURALDEtik kudeatzen den edozein enplegu- eta/edo prestakuntza-programatan parte hartzeko aukera, beste herritarren baldintza beretan.<br><br>Informatika mailako alfabetizazio-programa esklusiboak (Windows, Word, Excel, posta elektronikoa eta Internet).<br><br>Laguntza-programa<br><br>Urtero, udako hiletan, enplegu-programa berezi bat antolatzen da, irakasletza-diploma edo haurtzaindegietarako prestakuntza duten pertsonei zuzendua, “Umeen Txokoa” gauzatzeko. INGURALDEren enplegu- edo prestakuntza-ikastaroetan ari diren eta haurrak norekin utzirik ez duten pertsonentzat da Umeen Txokoa programa.<br><br>Bitartekotza<br><br>Langilegai bezala parte hartzeko aukera, Inguraldek urtero antolatzen duen enplegu-azokan.<br><br>Egunero atzematen dituen enplegu-eskaintza guztiak bidaltzen dizkie Inguraldeko enplegu-saileko teknikariei. | 2007ko urtarriletik gizarte-zerbitzuek bideratutako 395 pertsonek jarduera guztietan aritzeko aukera izan dute. | |
| OARSOALDEA | Enplegu- eta prestakuntza-programak | 44 pertsonak eta 8 ofizialek hartzen dute parte | Eskualdeko udalek 164.772,32 € jarri dute, eta Eusko Jaurlaritzak ere eman du dirulaguntza. |
| | Auzolan programak | 32 pertsonek eta 4 monitorek hartzen dute parte | Eskualdeko udalek 87.435,84 € jarri dute, eta Eusko Jaurlaritzak ere eman du dirulaguntza. |
| | Gizarteratze-enpresa publiko bat sortzea, kapital publikoarekin eta pribatuarekin. Haur adingabeen ardura duten eta familiaren laguntzarik ez daukaten emakumeak dira pertsona kontratatuak. | 24 langile dira langile taldean, horietatik 17 Gizarteratze Hitzarmena sinatu dutenak. | |
| SFC SESTAO | Bizkaiko Foru Aldundiko Prestakuntza eta Enplegu Sailak diruz lagundutako SESTAO GAITZEN programaren barruan egin zen, eta honako helburu hau zeukan: lanik gabe zeuden edo lan prekarioa zuten pertsonei lanbide-kualifikazioa ematea Fabrikazio Mekanikoa eta Eraikuntza eta Obra Zibilak lanbide-familietan. | 14 | Motibaziorako eta enplegua aktiboki bilatzeko modulurako 6400,00€-ko aurrekontua bideratu zen. |

Prestakuntza- eta enplegu-programa funtzio anitzekoak martxan jartzeari dagokionez, ezagutza-falta handi samarra detektatu da gizarte-zerbitzuetan. Zerbitzu horien ia erdiek diote nahiko ezagutza txikia dutela horretaz.

T 44. **Gizarteratze-jardueretarako laguntzen ezagutza**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Oso ongi** | 7 | 24,1 |
| **Nahiko ongi** | 8 | 27,6 |
| **Zerbait** | 10 | 34,5 |
| **Gutxi edo batere ez** | 3 | 10,3 |
| ED/EDE | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Ebaluazioan parte hartu duten gizarte-zerbitzuen heren batek erabiltzen ditu, maiz edo ia beti, laguntza horiek, hala dagokionean.

T 45. **Gizarteratze-jardueretarako laguntzen erabilera**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Oso ongi** | 6 | 20,7 |
| **Nahiko ongi** | 4 | 13,8 |
| **Zerbait** | 10 | 34,5 |
| **Gutxi edo batere ez** | 6 | 20,7 |
| **ED/EDE** | 3 | 10,3 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

GKE-ek oso iritzi ona dute programa horiei buruz, nahiz eta azpimarratzen den ez direla baliabide berak talde guztientzat. Gazteek, esate baterako, erraztasun gehiago dituzte prestakuntza eskuratzeko, eta prestakuntza hori modu espezifikoagoan dago zuzendua lan-merkatura. Emakumeek, aldiz, batez ere familia-kargak dituztenek, era guztietako laguntza gehiago behar dituzte. Azken alderdi hori asko lantzen da, eta adiskidetze-zerbitzuen garrantzia azpimarratzen da.

| 31. jarduera | *Aukera eman, salbuespenezko kasuetan, gizarteratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonak luzaroago egon daitezen gizarteratzeko eta laneratzeko programetan.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Ez da aldatu gizarteratze- eta laneratze-programetan egotea arautzen duen araudia.

| 32. jarduera | *Gizarteratze-alorrean jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen Aginduaren bitartez, gizarteratzeko eta laneratzeko sustapen- eta laguntza-programak bultzatzea, oso baztertuta dauden pertsonei eta, bereziki, Oinarrizko Errentak jasotzen dituzten kronifikatuei zuzenduta.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Jarduerak helburu zehatz bat zuen, lanean hasi aurreko prestakuntzaren premiarik handiena duten pertsonei zuzendutako jarduerak diruz laguntzea. Gizarteratze Alorrean jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen araudia, ordea, ez da aldatu.

Jarduera hori, GKE batzuen iritzian, gauza positiboa litzateke, baina egiteko erak gaur egungo ez bezalakoa izan behar luke. Jakintzat jotzen da jasotzaile asko —eritasun mentalak dituztenak, alfabetatu gabeak, 50 urtetik gorakoak…— sekula ez direla irtengo premia-egoeratik, nahiz eta irtenbideak eskaintzen zaizkien. GKE-ek honako hau galdetzen dute, bada: laneratzeko zer aukera erreal dute pertsona horiek?

Beste erakunde batzuek beste irtenbide batzuk proposatzen dituzte, hau da, pertsona kronifikatuei prestazioaren trukeko gizarte-lanak eskaintzea. Baina arazo bat dago, diotenez: gizarte-zerbitzuak saturatuta daude, eta ez daukate mota horretako prozesu bat antolatzeko astirik.

| 33. jarduera | *Laneratzen laguntzeko zerbitzu espezifikoak sortzea, familia-kargak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan diren emakumeei, eta lan prekarioak dituzte gazte emantzipatuei zuzenduta, horien ardurapean dauden haurren edo beste mendeko pertsona batzuen zaintza bermatzen dela.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Familia Zuzendaritza
✓ Foru Aldundiak
✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ○

Jarduera hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze Zuzendaritzak 200.000 €-ko aurrekontua dauka izendatuta 2008rako. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzatik esaten da, ordea, jarduera horretan barne diren taldeei onura egiten dien edozein prestazio mendekotasunaren arretarako esparruan kokatu behar dela funtsean.

Honako hau da, beharbada, jarduera horretan aurreikusitako zerbitzurik espezifikoenetako bat: Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen ardurapean dauden

adingabeen 0 eta 3 urte bitarteko eskolatzea. Umezainak programa da beste zerbitzu bat, baina ebaluazioan parte hartu duten oinarrizko gizarte-zerbitzuek ia ez dute batere ezagutzen.

T 46. **Umezainak programaren ezagutza**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Oso ongi** | 1 | 3,4 |
| **Nahiko ongi** | 2 | 6,9 |
| **Zerbait** | 5 | 17,2 |
| **Gutxi edo batere ez** | 18 | 62,1 |
| **ED/EDE** | 3 | 10,3 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Aldundiek aurrera daramatzaten ekimenei dagokienez, aipatu behar da Gipuzkoan hor dela Umezainak programa. Gizarteratze- eta laneratze-prozesuetarako, eta guraso bakarreko familiak adiskidetzeko tresna da.

Ez da Bizkaiko informaziorik jaso, baina bai GKE batek horretaz daukan iritzia, eta dio era horretako ekimenak positiboak direla, baina ez dituztela premia guztiak betetzen. Arrazoi bategatik dira mugatuak. Izan ere, Aldundiak ez ditu bere gain hartu nahi zenbait zeregin, hala nola mendeko pertsonen zaintza; eta, horregatik, era horretako laguntzak oso modu mugatuan banatzen dira.

Baina Arabako Foru Aldundiak garatzen ditu programa gehien esparru horretan. Gainera, lankidetza-hitzarmen bat dauka Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sarearekin, Emakumeak Laneratzeko Programa garatzeko (Etxezain). 2007an, 84 pertsonari eta 37 emakume langileri eman zitzaien laguntza. 2008an, 55.230,00 €-koa da aurrekontua. Honako laguntza eta prestazio hauek dituzte:

- Familia-ingurunean bertan mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko prestazio ekonomikoak. Salbuespenezko izaera du, eta helburu oso zehatza, hots, onuradun pertsona bere etxean bertan atxikitzea, zaintzaile ez profesionalek zainduta, betiere bizikidetza- eta bizigarritasun-baldintza egokiak ematen baldin badira etxean.
  - Prestazio ekonomiko horrek xede zehatza du: pertsona zaintzaile ez profesionalak emandako zaintzaren gastuen parte bat estaltzea.
  - 2007an, 152 pertsona zaintzeko laguntzak eman dira Arabako Lurralde Historikoan, eta 282 €-koa izan da laguntzaren hileko batez besteko kopurua. 22.070.923,65koa izan da 2008rako gastu osoa.

- Arreta Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoa: mendekotasun handia duen pertsonaren autonomia sustatzen laguntzen du, adina kontuan eduki

gabe, zaintzaile pertsonal bat kontratatzen laguntzen baita, pertsona onuradunak bizitza autonomoa eduki dezan.

- Zaintzaile pertsonal baten gastuak estaltzen laguntzeko da prestazioa, eta, beraren bitartez, bi helburu iristen dira: hezkuntzarako eta/edo lanerako bidea erraztea, eta eguneroko bizitzako oinarrizko eginbeharretan autonomia handiagoa ematea mendekotasun handia duten pertsonei.
- Laguntza pertsonaleko prestazioak izaera periodikoa izango du, eta mendekotasun graduaren eta mailaren arabera onartuko da.

- Banakako laguntzak, gizarteratzeko eta laneratzekoibilbideak egiten ari diren pertsonei.
  - Diruz laguntzen diren kontzeptuak landa-inguruneko eta ibilbidea egiten ari diren pertsonen behar berezi eta espezifikoei dagozkie: zehazki, prestakuntza programetara, lanbide-trebakuntzara edo lantokira joateko. Arreta ematea mendekotasuna duten pertsonei, haien pertsona zaintzaileak prestakuntzako, lanbide-trebakuntzako edo enpleguko programetara joan daitezen. Prestakuntza teorikoa eta praktikoa, B1 gidatzeko baimena lortzeko.
  - 2007an, 36 laguntza eman ziren, 39 pertsonari arreta emanda. 2008an, 50.000,00 €-koa da aurrekontua.

| 34. jarduera | *Lankidetza-protokoloak orokortzea Justiziarekiko eta Gazte Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean. Horrela, gizarteratze- eta laneratze-prozesuak erraztuko zaizkie aipatutako Administrazioaren, hots, Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuen (ALEZ), Birgizarteratzeko Laguntza Zerbitzuen (BLZ) eta adingabe arau-hausleentzako Hezkuntza eta/edo Egunezko Arreta Zentroen mendean diren taldeei, hirugarren sektoreko erakundeen papera indartzen dela koordinazio- eta jarraipen-prozesuetan.* |
|---|---|

- ✓ Gizarte Gaietarako Sailburuordetza
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Zigor bat edo bestelako neurri bat (galarazpenak, segurtasun-neurriak edo gizartearen aldeko lanak) betetzen ari diren pertsonentzat, edo adingabe arau-hausleentzat, gizarteratze-zerbitzuetara heltzea zailagoa da, ez soilik epai judizialagatik, baizik eta beste faktore batzuk ere izaten direlako pertsona horiengan: eritasuna, familia-laguntzarik eza, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak, baztertuta dauden taldeetako (adibidez, ijitoak) kideak izatea, hezkuntza- eta prestakuntza-defizitak edukitzea, etab.

Eusko Jaurlaritzak Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren bidez egiten du ahalegin nagusia. Zuzendaritzak, izan ere, pertsona zigortuei arreta emateko eta laguntzeko zerbitzu bat dauka, haiek kartzelan sar ez ditzaten, eta eskura diren gizarte-baliabideak eskaintzen dizkie, gizarteratze egokia lor dezaten, eta epaileek eta auzitegiek ezarritako betebeharrak bete ditzaten. Bestalde, Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzua sortu zen, bi helburuerekin: batetik, atxilotutako pertsonen egoera juridikoaren gainean erabakiak hartu behar dituzten organo judizialei informazio egokia emateko, eta, bestetik, laguntza egokia emateko aipatutako atxilotuei, beren gatazkak gaindi ditzaten eta gizartera daitezen.

Hurrena, zerbitzu horiekin lotutako bestelako neurriei buruzko datuak erakusten dira. 2007an, 1.205 pertsonari ezarri zizkioten bestelako neurriak, eta pertsona horiek gehienak gizonezkoak ziren.

T 47. **2007an bestelako neurriak ezarri zizkieten pertsonak**

| | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Araba** | 113 | 19 | 132 |
| **Bizkaia** | 732 | 63 | 795 |
| **Gipuzkoa** | 261 | 17 | 278 |
| **Guztira** | 1.106 | 99 | 1.205 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, 2008.

1.720 izan dira, guztira, neurriak, eta Bizkaian ezarri dira bestelako neurri gehien, hango biztanleriaren pisuaren oso goitik.

T 48. **2007an ezarritako bestelako neurriak, guztira**

| | 2006koak | 2007ko berriak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Araba** | 57 | 20 | 77 |
| **Bizkaia** | 1.020 | 267 | 1.287 |
| **Gipuzkoa** | 251 | 105 | 356 |
| **Guztira** | 1.328 | 392 | 1.720 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, 2008.

Era berean, Pertsona Presoentzat edo Zigortuentzat Gizarte Ekintza Programetarako dirulaguntzak esleitzeko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak emandako Aginduaren bitartez, 350.000 eta 400.000 euro bitarte banatzen dira urtero. Pertsona presoek eta zigortuek beren gizarteratze-programetako asko betetzen dituzten gizarte-ehuna osatzen duten elkarteen artean banatzen da diru hori, eta gizarteratze zaila duten talde horiei zuzendutako proiektuetan erabiltzen da.

GKE-en iritzian, mota horretako programek balorazio ugari eta desberdinak jasotzen dituzte. Bada balorazio positibo bat, zeren hirugarren sektoreko erakundeen beharrei erantzuten baitzaie, gauza konplexua baita pertsona presoei (heldu nahiz adingabe) lana ematea, ez baitute ez bitartekorik ez baliabiderik, eta, aipatutako erakundeen iritzian, gizarte-zerbitzuak ere ez baitira inplikatzen. Bada balorazio negatibo bat ere, ordea, esaten baita programa horiek ez dutela modu positiboan eragin erakundeen beren praktika profesionalean. Koordinazioak, esate baterako, horiek egiteko borondatea duten profesionalen artean egiten dira, baina protokolorik edo behar adina baliabiderik gabe.

| 35. jarduera | *Pasabideak sortzea Gizarteratze Zuzendaritzaren laneratze-programen eta Foru Aldundien Prestakuntza eta Enplegu Zuzendaritzen prestakuntza- eta enplegu-programen artean.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Enplegu Zuzendaritza

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Ez da zehaztu koordinazio- eta lankidetza-sistemarik

### 1.4.3. “Enplegua errentabilizatzeko” politikak ezartzearen alde egitea

| 36. jarduera | *Lan-merkatura sartzeko aukerak sustatzea diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen artean, lana sustatzeko egungo sistema eguneratzen dela.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ● ○

Ez da izan lana sustatzeko sistema arautzen duen araudiaren aldaketarik, eta oraindik indarrean da 2001eko otsailaren 14ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, horrexek ezartzen baititu lana sustatzeko laguntzak Oinarrizko Errentaren jasotzaileentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat.

Halere, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legeak lan-sarreren errenta osagarri bat aurreikusten du lan-errentak dauzkaten eta hilean gizarteratzeko eta gizarte-babesa edukitzeko Oinarrizko Errenta adina irabazten ez duten pertsonentzat. 2008an, 12.424 titularrek osatu dute beren diru-sarrera programa horren bitartez. Partidari dagokionez, ez da zehatzik programa horretarako, baizik eta Oinarrizko Errentaren partida globalean sartzen da. 2008an, 44,8 milioi eurokoa izan da gastua.

| 37. jarduera | *Kualifikazio txikiko eta arrazoi ugarigatik lanetik kanpo egon diren pertsonen laneratzea sustatzea, lan-merkatuan sartzeko pizgarri zehatz batzuk ezarrita.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Lan-sarreren pizgarrien eta osagarrien etorkizuneko arautzearen zain, oraindik ez dira finkatu lan-sarrerak osatzeko prestazio berriak.

| 38. jarduera | *Soldata txikiak dituzten langileen babeserako beharrezko mekanismoen ezarpenean aurrera egitea, 19. jardueran aipatutako diru-sarrera osagarrien sistemaren bitartez.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Jadanik ezarritako dirulaguntza, zeina guraso bakarreko bizikidetza unitateen osagarri baita, bi hauei dagokie: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Oinarrizko Errentari, eta lan-sarreren errenta osagarriari. Halere, oraindik ez da ezarri diru-sarrerak osatzeko prestazio berririk soldata txikiak dituzten pertsona langileentzat.

### 1.4.4. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenak laneratzeko ekimenak gauzatzeko eta bideragarriak izateko aukera emango duten mekanismoak bultzatzea

| 39. jarduera | *Gizarteratzeko eta laneratzeko baliabide berrien garapena sustatzea, finantziazioaren alorretik, arreta berezia ematen zaiela "banku-jarduera etikoa" izen generikoaren pean biltzen diren tresnei. Baliabide horiek bi helburu izango lituzkete: batetik, gizarteratze-alorrean ari diren erakundeen funts-atzitze sistema handitzea, eta, bestetik, ezohiko funts ekonomikoetarako bidea erraztea, mikrokredituen bidez, gizartean baztertuta dauden pertsonei.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Finantza-erakundeak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ●

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak (2007/05/02) lankidetza-hitzarmen bat onartu zuen Inbertsio eta Aurrezki Erantzulea Fundazioarekin (IAEF), eta 235.000 €-ko ekarpena izendatu.

Hitzarmena sinatuta, helburu zehatza bilatzen da, hots, banku-jarduera etikoko estrategia garatzea, gizarte-oinarri sendo batekin, EAEn, IAEFren jarduera indartzen dela garapenerako lankidetzan, horrexen alde egin baitute beren aurrezkiekin "banku-jarduera etikoa" bultzatzen duten pertsona gehienek.

Hitzarmen horri esker, eta beste jarduera batzuez gainera, hainbat finantza-produktu sortzea espero da, Hegoaldeko herri pobretuetako erakunde batzuentzat, eta dirulaguntzen aurrerakinak onartzea, euskal GGKE batzuentzat.

Halere, GKE batzuek zalantzak dituzte jarduera horretaz, eta diote banku-jarduera etikoa ez dela mekanismo egokia baztertuta dauden pertsonei mikrokredituak emateko. Gogor kritikatzen dira egun diren traba ugariak ere: finantza-erakunde batzuetan direnak, esaterako. Izan ere, egoera irregularrean dagoen pertsonari ukatu egiten zaizkio kredituak edo kontu bat irekitzea.

| 40. jarduera | *EAEko administrazio publikoetan zenbait gizarte-klausula sartzearen alde egitea. Klausulok aurretiazko betekizun, balorazioko elementu edo betebehar bezala izango lukete lehentasuna.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ○

EAEk badu jadanik araudi bat gizarte-klausulei lehentasuna ematen diena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpenaren bitartez. Horren bidez, Gobernu Kontseiluak onartutako Akordioa argitaratzea xedatzen da, eta akordio horretan "Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren sektore publikoan

irizpide sozialak, ingurumenezkoak eta beste politika publiko batzuk sartzea aurreikusten da".

Xede horretarako, Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailak behar ziren urratsak egin zituen, enpleguko, gizarte gaietako, kontratazioko eta ogasuneko zerbitzu juridikoek osatutako Batzorde Tekniko batek azter zezan ea gizarte-klausularik sar ote zitekeen kontratazio-prozeduran eta kontratuaren betearazpenean, eta, halaber, ea bateragarriak ziren beste politika publiko batzuekin: ingurumenarena, laneko segurtasun eta osasunarena, emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunarena, kalitatearena eta enplegu-baldintzena. Horren ondorioz, aipatutako politika publikoetan eskudun diren Administrazioko zerbitzuen parte-hartzea sartu zuen Batzordeak.

Bestalde, Hiru Aldundiek modu positiboan baloratzen dute jarduera hori, eta beren araudiak garatzea dute helburu, tokian tokiko lurraldean gizarte-klausulak ezartzeko. Gipuzkoan, beren araudian ari dira lanean une honetan, eta Bizkaian, berriz, bada jadanik Batzar Nagusien ez-arauzko proposamen bat, 2007ko azaroaren 12koa, Aldundiaren kontratazio-prozeduretan gizarte-klausulak sartzeari dagokiona; halere, oraindik ez da martxan jarri horretarako izendatutako Batzorde Teknikoa. Araban, zerbitzuen esleipen-plegu guztietan gizarte-klausulak sartzea dute helburua, eta, zentzu horretan, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin, 30.898 €-rekin hornituta.

Ebaluazioan parte hartu duten GKE-ek, ordea, bestelako iritziak dituzte. Oro har, positiboak dira, Lamegi proiektutik datorren parte-hartzearekin… baina diote, halaber, gizarte-klausulak aho biko armak direla, zeren baldintza murriztaileek modu negatiboan eragiten baitute kostu-irabazi mailan eta sektorean oro har.

# 2. GIZARTE BABESERAKO SISTEMA OROKORRAK

## 2.1. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOAK EGITEN DITUEN ESKU HARTZEAK HOBETZEA ETA INDARTZEA

### 2.1.1. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren eskuragarritasuna arautzea euskal hiritarrentzat, zerbitzu eta prestazio unibertsalak jasotzeko eskubide subjektiboa bermatzea, eta beharrezko baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak ziurtatzea.

| | |
|---|---|
| 41. jarduera | *Gizarte Zerbitzuen Lege berri bat onartzea, eta lege horrek:<br>- aitortuko eta arautuko du EAEko herritarrek eskubide subjektiboa dutela Legeak unibertsaltzat jotako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko;<br>- behar bezala arautuko du prestazio eta zerbitzu bakoitzaren izaera eta tipologia, Zerbitzuen Katalogo baten esparruan, eta<br>- behar diren oinarriak ezarriko ditu, gizarte-zerbitzuei giza baliabideen, baliabide teknikoen eta baliabide ekonomikoen hornidura egokia ziurtatzeko.* |

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ●

Hura Legebiltzarrera bidali ondoren, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea onartu zen, abenduaren 5ekoa.

Legeak elementu zentral bat dauka: herritarrek gizarte zerbitzuak jasotzeko daukaten eskubide subjektiboa, hiritar guztien eskubide bihurtzen baita hori. Eskubide hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bat eratuta bermatzen da. Sistema hori publikoa, modernoa, aurreratua eta bermatzailea da.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ongizatera —osasuna edo hezkuntza— bideratutako beste sistema batzuekin konparagarria izan nahi du:

- Kudeaketako eta koordinazioko bere tresnekin.
- Hiru maila administratibo eskudunen arteko egituraketa bermatzen duela.
- Eta bere esparruan arkitektura oso bat egitura dezakeena, zeinak prestazioen eta zerbitzuen sare egituratu baten ezarpena, antolamendua, garapena eta sendotasuna onartuko dituen.
- Era koherentean eta eraginkorrean erantzungo diena aldaketa sozialek, demografikoek eta ekonomikoek dakartzaten oraingo eta geroko helburuei.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak oso ongi zehazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak barne hartzen dituen Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa.

- Eskubide subjektiboaren irismena espezifikatzen du, eta bermatzen du, bere izaera unibertsalagatik, aipatutako katalogoaren garapena eta ezarpena Autonomia Erkidego osoan gertatuko dela.
- Aurreikusten du katalogoa gero Prestazioen eta Zerbitzuen Zorro baten eran arautuko dela, eta horrek gai hauek guztiak zehaztuko ditu: lehenik, bere ezaugarri nagusiak, eta, gainera, zerbitzuak eskuratzeko oinarrizko betekizunak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketarako informazio-sistema integral baten diseinua eta martxan jartzea, eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko baten eraketa eta onarpena, non Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa izango baita barne.
- Erakundeen arteko koordinazio-tresnak indartzen ditu, eta tresna horiek bi helburu hauetarako behar dira: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapen koherente eta orekatua bermatzeko, eta bermatzeko, halaber, sistema hori eta bere prestazioak eta zerbitzuak hobeto artikulatuko direla antzekoak edo osagarriak diren beste sistema edo politika publiko batzuekin, zeinen helburua, baita ere, ongizatea sustatzea eta lortzea baita.

Honako hauek izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoaren barruan egongo diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak:

## T 49. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoa

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak:** | 1.1. Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua. | | |
| | 1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua. | | |
| | 1.3. Gizarte eta hezkuntza arloetan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua. | | |
| | 1.4. Pertsona zaintzaileei laguntzeko zerbitzua. | | |
| | 1.5. Gizarte-zerbitzuen esparruan gizartean parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua. | | |
| | 1.6. Telelaguntza-zerbitzua. | | |
| | 1.7. Eguneko arreta-zerbitzuak. | | |
| | 1.8. Gaueko harrera-zerbitzuak. | | |
| | 1.9. Ostatu-zerbitzuak: | 1.9.1. Abegi-etxea.<br>1.9.2. Babespeko etxebizitza.<br>1.9.3. Babespeko apartamentuak.<br>1.9.4. Etxebizitza komunitarioa. | |
| **2. Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak:** | 2.1. Mendekotasuna, ezintasuna, bazterketa eta babesik eza baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua. | | |
| | 2.2. Eguneko zerbitzu edo zentroak. | 2.2.1. Eguneko zerbitzu edo zentroa, autonomiaren mugatzetik datozen beharrei erantzuteko.<br>2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala.<br>2.2.3. Eguneko zerbitzu edo zentroa, gizarteratze-beharrei erantzuteko. | |
| | 2.3. Gaueko harrera-zentroak. | 2.3.1. Gaueko zentroa, autonomiaren mugatzetik datozen beharrei erantzuteko.<br>2.3.2. Gaueko harrera-zentroa, gizarteratze-beharrei erantzuteko. | |
| | 2.4. Abegi-zentroak. | 2.4.1. Zaharrentzako abegi-zentroak.<br>2.4.2. Urritasunak dituzten pertsonentzako abegi-zentroak.<br>2.4.3. Eritasun mentalak dituzten pertsonentzako abegi-zentroak.<br>2.4.4. Babesik gabeko egoeran dauden pertsona adingabeentzako abegi-etxeak.<br>2.4.5. Baztertuta edo zokoratuta dauden pertsonentzako abegi-etxeak.<br>2.4.6. Etxean tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako abegi-etxeak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk . | |
| | 2.5. Atsedeteko zerbitzua. | | |
| | 2.6. Koordinazio-zerbitzua gizarte-larrialdiei. | | |
| | 2.7. Bigarren mailako arretako beste zerbitzu batzuk. | 2.7.1. Informazio- eta orientazio-zerbitzuak. | 2.7.1.1. Babesik gabeko egoeran diren haurrentzako eta nerabeentzako gizarte-informazio zerbitzua.<br>2.7.1.2. Etxeko indarkeriaren edo sexuagatik biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua. |
| | | 2.7.2. Autonomiari laguntzeko zerbitzuak. | 2.7.2.1. Bizitza independentea sustatzeko zerbitzua.<br>2.7.2.2. Laguntza teknikoetarako eta inguru fisikoa egokitzeko zerbitzua.<br>2.7.2.3. Pertsona heldu ezinduentzako babes-zerbitzua.<br>2.7.2.4. Garraio egokituko zerbitzua. |
| | | 2.7.3. Familian esku hartzeko eta bitartekotza-zerbitzuak. | 2.7.3.1. Familietan gizarte- eta hezkuntza-arloetan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.<br>2.7.3.2. Familia elkartzeko gunea.<br>2.7.3.3. Familia-bitartekotzako zerbitzu integrala. |
| | | 2.7.4. Laguntza goiztiarrean esku-hartze soziala egiteko zerbitzua. | |
| | | 2.7.5. Arreta sozio-juridikoko eta psikosozialeko zerbitzuak, sexu-erasoak edo etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat, eta adingabeko pertsonentzat, pertsona zaharrentzat eta urritasunak dituzten pertsonentzat. | |
| | | 2.7.6. Familia-harrera eta adopzioa sustatzeko eta laguntzeko zerbitzuak. | 2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki laguntzeko zerbitzua.<br>2.7.6.2. Adopzioa sustatzeko eta teknikoki laguntzeko zerbitzua. |
| **3. Prestazio ekonomikoak:** | 3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko, eta, halaber, gizarte-larrialdiko egoerak estaltzeko edo arintzeko prestazioak. | | |
| | 3.2. Gizarte-laguntza informala ematen duten pertsonei laguntzeko edo ordaintzeko prestazioak. | | |
| | 3.3. Prestazio teknologikoak erosteko prestazioak. | | |
| | 3.4. Zerbitzu pertsonalekin lotutako prestazioak. | | |
| | 3.5. Beste prestazio ekonomiko batzuk, zeinak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuen esparruan ezar baitaitezke. | | |

Legeak Gizarte Zerbitzuen Maparen integrazioa aurreikusten du. Gizarte Zerbitzuen Maparen eginkizuna Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hedapena finkatzea izango da:

- Ongi definitzen dituela, horretarako, katalogoan sartuta dauden zerbitzu guztiak ezartzeko biztanleria-irizpide egokienak.
- Kontuan hartzen direla zerbitzu horien izaera eta horien eskatzaile potentzialen kopurua.
- Zerbitzuen hurbiltasuna bermatzen dela, ahal den neurrian, erabiltzaileak beren ohiko gizarte-ingurunean hobeto integra daitezen errazteko.

| 42. jarduera | *Beharrezko araugintza egitea, hiru Lurralde Historikoetan gizarte-zerbitzuen horniduraren eta estalduraren maila egokia bermatzeko, bai oinarrizko zerbitzuetan, bai espezializatuetan, zerbitzuok bazterketa-arriskurik handieneko taldeei zuzentzen zaizkiela.* |
|---|---|

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ● ●

Homogeneotasuna bermatzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara iristeko aukeretan eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen erabilera eraginkorrean, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak garbi definitzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarrizko jarduera-gunea.

Hala, adierazten da horrek 5.000 biztanleko biztanleria-eremua hartuko duela, edo, landa-alderdietan eta alderdi bereziki txarretan edo degradatuetan, 3.000 laguneko biztanleria-gunea, eta zehazten da aipatu oinarrizko gunea izango dela oinarrizko gizarte-zerbitzuen ezarpen-esparrua.

Eskubide subjektiboa gauzatuko delako bermea goi-ikuskaritzan datza. Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio goi-ikuskaritza egitea gizarte-zerbitzuen arloan. Honako hauek dira goi-ikuskaritza horren funtzioak:

- Gizarte-zerbitzuetarako eskubidea bermatuko duten oinarrizko baldintzak bete daitezen zaintzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainitako zerbitzuen eta prestazioen mailen egokitasuna egiaztatzea, Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroan ezarritako baldintzei begiratuta.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu orokorrak ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatzea: gizarte-zerbitzuen planifikazioari eta programazioari dagokienez, zerbitzuak ematen dituzten erakundeak baimentzeari eta ikuskatzeari dagokienez, eta balorazioko eta diagnostikoko funtzioei dagokienez.
- Zorrotz egiaztatzea, halaber, ea ongi egokitzen diren gizarte-zerbitzuetako hitzarmenak eta kudeaketa-kontratuak Legeak eta horren garapen-xedapenek ezartzen dituzten irizpideetara.

## 2.1.2. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa indartzea, hiritarren behar eta premiei hobeto erantzun diezaien

| 43. jarduera | Oinarrizko gizarte-zerbitzuen indartze orokorra |
|---|---|

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Nahiz eta eskumenak Udalenak izan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ere konpromiso sendoa du oinarrizko gizarte-zerbitzuak sendotzeko.

Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreratzen duen Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak garbi aurreikusten du indartze orokor hori.

Ikusirik zer garrantzi duen jarduera horrek, eta nolako zeharkakotasuna Plan osoarekiko, balorazio espezifiko bat egin da egungo baliabideen mailaz, Euskadiko gizarte-zerbitzuen arduradunen pertzepzioak jasotzen direla.

Ebaluazioan parte hartu duten oinarrizko gizarte-zerbitzuen arabera, haien % 13,8k bakarrik jotzen ditu nahikotzat gizarteratze-prozesuak kudeatzeko dauzkaten giza baliabideak.

T 50. **Gizarteratze-prozesuak kudeatzeko giza baliabideen nahikotasuna**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Bai, nahikoak** | 4 | 13,8 |
| **Apur bat justuak** | 10 | 34,5 |
| **Gutxiegi** | 14 | 48,3 |
| **Oso gutxi** | 1 | 3,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Bada oinarrizko aldagai bat, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan jasaten duten giza baliabideen eskasia ulertzeko: arreta ematen zaion biztanleriaren tamaina. Hala, 45.000 biztanletik gorako biztanleriei arreta ematen dieten zerbitzuetan eskasia askoz handiagoa da tamaina txikiagokoetan baino.

T 51. **OGZen baliabideetako aldeak, biztanleriaren tamainaren arabera**

| | 45.000 bizt. baino gutxiago | | 45.000 bizt. baino gehiago | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa | Maiztasuna | Ehunekoa |
| **Giza baliabide gutxi edo oso gutxi** | 10 | 47,7 | 5 | 71,4 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Baliabide materialei dagokienez, gehiago igartzen da giza baliabideetan baino. Halere, zerbitzuen arduradunen % 41ek dio ez dutela behar adina baliabide maila horretan ere. Gehien eskatzen den gauzetako bat: espazio fisiko handiagoa (bai norberaren bulegoa ipintzeko, bai jarduera-areto komunak sortzeko). Beharrezkoa ikusten da espazio hori, profesionalek beren lana behar bezala egin dezaten, eta erabiltzaileei ere heltzeko eta egoteko erosotasuna bermatzeko. Eta, jakina, traba arkitektonikoak kendu behar dira berehala, edo haiek gainditzeko erak jarri, bestela.

Baliabide teknologikoen gabezia ere nabaria da, eta ekipamendu nahiz software informatikoak eskatzen dira. Udal batzuetan, ordenagailuak partekatu egiten dituzte, eta guztiak ez daude konektaturik inprimagailuekin, eskanerrekin edo Internetekin.

Espazioa eta erabiltzaileekiko arreta hobeki antolatzeko, egoki ikusten da txanden ticketak ematen dituzten makinak jartzea, horrek erraztu egingo bailuke lana. Gainera, txanden programa informatiko batekin batera liteke, eta programa horrek arreta telefonikoak eta pertsonalak erregistratuko eta kontabilizatuko lituzke.

Ezein zerbitzuk ez du aipatzen laneko ergonomia; zerbitzuek ez dute eskatzen aulki edo mahai egokiagorik, ez oin-euskarririk, ez pantailako babesgarririk. Bi arrazoigatik izan daiteke hori: edo baliabide horiek badituztelako jadanik, edo oraindik ohartu ez direlako jarrera eta ohitura onen garrantziaz. Halere, mota horretako neurriek laneko lesioak saihets ditzakete. Gainera, ergonomiaren alorrekoak diren patologiengatiko laneko bajek oso kostu sozial eta laneko handia dute, iraupen luzeko prozesuak baitira, eta erraz errepika daitezkeenak.

T 52. **Gizarteratze-prozesuak kudeatzeko baliabide materialen nahikotasuna**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Bai, nahikoak** | 7 | 24,1 |
| **Apur bat justuak** | 10 | 34,5 |
| **Gutxiegi** | 12 | 41,4 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Erabiltzaileen egoera pertsonalari eta familiarrari buruzko diagnostiko orokorra egiteko baliabideei doakienez, horien nahikotasuna ere oso antzekoa da gizarteratze-prozesuen kudeaketan erregistratutakoarekin, hau da, lau zerbitzuetatik hiruk diote baliabideak urriak eta eskasak direla.

**T 53. Erabiltzaileen egoera pertsonalari eta familiarrari buruzko diagnostiko orokorra egiteko baliabideak**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Bai, nahikoa dira** | 8 | 27,6 |
| **Bai, nahiz eta apur bat urriak** | 9 | 32,1 |
| **Ez, gutxiegi dira** | 12 | 42,9 |
| **Guztira** | 29 | 100,0 |

Iturria: EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arduradunei bidalitako web-galdeketa.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak baditu laguntza pertsonalizatuko zerbitzuak, prestakuntza-bilerak… Ebaluazioan parte hartu duten udal edo mankomunitate guztiek ezagutzen dituzte laguntza-zerbitzu horiek, aplikazio informatiko mailan bederen, baina ez dituzte guztiek berdin baloratzen eta erabiltzen. Erabiltzen dituztenen artean, prestakuntza praktiko handiagoa falta da, eta proposatzen da, gaur egungo dinamikez gainera, egin daitezela prestakuntza espezifikoagoak udal bakoitzean, lanpostu bakoitzeko gailuak eta tresnak erabiltzen direla. Gaur egun eskura diren tresnez gainera, beste batzuk egitea iradokitzen da. Tresna berri horiek gehiago sakonduko lukete diagnostikoan eta ebaluazioan. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, bestalde, gabezia handia bat sumatzen dute: hiru administrazioek ez daukate oraindik akordiorik, tresna bakar bat aukeratzeko.

*44. jarduera* *Gizarte Zerbitzuei buruzko informazio-sistemaren garapena.*

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ●

8. jarduerak garbi aipatzen zuen jadanik Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren garapena, baina esanez, esplizituki, prestazio ekonomikoei buruzko informazio-modulu bat sartuko zela.

12/2008 Legeak jasotzen du, 79. artikuluan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Zerbitzu bat sortuko dela. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzu guztien alderdi nagusien ezagutza gaurkotu bat bermatzeko, Legeak honako hauek xedatzen ditu:

- Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekin, Udalekin eta erakunde pribatuekin batera jokatuko du bere koordinazio-eskumenen erabilpenean.
- Foru Aldundiek, Udalek eta erakunde pribatuek gizarte-zerbitzuen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari bidaliko dizkiote informazio gaurkotu guztia eta beharrezko datuak, Sistemako zerbitzuen eta prestazioen mailen jarraipena egiteko.
- Euskal administrazio publikoek eta erakunde pribatuek beharrezko informazio guztia eman beharko dute, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema beti ongi ibil dadin eta eguneratuta edukitzeko.

- Eusko Jaurlaritzak txostenak egin ditzake, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaz eta haren garapen eta ezarpen mailaz jasotako informazioarekin, eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari helaraziko dizkie.
- Bere maila operatiboan euskal estatistika-erakundea osatzen duten organoek eta erakundeek nahierara eskuratu ahal izango dituzte Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemako banakoen datuak, estatistika ofizialak egiteko helburuarekin.

45. jarduera *Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren tresnak estandarizatzea.*

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ●

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin, euskal administrazio publikoek balorazioko eta diagnostikoko tresna komunak —tresnen estandarizazioa— erabiliko dituzte, gizarte-zerbitzuen esku-hartze irizpideetan halako homogeneotasun bat bermatzeko.

Xede horrekin, agintzen da oinarrizko gizarte-zerbitzuek bete dezatela fitxa sozial eredu bat, eta aplika dezatela arreta pertsonalizatuko planaren eredua. Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu bi tresna horiek, beste administrazioekin koordinatzeko dauzkan eskumenak erabilita.

Beraz, nahiz eta oraindik ez den izan astirik jarduera hori inplementatzeko arauak garatzeko, garapen maila handia da.

46. jarduera *Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egitea.*

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ●

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua, eta ongi zehazten ditu hura gidatu behar duten printzipioak:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman jarraitu beharreko helburuak, estrategiak, politikak eta jarraibideak zehaztea.
- Beharrezko baliabideak hedatzea, Lege horretan adierazitako oinarrizko gizarte-zerbitzuen erabilera eraginkorra bermatzeko. Honako hauek behar dira: hurbiltasuna, oreka eta lurralde-homogeneotasuna.
- Baliabideen antolamendu eta aprobetxamendu integrala, arrazionala eta eraginkorra.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan parte hartzen duten osagai guztien koordinazioa eta sare-lana.

Legeak dio Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikotik abiatuta egin behar dela plangintza, eta, Plan horrek, aldiz, Gizarte Zerbitzuen Mapa hartuko du barruan.

Plana garatzeko, eta izaera iragankorrarekin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen

Sistemaren Plan Estrategikoa egiteko eskatu du 2008-2010 aldirako. Helburua bikoitza da: EAEko gizarte-zerbitzuen sistemaren kudeaketa-sistema integral baten sorrera orientatzea, eta gizarte-zerbitzuak eraginkorrak eta euskal gizartearentzat nahiz banakoentzat onak izatea.

## 2.2. GIZARTE BABESERAKO GAINERAKO SISTEMEK BAZTERKERIAREN KONTRA EGITEN DITUZTEN ESKU HARTZE INTEGRALAK HOBETZEA ETA INDARTZEA

### 2.2.1. Osasun-sistemak gizarteratzearen alorrean egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea

| 47. jarduera | *Oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistema bat garatzea, diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan osasunarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa txertatzeko.* |
|---|---|

- ✓ Osasun Saila
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Aldundietan, ez Gipuzkoakoan, ez Bizkaikoan, ez dute oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistemarik, diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan osasunari buruzko informazioa txertatzeko. Araban, berriz, oinarrizko gizarte-zerbitzuak eskualdeko zerbitzu medikuekin daude lotuta, nahiz eta ez eduki ezarrita inongo protokolorik. Osasunari buruzko datuak eskatzen dituzte, batik bat gizarteratzea zail dezaketenak.

| 48. jarduera | *Osasun-esparruko jarduera espezifikoak garatzen jarraitzea, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak eta taldeak gizarteratzea baitute helburu.* |
|---|---|

- ✓ Osasun Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

Osasun Sailak jarduera batzuk kokatzen ditu, integraziora orientatuta.

- Eritasun ezintasun-sortzaileak eta potentzialki baztertzaileak dituzten pertsonen familientzako laguntzak.
- EAEn egiten diren tratamenduetan porrot egin duten toxikomanoentzako laguntza bereziak, EAEz kanpoko erkidego terapeutikoetan tratamendua jaso dezaten. Osasun Sailburuaren 2007ko otsailaren 6ko 1390 AGINDUAN eta sailburu beraren 2008ko urtarrilaren 23ko AGINDUAN zehaztu da hori, eta, horren bitartez, dirulaguntza bereziak ezartzen dira, itundu gabeko zentro terapeutikoetan 2008an toxikomaniak tratatzeko.
- HIESaren alorrean maila prebentiboan eta laguntzan ari diren elkarteei laguntzea, Osasun Sailburuaren 2007ko apirilaren 3ko 2390 AGINDUAren eta 2008ko martxoaren 11ko AGINDUAren bitartez, eta, horren arabera, laguntza bereziak deitzen dira egoitza ofiziala EAEn duten eta irabazi-asmorik gabe HIESaren alorrean lanean diharduten elkarteentzat.
- Metadonaren programa finantzatzea Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban.

Gizarteratzeko zailtasunik handienak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan diren taldeengan Osasun Sistemak darabiltzan programak egokitzeko, garatzeko eta integratzeko, 2008ko martxoaren 11ko Agindua eduki behar da erreferentziatzat, zeinak pertsona erien bizi-kalitatea hobetzea bilatzen baitu laguntza-sare publikoarekin elkarlanean, eta 2007ko apirilaren 3ko 2389 Agindua, zeinaren bidez

laguntzak eskaintzen baitira osasunaren alorrean irabazi-asmorik gabe ari diren elkarteentzat, horiek Osasun Heziketarekin lotutako jardueretan eta biztanleria orokorrari edo biztanleria horretako talde zehatz batzuei begira ari direnean. Eta, hor, esleipen-irizpide bat gailentzen da, hau da, ea zer neurritaraino egokitzen zaion jarduera bakoitza Euskadiko Osasun Planean jasotako helburuak betetzeari, eta kontuan edukitzen da gainera zein ordenatan ageri diren helburuak ondoren:

- Tabakismoa prebenitzea edo gutxitzea arrisku handiko biztanleria talde zehatz batzuetan (nerabeak, emakumeak, etorkinak, etab.). Jarduera fisikoa sustatzea, bereziki minusbaliatuengan, hirugarren adineko pertsonengan, emakumeen taldeari lehentasuna ematen zaiola.
- Jateko eta elikatzeko ohitura osasungarriak sustatzea.
- Alkoholismoa gutxitzea.

Bestalde, estalduraren pixkanakako unibertsalizazioan, prestazioetarako bidea hobetu da baztertuta geratzeko arriskuan diren taldeentzat. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira euskal osasun-sistemaren erabileraz eta antolaketaz etorkinen artean egin diren informazio-ekintzak. Horretarako, informazioa eratu da zabalkunde-estrategia baten barruan, eta, hor, sinergiak eta talde horien inguruko laguntza-sareak erabili dira. Hona eman zaizkien informazioak:

- Osasun Txartel Indibiduala (OTI) eskuratzeko izapideak.
- Osasun Sistemaren Antolamendua.
- Prestazioak eta Zerbitzuak.
- Eskubideak eta Betebeharrak.

Jadanik zabaldu eta banatu zen etorkinei zuzendutako informazio-triptiko bat, hizkuntza askotan, gure osasun-sistema publikoaren ezaugarriez eta erabileraz; zehazki, 35.000 ale banatu ziren etorkinen elkarteen artean eta, halaber, Osakidetzako laguntza-sarearen eta Osasun Saileko OTIko unitateen bitartez.

Era berean, bi laguntza-gida zabaldu eta argitaratu dira osanet webgunean, haur etorkinei eta etorkin helduei zuzenduta, lehen mailako arretaz.

Gaur egun, Osakidetzako osasun-zentroak agente aktiboak dira jadanik OTI txartelen eskariak hartzeko eta bideratzeko lanetan. Komunikazio-ahalegin berezia egin zen Osakidetzako Lehen Mailako Arreta sarean, lan-ildo hori azkenean errealitate bihur dadin. Osasun Sailetik zegozkion jarraibideak eta aginduak bidali ziren Osakidetzako Lehen Mailako Arretako laguntza-sarera, eta, hor, OTIa eta osasun-laguntzako behin-behineko Agiria eskuratzeko era eta baldintzak aipatzen ziren.

Puntu horretan, zehaztu behar da etorkinen multzoaren barruan pertsona batzuek hizkuntzaren oztopoa dutela batetik, eta, gainera, egoitza irregularraren arazoa, eta horrek berak ere bazterketa eragin lezake, eta laguntza-estalduraren defizit handia, pertsona horrek unibertsalizazio-txartela ez baldin badauka.

Azkenik, nabarmendu behar da etorkinen taldearen alderdi espezifiko batzuk ere sartu direla Osakidetzako langileen prestakuntza-programetan, eta haietako batzuk intranet profesionalean sartu direla. Bada, esate baterako, galderak eta erantzunak aldi berean itzultzeko esperientzia pilotu bat, zenbait hizkuntzatan.

| 49. jarduera | *Informazio-sistemen garapenari ematea lehentasuna, osasun mailako gizarte-desberdintasunen banaketa hobeto ezagutzeko eta horien bilakaera ere monitorizatzeko, eta, aipatutako sistemen garapenak uzten duen heinean, EAEn ematen den osasun-arretaren ekitatea aztertzea/ikertzea.* |
|---|---|

✓ Osasun Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

2002-2010 Osasun Planak bi helburu handi ezarri zituen: alde batetik, gure biztanleriaren osasuna hobetzea, biziaren iraupena luzatzen zela eta urte osasungarriak ere ugaritzen zirela, eta, bestetik, egoerarik txarreneko pertsonen osasuna hobetzea eta osasun mailako gizarte-desberdintasunak gutxitzea.

Horretarako, Plan horrek osasun mailako gizarte-desberdintasunen azterketa eta zaintza hartzen ditu barne, besteak beste. Eskakizun horri erantzuteko, bai 2003ko eta 2004ko Estatistika Programek, bai 2005-2008 Euskal Estatistika Planak eragiketa estatistiko bana egin dute, hilkortasunean eta erikortasunean diren gizarte-desberdintasunak aztertzeko eta monitorizatzeko.

Osasunean gizarte-desberdintasunak direla gauza jakina da. Egoerarik txarrenean diren pertsonek eritasun gehiago izan ohi dituzte, eta urritasun handiagoak, eta, gainera, denbora laburragoan bizi ohi dira aberatsak baino. Osasun mailako gizarte-desberdintasunak ezagutzeko eta monitorizatzeko, informazio-sistema espezifiko zehatzak garatu dira:

- Azterketa-proiektua: desberdintasun geografikoak eta sozioekonomikoak hilkortasunean EAEko zentsu-sekzioetan
- Azterketa-proiektua: desberdintasun sozioekonomikoak eta generozkoak miokardioko infartu akutuaren maiztasunean eta erabileran.
- Eragiketa estatistikoak: gizarte-desberdintasunak hilkortasunean.
- Eragiketa estatistikoak: EAEko osasun-inkesta.

Informazio-sistema horietatik abiatutako azterketa ugari argitaratu dira, eta eskuragarri daude www.osanet.net euskal osasun-sistemaren webgunean. Gainera, aipagarria da "Desberdintasun sozioekonomikoak EAEko osasun-itxaropenean" artikuluaren argitaratzea, eta aipagarria, halaber, Eurothine proiektuan ("Tackling health inequalities in Europe") eta MEDEA proiektu koordinatuan ("Desigualdades socioeconómicas y medioambientales en la mortalidad en áreas pequeñas en ciudades de España") parte hartzea.

| 50. jarduera | *Plan Estrategiko Soziosanitarioa garatzea, gainerako arlo arduradunekiko koordinazioan aurrera eginez, haren helburu espezifikoak eta orokorrak lortzeko.* |
|---|---|

- ✓ Osasun Saila
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Eudel

2008ko betetze maila ● ● ●

Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Garapenerako 2005-2008 Plan Estrategikoak honako helburu hau du ezarria, besteak beste: beharrezko arreta ematea osasun-arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik, eta/edo bazterketa-arriskuagatik osasun- eta gizarte-arreta aldibereko, koordinatu eta egonkorra behar duten pertsonei. Beraz, zailtasunak dituzten pertsonek jasaten dituzten bazterkeria-egoerak ezin dira izan oztopo pertsona horiek beharrezko zerbitzuak eskura ditzaten.

Lehenengo eta behin, argitu behar da Plan Soziosanitario hori ez dela Jaurlaritzaren plan bat, baizik eta erakundeen arteko izaera partekatzen duela, Gizarteratzeko Euskal Planak bezala. Lortu diren aurrerapenak, bada, Plan horretan parte hartu duten sektore eta erakunde guztien jarduera koordinatu eta lankidetzazkori zor zaizkio.

Bi planek indarrean bat egin duten epean (2007-2008), modu aipagarrian egin da aurrera EAEko espazio soziosanitarioaren eraketan eta garapenean, nahiz eta independenteki izan Plan Soziosanitarioak hasieran aurreikusten zituen gauza batzuetan. Beharren pisu erlatiboen dinamikagatik —horien izaera aldakorragatik— gertatu da hori, zeren lehentasunen hierarkia aldarazten baitute esku-hartze arloetan, eta Mendekotasunaren Lege ezagunaren etorreragatik, hartaz eztabaidatzeak eta hura martxan jartzeak okupatu baitu gizarte-zerbitzuen azken urteetako zereginaren parte handi bat, eta horrek tarte gutxi utzi du beste garapen mota batzuetarako, eta oztopatu eta blokeatu egin ditu jadanik martxan ziren beste batzuen bideak.

Informazio-sistema bat martxan jartzea da azken horren adibidea. Lege-aginduz ordeztu behar izan dute, eta mendekotasunaren baloraziotik datorrena jarri dute haren lekuan, zeina homogeneoa baita Estatu osoan.

Legegintza alorrean, ahalegin handia egin da espazio soziosanitarioaren funtsezko alderdiak Gizarte Zerbitzuen Legean sartzeko. Bestalde, Foru Aldundiek ere izugarrizko lana egin dute, aurreko araudia egokitzen, Mendekotasunaren Legearen betetzera egokitzeko.

Beharren gaineko informazioaren alorrean aurreikusitako ekimenei eta ekintzei dagokienez, Osasun Saila inkesta baten lehen fasea egiten laguntzen ari da egoitza-esparru soziosanitarioan.

Komunikazio eta/edo zabalkunde arloan, harreman ugari izan da gainerako Erkidego Autonomoekin, eta are beste herri batzuekin, hemen egindako gauzak erakusteko eta informazio teknikoa trukatzeko.

Hitzarmenen arloan, horietako bat sinatu zen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, zaharren egoitzetako osasun-gastuaren finantzaketari buruz, eta Arabari zegokionaren izapidetzea ere osatu zen, nahiz eta hitzarmena ez zen sinatu azkenean. Beste hitzarmen-belaunaldi bat proposatu da sektore horretan, arlo garrantzitsu batzuetan osasun-laguntza hobetzeko: zainketa aringarrien aplikazioan, osasun-arazo kronikoen arretaren protokolizazioan eta etxeko ospitaleratzean, zehazki. Une honetan, hitzarmen sorta horren azken formaz eztabaidatzen ari dira, eta 2009 hasieran hasiko dira tramitatzen.

Hitzarmenen alorrean, halaber, Bizkaiko egoitza unitate soziosanitarioak martxan jartzea ekarri duena ere sinatu da, eta, egun, oso aurreratua dago Arabari dagokiona ere.

Osasun mentalari heltzeko ikuspegi soziosanitarioak garrantzi handia du, bazterketa saihesteko, eta aurrerapen handia egin da, tresna berriak sortzeko, direnak zabaltzeko, eta profesionalak ere partekatutako bitarteko egituretan elkarlanean ari daitezen.

Bada lan bat martxan, oso interesgarria, talde bereziki ahulak barne hartzeko. Lana ez dago aurreikusita jatorrizko Plan Soziosanitarioan. Oraintxe ari dira osatzen, eta EAEn Laguntza Goiztiarreko eredu bat proposatzea du helburua. Onartzen eta martxan jartzen baldin bada, izugarri zabalduko da zerbitzu horien benetako estaldura, eta laguntza bizkorra, arina, koordinatua eta integrala emango zaie beren garapenean arazoak dituzten edo izan ditzaketen neskei eta mutikoei, osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako sistemen elkarlanaren bidez.

Gainerako ekimenak/ekintzak, beren kudeaketari dagokienez, kasuan kasuko esparruan garatu dira, hau da, gizarte-zerbitzuen esparruan, haien maila ugarietan: Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta/edo Udalak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien balorazioaren arabera, oso zabala da aipatu plan estrategikoaren esparruaren definizioa, eta horrek ekibokoak sor ditzake kontzeptu operatiboen eta definizioen gainean, gizarte-bazterketaren arriskua definitzeko garaian. Planean, laguntza soziosanitarioa jaso dezaketen eta bazterketa jasateko arriskuan diren taldeen artean, honako hauek daude:

- Adingabeak, bereziki tratu txarrak jasandako, babesik gabe dauden eta jokabide arazoak dituzten adingabeak.
- Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak.
- Laguntza soziosanitarioaren beharra eta problematika soziala duten etorkinak.

Hala, gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak Planaren jarduera-eremu orokorraren barruan leudeke, eta, beraz, laguntza-ereduaren, egoeraren diagnostikoaren, helburuen eta gizarte-bazterketako ekintza-planen definizioak komunak dira gainerako taldeenekin. Gizarte-bazterketaren munduak beste taldeenarekiko daukan koordinazio-beharra ere komuna da Planaren erreferentzia-eremu osoan. Koordinazio-behar horrek honako honetan sartu behar du bakarrik: Planak berak bere alorrean dituen Helburu Estrategikoen formulazio zehatzean behar dituen garapen-lanetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, bada laguntzako sare publikora iristeko sistema bat Lurraldean (57/2002 Foru Dekretua, azaroaren 5ekoa, gizarte-bazterketa egoeran eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonek baliabide soziosanitarioak eskuratzea arautzen duena). Sistema horrek bere garapena du laguntzako sare publiko osoaren definizioari eta sare horren informazio-sistemari dagokienez. Baliabide berrien beharren planifikazioari doakionez, berriz, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Planaren idazketa egin berriak (2008) erabat bermatzen ditu baliabide berrien garapena eta egun direnen berrantolaketa. Bestalde, bakar batean bildu dira gizarte-bazterketaren alorrean eskumenak zituzten lehengo bi foru-sailak, eta horrek antolaketa-ahaleginak koordinatzen utzi du, lehen zailak ziren ekintzak formulatzeko; adibidez, Lurraldeko Batzorde soziosanitarioetan maila guztietan egoteko:

- Orientazio- eta balorazio-batzordeetan
- Batzorde teknikoan
- Gipuzkoako Lurralde Batzordean
- Kontseilu Soziosanitario Autonomikoan

## 2.2.2. Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako etxebizitza-politikak hobetzea eta indartzea

| 51. jarduera | *Oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistema garatzea, diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan etxebizitzarekin lotutako alderdien gaineko informazioa txertatzeko.* |
|---|---|

2008ko betetze maila ○ ○ ○

- ✓ Etxebizitza Sailburuordetza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza

Ez da ezarri komunikazio-sistema protokolizaturik. Nolanahi ere, Bilbon bada lankidetza-protokolo bat “Udal Etxebizitzak” enpresarekin. Udal enpresa bat da hori, eta erakunde arteko organo eskudunei dago atxikita.

| 52. jarduera | *Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan diren eta etxebizitzarik ez duten pertsonei babes ofizialeko etxeen programarik sozialenetara iristen laguntzea, gizarteratze- eta laneratze-prozesuen sendotzea errazteko, etxebizitza babestuen programarik sozialenetan haien partaidetza sustatzen dela.* |
|---|---|

- ✓ Etxebizitza Sailburuordetza
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ● ○

Beharrizan-egoeran diren talde zehatz batzuentzat, Etxebizitza eta Gizarte Ongizate sailburua salbuespen-aginduak (315/2002 Dekretuaren 2. xedapena) sinatzeko gaituta dago. Hala, babes ofizialeko etxebizitzak eslei dakizkieke hainbat talderi: genero-indarkeriaren biktimei, terrorismoaren biktimei, gerrako haurrei edo beharrizan egoera berezian diren taldeei.

Gainera, genero-indarkeriaren biktima izan den emakumea etxebizitzaren alorreko ekintza positiboko neurrien onuradun izan daiteke (2006ko urriaren 4ko Agindua). Horretarako, emakume horrek etxebizitza-eskatzaileen erregistroko (Etxebide) baldintzak bete behar ditu, salbuespen-aginduetan izan ezik. Hala, 2007an 8 salbuespen-agindu bideratu dira etxebizitzarik ez zuten emakumeentzat: 1 Araban; 5, Bizkaian, eta 2, Gipuzkoan.

| 53. jarduera | *Etxebizitza- eta bizitoki-parkea sortzea, gizarteratze-prozesuetan laguntzeko.* |
|---|---|

- ✓ Etxebizitza Sailburuordetza
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- ✓ Foru Aldundiak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Oso informazio urria jaso da puntu horren gainean. Bakarrik esaten da Gipuzkoan Foru Aldundia Gizarte Zerbitzuen Mapa batean ari dela lanean, eta mapa horretan gizarteratze-prozesuak laguntzeko bizitokiak aurreikusten direla. 2008an, hitzarmen bat iritsi dute Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin, eta bi etxebizitza utzi dituzte.

2009rako, beste sei etxebizitza uzten dira. Gainera, Etxebizitzaren Udal Patronatuak etxebizitza bat uzten du, eta, beraz, bederatzi etxebizitza izango dira aipatutako parkean.

### 2.2.3. Hezkuntza-zerbitzuak egokitzearen alde egitea, gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenen beharrekin bat etor daitezen

| 54. jarduera | *Komunikazio-sistema bat garatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuekin, hezkuntzarekin lotutako alderdien informazioa diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan txertatzeko.* |
|---|---|

- ✓ Hezkuntza Saila
- ✓ Udalak
- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Ez da jaso aurrerapenik jarduera horretan.

Edonola ere, Bilboko auzo batzuetan oinarrizko gizarte-zerbitzuek gizarte- eta hezkuntza-mahai batzuetan hartzen dute parte, eta Gizarte Ekintzatik gizarteko eta hezkuntzako esku-hartze programa batzuk garatzen dira. Gizarte-zerbitzuetatik bada koordinazio bat Udaleko Hezkuntza arloarekin, eta badira, halaber, jarduera bateratuko protokolo batzuk hainbat esparrutan. Hona esparruak: eskola-bitartekaritza, heziketarako eskubidea, eskola-higieneko programa.

| 55. jarduera | *Eskola-absentismoa ezabatzeko, ikasle etorkinak hartzeko eta gizartean egoera txarrean diren ikasleak dituzten ikastetxeei baliabide egokiak bermatzeko programak indartzea.* |
|---|---|

- ✓ Hezkuntza Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

Heziketa iristeko eta partiden kosturako osabidezko laguntzei dagokienez, Eskolatze Osagarriko Programek (2008ko uztailaren 29ko Agindua) dirulaguntzak ematen dizkiete Udal, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta xede horretarako hitzartutako zentro batzuei. 2008-09 ikasturterako izendatutako kopurua 1.222.263 € izan da. 23 erakunderi eman zaizkie laguntzak.

Bestalde, hasierako lanbide-prestakuntzako programek (2008ko uztailaren 22ko Agindua) dirulaguntzak ematen dizkiete Udal, mankomunitate eta xede horretarako sortutako erakunde batzuei, bai eta erakunde pribatu batzuei ere. 2008-09 ikasturterako izendatutako kopurua 9.856.776 € izan da. 51 erakunderi eman zaizkie laguntzak, 148 talderentzat.

Ikasle etorkinei laguntzeko programa indartzeko neurriei dagokienez, Hezkuntza Sailak kulturartekotasuna sustatzeko programak eta hizkuntza indartzeko programak (2008ko azaroaren 11ko Agindua) ezarri ditu. Horiek Lehen eta Bigarren

Hezkuntzako ikastetxe itunduei eta PAPIS ematen duten ikastetxeei eman diete dirulaguntza. 2008-09 ikasturterako izendatutako kopurua 3.230.000 €-koa izan da.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako programak indartzeko neurriei dagokienez, hainbat alderdi nabarmendu behar dira. Lehenengo, ikasle horiei laguntzeko behar den laguntzako langileena. Ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko, ikastetxeek profesional espezializatuak dituzte: irakasle aholkulariak (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak), irakasle orientatzaileak (Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak), pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleak, entzumenean eta hizkuntzan espezializatutako irakasleak, hezkuntza-laguntzako espezialistak etab. Gainera, ikastetxeek laguntzako zerbitzuetako profesionalen aholkularitza eta laguntza dituzte: hezkuntza-premia berezietako Aholkulariak, Berritzeguneetan; ikusmen urritasunak dituzten ikasleentzako profesional espezializatuak, ikusmen-urritasunak dituzten ikasleak barne hartzeko ikastetxeetan; ospitale-, etxe- eta terapia- nahiz hezkuntza-laguntzako zentroetako irakasleak, eta beste profesional ibiltari batzuk: logopedak, fisioterapeutak, lan-terapeutak etab. Laguntzako zentroetako profesionalek eta profesional ibiltariek bietan parte hartzen dute, zentro publikoetan eta zentro itunduetan. Guztira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 3.000 profesional espezializatu baino gehiago dauzka, ikasleen hezkuntza-premia bereziei behar bezala erantzuteko.

Bigarren, badira garraiorako laguntza ekonomikoak hezkuntza-premia bereziak dituzten eta ikastetxe publikoetan dabiltzan ikasleentzat: 2008/09 ikasturteko deialdirako, esaterako, 2.167.949 € eman dira beren ezaugarriengatik ohiko garraioa erabili ezin duten ikasleentzat. 658 ikasle dira, guztira; Araban 50; Bizkaian, 397, eta Gipuzkoan, 211. EAEko 139 ikastetxetan dabiltza horiek.

Hirugarren, 2008-2009 ikasturterako hezkuntza bereziko 546 unitate itundu dira ikastetxeetan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan laguntzeko. Gainera, 9.298.791,86 € eman zaie 195 ikastetxe itunduri, zeinek hezkuntza-premia bereziak dituzten 775 ikasle eskolatzen baitituzte. Hezkuntza-laguntzako 486 espezialista kontratatzeko erabili da laguntza.

Laugarren, badira prestakuntza-ikastaro batzuk hezkuntza-premia bereziekin lotuak. GARATU 2008/2009 prestakuntza-programan, esate baterako, 48 prestakuntza-ikastaro eskaini dira, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntzarekin lotuta.

Bosgarren eta azkenik, badira Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektu batzuk Ikastetxe Publikoetan eta Itunduetan. 2008/2009 ikasturtean, prestakuntzako eta berrikuntzako 40 proiektu onartu dira ikastetxe publikoetan eta itunduetan, hezkuntza-premia berezietako programarekin lotuta, eta beste 85 proiektu, dibertsitatearen programarekin lotuta, zeina “guztiontzako eskola bat”

lehentasunezko ildoari baitagokio. Hainbat hitzarmen sinatu dira, gainera, erakunde hauekin:

- ONCE.
- Osakidetza.
- Vitoria-Gasteizko Santiago Ospitalea.
- Urritasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.

Lanbide Hastapeneko Ikastegiak indartzeko neurriei dagokienez, Sailetik esaten da lanbide-hastapeneko programak berak direla desberdintasunak konpentsatzeko neurri egokiak. Udalei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei emango zaizkien dirulaguntzen deialdian 4.762.368 € eta 734.423 € dira, hurrenez hurren. 29 toki-erakunderi eman zaizkie laguntzak, 90 talderentzat, eta 7 erakunde pribaturi, 22 talderentzat.

| 56. jarduera | *Absentismo-arazorik, eskola-porrotik... handienak dituzten ikastetxeetan ahalegin berezia egitea, hezkuntza-indargarriak eta hezkuntzako esku-hartze proiektu espezifikoak eskaintzeko.* |
|---|---|

✓ Hezkuntza Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

Aipatutako problematikak dituzten ikastetxeetan hartutako neurri espezifikoen artean, bi nabarmen daitezke.

Lehenik, Hezkuntza Esku-hartze Espezifikoko programak, eskola-atzerapen larria duten eta/edo eskola-ingurunera gaizki egokitu diren ikasleentzat. 2008-09 ikasturtean, 215 ikastetxetan ari dira aplikatzen horiek. Ikastetxe horietatik 119 publikoak dira, eta 96, itunduak, eta 193 irakasle esleitu zaizkie guztira.

Bigarrenik, Ikasketa Komunitateen proiektuak dira hor. Lehen Hezkuntzako 21 ikastetxe publiko aukeratu dira, eta Bigarren Hezkuntzako 3, 2008-09 ikasturtean proiektuarekin aurrera jarrai dezaten.

| 57. jarduera | *Hezkuntza- eta laguntza-eskariaren estaldura handitzen jarraitzea 0 eta 2 urte arteko tartean.* |
|---|---|

✓ Hezkuntza Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

2008ko uztailaren 29ko Aginduak lankidetza-hitzarmen batzuk garatu nahi ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, eta haurtzaindegien eta/edo Haur Eskolen jabe diren EAEko Udalen artean. Bi dira helburu nagusiak: kostuak gutxitzen saiatzea, eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako udal jabetzako Haur Eskolen egungo eskaintza sendotzea 2008-09 ikasturtean.

| 58. jarduera | *Egoerarik txarreneko ikasleentzako laguntza hobetzea, bekak eskuratzeko eta eskolaz kanpoko jardueren gastuetarako laguntzekin, hala nola, testuliburuak berrerabiltzeko programaren bitartez.* |
|---|---|

✓ Hezkuntza Saila

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Ez da jaso informaziorik gaiaz.

| 59. jarduera | *Eritasunekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzari buruz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Osasun Sailak onartutako Zirkularra inplementatzea.* |
|---|---|

✓ Hezkuntza Saila
✓ Osasun Saila

2008ko betetze maila ● ● ●

Jarduera horri erantzunez, abenduaren 26ko 266/2006 Dekretua onartu zen. Haren bitartez, Hezkuntza, Ospitale, Etxeko eta Terapia Laguntza emateko Lurralde Zentroak sortu dira. Helburua hauxe da, besteak beste: eritasunen bat izan dutelako edo dutelako eta medikuak hala aginduta eskolara joaterik izan ez duten ikasleen heziketa eta gizarteratzea erraztea.

*Arauen garapena hezkuntzan*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindu sorta bat garatu du. Aginduok ez dira egokitzen Gizarteratzeko Euskal Planeko jarduera zehatzetara, baina beste helburu espezifiko bati erantzuten diote, eta helburu hori hauxe da: hezkuntza-zerbitzuak baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen beharretara egokitzea sustatzea.

T 54. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aginduak**

| | 2007ko uztailaren 27ko AGINDUA | 2007ko irailaren 3ko AGINDUA | 2008ko maiatzaren 6ko AGINDUA | 2008ko ekainaren 3ko AGINDUA | 2008ko uztailaren 29ko AGINDUA | 2008ko uztailaren 29ko AGINDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Helburua/Xedea | Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastetxeetako ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikoak arautzea. Ikasle horiek balioezintasuna legez aitortuta eduki behar dute eta, beren urritasunen bat dela eta, garraio normalizatua ezin dute beren kabuz erabili.<br><br>Laguntzaren zenbatekoa arautu beharra dago, eskuragarri diren baliabide ekonomikoek bermatu dezaten banaketa zuzen egingo dela, objetiboki zerga-tratamendu astunenekotzat jotzen diren egoerei lehentasuna emanez. | Ikastetxe publikoetan ikasketak egiten ari diren eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko bana-banako dirulaguntzetarako deialdia egitea. | 2007-2008 aldian Lanbide Hastapeneko Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) egiteko dirulaguntzen deialdia egitea. | Hezkuntza-premia bereziko ikasleak dituzten eta 2008-2009 ikasturterako Hezkuntza Laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxeentzako laguntzak ematea arautzea. | Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta haurtzaindegien eta/edo haur-eskolen titular diren EAEko Udalen artean lankidetza-hitzarmenak garatzea, kostuak murriztu eta, bestalde, zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-eskolen gaur egungo eskaintza 2008-2009 ikasturtean finkatzeko. | Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako deialdia egitea, 2008-2009 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikasketak egin behar dituzten ikasleentzat, betiere ikasleok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartutako ikasketa-plan bat badute, ikasketak amaitzean Sail horrek emandako eskola-agiri ofizial bat eskuratu behar badute, eta ikasketak EAEko edozein ikastetxetan egiten badira. |

| T 54. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aginduak** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **2007ko uztailaren 27ko AGINDUA** | **2007ko irailaren 3ko AGINDUA** | **2008ko maiatzaren 6ko AGINDUA** | **2008ko ekainaren 3ko AGINDUA** | **2008ko uztailaren 29ko AGINDUA** | **2008ko uztailaren 29ko AGINDUA** |
| **Testuingurua** | AGINDU hau behin baino gehiagotan aplikatzeak hobekuntza nabarmena ekarri dio ikasle ezinduen egoerari, horri esker ez baitzaie kostu ekonomiko gehigarririk ezarriko beren joan-etorriei, mugikortasunean mugaturik ez dauden gainerako ikasleek halakorik ez dute jasan behar eta. | Urritasun larriak dituzten umeek talde berezia osatzen dute, ezin baitituzte erabili eskolentzat jarritako lineak edo garraiobide publiko arruntak. Beraz, arreta berezia eskatzen dutenez, ikasle horiei beren bizilekutik ikastetxera egunero joateko modua eskaini behar zaie. | Lehenengo ikasturtean egindako ikasketak Lanbide Hastapeneko bigarren ikasturtean sakondu eta zabalduko dira aldi batean, eta beste aldi bat, berriz, enpresetan praktiketan jarduteko izango da.<br><br>Lantoki batean (enpresa, edo lantegi batean) eta ikastetxetik kanpo eskaini behar den prestakuntza horrek ikastetxeen eta ekoizpen-zentroen arteko etengabeko koordinazioa eskatzen du. Hori guztia burutzeko, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beraz, kostu ekonomiko gehigarriak sortuko zaizkie, bai ikastetxeari, bai lankide diren enpresei. | Badira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, eta hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza berezia behar dute, beren autonomia errazteko eta eskolako curriculuma jasotzeko. | Jabetza publikoko Haur Eskolak indartzeko premia dago, egungo eskaintza sendotzen dela. | Hiritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna, eta herri agintarien zeregina da hezkuntzara berdintasun egoeran jo ahal izateko dauden muga edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea. |
| **2008ko ekitaldiko diru-baliabideak** | 100.000 euro | 1.814.750 euro | 2.000.0000 euro | 3.512.885 euro | 10.331.849 euro | 17.920,767 euro, eta 2008ko ekitaldian hartzen diren laguntza-ebazpenak finantzatzeko erabiliko dira |

| T 54. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aginduak** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **2007ko uztailaren 27ko AGINDUA** | **2007ko irailaren 3ko AGINDUA** | **2008ko maiatzaren 6ko AGINDUA** | **2008ko ekainaren 3ko AGINDUA** | **2008ko uztailaren 29ko AGINDUA** | **2008ko uztailaren 29ko AGINDUA** |
| **Hartzaileak** | 2007-2008 ikasturtean lehenengo eta bigarren zikloko goi-mailako ikasketa ofizialak eta graduatu ondoko ikastaroak egiten ari diren pertsonek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein unibertsitate-ikastetxetako ikasle izan behar dute eta, gainera, baldintza hauek bete behar dituzte: % 33ko baliogabetasun maila edo handiagoa izatea, mugikortasun-arazoak izatea garraio kolektiboak erabiltzeko, eta beste pertsona baten laguntza behar izatea. | Behar berezi iraunkorrak dituzten eta 2007-2008 ikasturterako ikastetxe publiko batean matrikulatuta dauden ikasleak. | Lanbide Hastapeneko prestakuntza praktikoaren fasean parte hartu duten ikasleak, enpresak, tailerrak eta tutoreak. | EAEn kokatuta dauden itunpeko ikastetxeen titularrak, betiere ikastetxe horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak baldin badituzte. | Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik sortutako haurtzaindegien eta/edo haur-eskolen titular diren EAEko Udalak. | Unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiten ari diren eta maila ekonomikoko baldintza batzuk betetzen dituzten ikasleak. |

### 2.2.4. Justizia Administrazioak gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenekin egiten dituen esku-hartzeak hobetzea eta indartzea

| 60. jarduera | *EAEn bizi diren etorkin guztien erregularizazio administratiboa errazteko mekanismoak sustatzea, orain dauden egoeran ezin baitituzte erabili beren oinarrizko gizarte-eskubideak.* |
|---|---|

✓ Gizarte Gaietako Sailburuordetza

2008ko betetze maila ● ● ●

EAEn bizi diren pertsona etorkin guztien erregularizazio administratiboa lortzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak “Heldu” programa sortu du.

EAEn bizi diren pertsona etorkinei laguntza juridiko-soziala emateko arreta-zerbitzua da Heldu. Zerbitzuak helburu nagusi bat du, hots, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean aritzea, haiek berme handiagoko arreta eta laguntza eman diezazkieten hemen bizileku-baimen administratiborik gabe bizi diren pertsona etorkinei. Horretarako, zerbitzuak bi bektoretan dihardu nagusiki:

- Bizileku-baimenen, edo bizileku- eta lan-baimenen eskarien gaineko informazioa, aholkularitza, laguntza eta doako izapidetzea eskaintzen dizkie EAEko gizarte-zerbitzuek bidali dizkioten atzerriko pertsona etorkinei.
- Aholkularitza ematen die oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalei, atzerritarren legeak Legeria Orokorrean nola dihardUen azalduz, profesional horiek berdintasun-egoeran lagun diezaieten zerbitzu eske datozkien atzerriko pertsona etorkinei.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Helduk, Bilboko Lan Ekintza enplegu-zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Biltzen integrazio- eta bizikidetza-zerbitzuak Bateratzen proiektua jarri dute martxan. 175.000 euroko aurrekontuarekin. Egoera irregularrean diren etorkinei lan-merkatuan sartzen lagundu nahi die Bateratzenek. Horrela, pertsona horiek lan-kontratu bat lukete, eta horrek egoera erregularrean egoten lagunduko lieke. Honako hauek dira proiektuan lehentasunezko arreta ematen zaien profilak:

- Gizartean errotuta dagoen, erroldatuta gutxienez 2 urte daramatxan eta bere egoera erregularizatzeko prozesuan den pertsona bat (errotzeagatiko erregularizazioan, hiru urteko erroldatzea egiaztatu behar da, eta lan-eskaintza bat edukitzea eskatzen, baldintzatzat).
- Bizitzeko bai baina lanerako baimenik ez duten pertsona berrelkartuak.
- Bat-batean irregulartasun-egoeran geratzeko arriskuan diren pertsona etorkinak, zeinek baduten hemen bizitzeko eta lan egiteko baimena, baina baldintza batekin berritzen zaie baimen hori, hots, baimen horien iraupenaren gutxienez % 50ean Gizarte Segurantzari kotizatzen badiote..

| 61. jarduera | *Zigorren betetze alternatiborako beharrezko zentroak eta ekipamenduak egokitzea, gainerako erakunde eskudunekin koordinatuta.* |
|---|---|

- ✓ Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

2008ko betetze maila ○ ○ ○

Ez da jaso informaziorik gaiaz.

| 62. jarduera | *Koordinazioa sustatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta espetxeetako gizarte-zerbitzuen artean, kartzelatik ateratzen edo hirugarren gradura pasatzen dena gizarteratze- eta laneratze-programa espezifiko batera joan dadin.* |
|---|---|

- ✓ Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza
- ✓ Gizarte Gaietako Zuzendaritza
- ✓ Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Espetxe Administrazioa
- ✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ○ ○

Estatuaren mendeko Espetxe Administrazioak baditu bere gizarte-zerbitzuak espetxeetan, eta otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuaz arautzen da hori, hots, Espetxe Araudia onartzen duen agiriaz. Horko 228. artikuluak dio “Espetxe Administrazioak ahalegin guztiak egingo dituela espetxeetako gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako sare publikoak koordinatzeko, eta ahalegin berezia egingo duela, halaber, hirugarren mailan sailkatutako zigortuek eta baldintzapean nahiz behin betiko aske utziek Erkidego Autonomoek ezarritako gizarteratzeko gutxieneko errentak eskura ditzaten eta, berdin, Administrazio Publikoen gainerako gizarte-zerbitzuak eta prestazioak jaso ditzaten”.

Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, bere aldetik, pertsona zigortuei espetxera joan beharrik izan ez dezaten arreta eta laguntza ematen dien zerbitzuaren bitartez, eta, halaber, Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzuaren bitartez, harremanetan da etengabe oinarrizko gizarte-zerbitzuekin, espetxeetako gizarte-zerbitzuekin eta gizarteratze-elkarteen sarearekin, zigor bat edo neurri alternatibo bat (etendurak, segurtasun-neurriak edo erkidegoaren aldeko lanak) betetzen ari diren edo inoiz bete dezaketen pertsonek gizarteratze-zerbitzuetara heltzeko bidea eduki dezaten. Lanerako prestatzea funtsezko partea da gizarteratze-programetan, eta horietara bideratzen dituzten arestian aipatutako pertsonak.

Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Zuzendaritzak dirulaguntzak ematen dizkiete, edonola ere, pertsona zigortuekin lanean ari diren erakundeei eta elkarteei.

Guztiarekin ere, nahiz eta araudiak dioen koordinazioa izan behar dela, ebaluazioan zehar detektatu dira bai harremanak administrazio batzuen eta besteen artean, baina ez da ikusi koordinazio-mekanismo finkorik.

| 63. jarduera | *Gizarte-erroldatze sistemak arautzeko aukeren azterketa, zeren, sistema horien bidez, eta zenbait baldintza beteta, etxerik gabeko pertsonak gizarte-zerbitzuetako zentroetan errolda bailitezke, eta erroldatze hori baliozkoa litzateke laguntza ekonomikoak eta beste laguntza batzuk jasotzeko.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza
✓ Udalak

2008ko betetze maila ● ● ○

Gizarte-erroldatzearen irudia arautuko zuen araudi bat bultzatu nahi zen, baina erroldarena udal eskumen bat da, estatuaren lege batek arautua, eta, horregatik, hor jarduteko tartea oso estua da.

Immigrazioko II. Euskal Planak indartu egiten du Udalek eta Aldundiek atzerriko pertsonen harreran egiten duten lana. Tresna horrek, gainera, garrantzi handia ematen dio etxebizitza eskuratzeari. Erroldatuta ez dauden atzerriko pertsonek ez daukate lan-merkatuan sartzerik, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzak erroldatzea erraztu nahi du, beharrezko lehen urrats gisa. Beraz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak erroldatze-kanpaina bat abiatu du.

Euskal udalerri ugarik praktikatzen dute jadanik gizarte-erroldatzea deritzana. Politika hori tresna eraginkorra da pertsona etorkinen egoera erregularizatzeko. Adibidez, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza erroldatze-programa bat ari da garatzen, hirugarren sektoreko erakunde batzuekin elkarlanean. 2007an, 204 eskaera onartu dira, 42 Udal Gizarte zerbitzuen aldetik, eta 101, bederatzi erakunde laguntzaileren ekimenez.

# 3.PLANAREN KUDEAKETA ETA EZARPENAREN ETA INPAKTUAREN JARRAIPENA

## 3.1. PLANA KUDEATZEKO ERREMINTAK HOBETZEA ETA JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ADIERAZLE KOMUNAK GARATZEA

### 3.1.1. Gizarteratzeko II. Euskal Plana egoki kudeatzeko behar diren erremintak ezartzea

| 64. jarduera | *Gizarteratze Planeko Idazkaritza Teknikoa edo antzeko erakunde bat sortzea. Planeko neurrien aplikazioaren jarraipenaz, emaitzen adierazleak finkatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratuko litzateke.* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Nahiz eta oraindik ez egon eraturik, Gizarteratze Zuzendaritzak adierazi du Gizarteratze Planeko Idazkaritza Tekniko bat sortzea martxan dela jadanik.

Lehen fase batean, beste pertsona bat izendatu da Gizarteratze Zuzendaritzarako, eta, gero, erakunde espezifikoaren antolaketa formal bat egingo da. Halere, eta nahiz eta Idazkaritza horrek ez izan oraindik maila ofizialik, ari dira jadanik bilerak egiten Gizarteratzeko Euskal Plana inplementatzeko.

| 65. jarduera | *Gizarteratzeko Sailen arteko eta Erakunde arteko Batzordeak eta, halaber, Batzorde Iraunkorra aktibatzea, parte-hartze maila handiagoak sustatzen direla gizarteratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan .* |
|---|---|

✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Problema bat detektatu da: Udaletan eta Tokiko Garapen Agentzietan oso ezagutza urria dute Gizarteratzeko Euskal Planaz. Aldundietako alor batzuetan ere, ezagutza ia hutsaren hurrengoa da. GEP sortu zuen batzordea erakunde batzuen ordezkariz osatu zen, eta pertsona horiek ez dute hor jarraitu gero, edo ez diete transmititu beren erakundeei haiek GEP idaztean bereganatu zituzten ardurak.

Jakina, ezagutza urri horrek izugarri zailtzen du oraingo ebaluazioa, bai eta Gizarteratzeko Euskal Planean jasotako jardueren martxa ona ere.

Gainera, GEPak erakunde arduradun ugari jarri zituen jarduera guztietan, subjektu aktiboa zein izango zen zehaztu gabe, eta horrek halako nahasmen bat sortu du

informazioa jasotzeko orduan. Erakunde asko harriturik geratu dira. Ez zekiten zerbait galdetu zaienean, eta, gainera, hura ez zeukaten beren eskumentzat. Aldundietako arduradun eta teknikari batzuen iritzian, adibidez, Gizarteratzeko Euskal Planean aktore gehiegi dira, jardueren ardura duten erakunde gehiegi, eta ez dago garbi nork egin behar duen halakoa eta nork kontrolatu. Eskatzen da, beraz, hobeto bana dadila GEParekin lotutako informazioa, eta eztabaida tekniko handiagoa egin dadila.

Horren ondorioz, ebaluazioan zehar dezente malgutu da eskatzen zen informazioa, eta, batzuetan, jardueren gaineko ezagutza mailaz eta balorazioaz galdetu da, eta, gainera, jardueren gaineko informazioaz edo garapen mailaz, horiek beste erakunde batzuei zegozkienean.

GKE-ei edo hirugarren sektoreko erakundeei dagokienez, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra (GBI) oso modu zehatzean sortu zen, hau da, bazterketa-arriskua duten edo minusbaliotasunak dituzten pertsonekin lanean ari diren GKE-ek izendatutako erakunde batzuetatik abiatuta. GBI osatzen duten izendatutako erakunde horiek —gehiago dira bazterketaren alorrekoak minusbaliotasunarenekoak baino— jakitun dira, oro har, esku-hartzeez eta ebaluatzen den Gizarteratzeko Euskal Planaz. Izendatu gabeko erakundeen ezagutza maila eta parte-hartzea, ordea, ia hutsak dira. Erakunde batzuek ez dakite ezta GBIn ordezkatuta dauden ere.

T 55. **GEPari buruzko batzordeen deialdiak 2008ko ekitaldian**

| Data | Batzordearen izena | Akordioak eta Aginduak |
|---|---|---|
| **2007-11-27** | Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea | CEIrako eta SEIrako laguntzetarako 2008ko deialdi-agindua |
| | | Gizarteratze-arloan jarduerak egiteko dirulaguntzei buruzko agindua |
| | | 2008rako GLLetarako kopuruak, banaketa-irizpideak eta aurrekontu-mugak ezartzen dituen agindua |
| | | Auzolan programarako deialdi-agindua |
| | | Gizarte-net aplikatiboa erabili beharra |
| | | “Bizikidetza unitate” kontzeptuari buruzko hausnarketa |
| **2007-11-29** | Gizarteratzeko Sektoreko Batzorde Iraunkorra | CEIrako eta SEIrako laguntzetarako 2008ko deialdi-agindua |
| | | Gizarteratze-alorrean jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen agindua. Aldaketa: zabaldu egiten dira dirulaguntza jaso dezaketen jarduera motak. |
| | | 2008rako GLLetarako kopuruak, banaketa-irizpideak eta aurrekontu-mugak ezartzen dituen agindua. |
| | | Auzolan programarako deialdi-agindua |
| | | Auzolaneko Erakunde Homologatuak aurkezteko epeari buruzko agindua |

| T 55. **GEPari buruzko batzordeen deialdiak 2008ko ekitaldian** | | |
|---|---|---|
| | | Errefortzu-langileentzako dirulaguntzen banaketa arautzen duen agindua |
| **2007-12-10** | Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea | “Gizarteratzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen” zirriborroa |
| **2007-12-12** | Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra | “Gizarteratzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen” zirriborroa |
| **2008-04-10** | Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea | “Gizarteratzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen” zirriborroa |
| **2008-05-07** | Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra | Gizarteratzeko enpresen kalifikazioa, haietara heltzeko prozedura eta erregistroan izena emateko urratsak arautzen dituen Dekretua |
| | Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea | “Gizarteratzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen” aurreproiektuaren zirriborroa |
| | | Gizarteratzeko enpresen kalifikazioa, haietara heltzeko prozedura eta erregistroan izena emateko urratsak arautzen dituen Dekretuaren azalpena. |

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, 2009

| 66. jarduera | *EAEn gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren alorrean gauzatutako jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena egiteko aukera emango duten neurriak ezartzea, haien emaitzak ezagutzera ematea eta funtsezko osagaiak sare osora hedatzea.* |
|---|---|

- ✓ Gizarteratze Zuzendaritza
- ✓ Foru Aldundiak
- ✓ Udalak
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2008ko betetze maila ● ● ○

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Programen eta Zerbitzuen Ebaluazio Zuzendaritzak eginkizun zehatz bat du, besteak beste. Programen eta prestazioen egoerari buruzko txostenak egiten ditu, eta, hor, berriz, honako hauek: ahuleziak eta potentzialak adierazi, gizarteratzeko eta familiako programak, zerbitzuak eta prestazioak ebaluatu eta gainbegiratu, eta jardunbide egokiak detektatzeko eta zabaltzeko programa bat sortu.

Asmo horrekin, Saila zenbait ebaluazio garatzen aritu da: Gizarteratze Enpresen programarena edo Auzolan programarena, adibidez. Sailak honako hauek ere egin ditu: Oinarrizko Errentaren jasotzaileen gaineko azterketa, zenbait jardunaldi eta bilera Aldundiekin eta udalerriekin prestazioak jasotzen dituzten eta bizileku jakinik ez duten pertsonez… eta, bestalde, jardunbide egokiak gainerakoetara sozializatzeko ahalegina egin da.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, Equals programa ugaritan hartu da parte. Europako Batasunak sustatzen ditu programa horiek, eta Europako Gizarte Funtsak ere lagundu du finantzatzen 2000-2006 epealdi ofizialerako, eta Espainian 2007 arte luzatu dira. Helburu hauek dituzte: lan-merkatuan sortzen diren diskriminazio eta desberdintasun mota guztien aurka borrokatzea; funtsezko agenteak mobilizatzea, diskriminazio- eta desberdintasun-arazo espezifikoen aurka batera ari daitezen, eta

baliabideen optimizazioa bermatzea, bazkide parte-hartzaileen esperientzia eta ezagutza biltzen direla. Esparru horrekin, Aldundiak bere egin ditu azkenean Equals programak, eta gauza estruktural bezala bukatu da gauza esperimental bezala hasi zena.

Bizkaian, sinatutako lankidetza-hitzarmenen eskakizunez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmena duten zentro eta zerbitzu guztiek jardunbide egokien gidaliburu bat jarri behar dute langileen eskura.

Jardueren eta planen sakabanaketa handia da, bada, eta nahitaezkoa da informazio guztia bideratzea eta argitzea, jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena egiteko.

### 3.1.2. Pobreziari, gizarte-bazterkeriari eta egoera horren eboluzioari lotutako faktoreek EAEn duten eragina erregulartasunez ebaluatzea

| | |
|---|---|
| 67. jarduera | *Adierazleen katalogoa sortzea, EBk ezarritakoetan oinarritua hein batean, gizarte-bazterkeriarekin eta pobreziarekin estuen lotutako fenomenoek eta problematikek EAEn duten bilakaera aldian behin ebaluatzeko.* |

✓ Gizarteratze Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ● ●

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak pobreziaz egiten dituen azterketek gizarte-babesaren definizio bat hartzen dute oinarritzat, hots, Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemak (GBEIES) eskaintzen duena, horixe erabiltzen baita eskuarki Europako Batasunean.

EAE izan zen bigarren Autonomia Erkidegoa, Kataluniaren ondoren, bere Gizarte Babeseko Kontua GBEIES metodologiaren arabera martxan jarri zuena.

Gizarte Babeseko Kontu horren balio nagusietako bat informazio zabal eta jadanik egiazko bat biltzea eta artikulatzea da. Hona informazio horietako batzuk: Gizarte Zerbitzuen Estatistika, Ospitaleetako estatistika, eta beste hainbat, batzuk Eustaten ardurapekoak, eta beste batzuk Eusko Jaurlaritzarekin lotutako erakundeen ardurapekoak: adibidez, gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoari buruzko txostena, EAEn gizarte-segurantzako pentsioek dauzkaten datuak eta, oraintsuago, 2008ko Etxeetako Inkesta.

| 68. jarduera | *Ikerketa-programa bat ezartzea, pobrezia- eta bazterkeria-egoeretan eragiten duten faktoreez, eta horiei heltzeko erabilitako politikez.* |
|---|---|

✓ Zerbitzuen eta Programen Ebaluazio Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Oraindik ez da garatu pobrezia- eta bazterketa-egoeretan eragiten duten faktoreei buruzko ikerketa-programarik. Baina urrats bat eman da bederen, hau da, pobreziarekin eta gizarte-bazterkeriarekin lotutako faktoreek EAEn duten eraginaren ebaluazioa egiteko politika abiatu da, era erregularrean.

Honako ekintza hauek egin dira norabide horretan, adibidez: Oinarrizko Errentaren jasotzaileen profilei buruzko azterketa, Gizarte Zerbitzuen eta Prestazioen eskariaren azterketa, Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren azterketa-prozesua abiatzea, edo Gizarteratzeko Erakunde arteko 2007-2009 Plan honen inplementazioko tarteko fasearen ebaluazioa bera.

Arlo horretan abiatu den jarduerarik aipagarrienetako bat hauxe da: Etxeetako 2009ko Inkesta. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egin du. Biztanleria orokorraren artean egin da inkesta. Hiru izan dira helburuak: 1) biztanleriari eragiten dioten arazoen eta beharren ezagutzan oinarrituta egoeraren diagnostiko zehatza egiteko beharrezko informazioa hornitzea; 2) programek biztanleen bizi-baldintzetan duten eragina neurtzea, eta 3) erabiltzaileen eta oro har biztanleen gogobetetze maila neurtzea.

| 69. jarduera | *Maila autonomikoko mikrosimulazio-eredua egitea, zeinak erakutsiko baitu nolako eragina duten pobreziaren, desberdintasunaren eta/edo gastu publikoaren adierazleetan prestazio ekonomikoen eta zerga betebeharren alorreko erreformek.* |
|---|---|

✓ Zerbitzuen eta Programen Ebaluazio Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ○ ○

Asmo bat dago jarduera horren azpian, hots, Oinarrizko Errenta eta beste programa batzuk zerga-itzulketen bitartez bideratu ahal izatea. Mikrosimulazio-eredua egiteko, hasi dira jadanik aurretiazko eztabaidak.

Orain ebaluatzen den Gizarteratzeko II Euskal Planak berak ere, bere diagnostikoan, luze eta zabal lantzen zituen zerga-politikek dakartzaten aukerak.

Diagnostiko horretan, gizarte-politikak aktibatzeko eta enplegua errentagarri bihurtzeko formula ugari jasotzen dira: kutsu liberaleko workfare-tik herri eskandinaviarretan aplikatutako politiketaraino, eta prestazioaren baldintzazko izaera gero eta partekatuagoarekin, gainera. EAEn aplikatutako gizarte-politikek oso garbi onartu dute hasieratik aktibazioaren helburua, eta, ildo horretan, bultzada berezia jaso dute laneratzea aukera errentagarri bihurtzeko politikek. Errenta minimoa jasotzen dutenak eta lanik gabe daudenak dira horien helburu.

“Pobreziaren tranpa” saihestu nahi da horrela, hau da, lanik egin gabe laguntza-prestazio batzuk jasotzea, eta prestazio horiek lanean arituta jasotzen den soldataren parekoak izatea.

EAEn, Oinarrizko Errentak gero eta antz handiagoa du Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin. Pentsatzen da, beraz, politika horien garapena oso egokia dela erkidegoan. “Lana errentagarri bihurtzeko” gehien garatutako politiketako batzuk zerga-mekanismoen bidez artikulatu dira eta, zehazkiago, errentaren gaineko zergen bidez.

Gaur egun, PFEZaren zerga-arinketa eta kenkarietako askok ia ez dakarkiete onurarik diru-sarrera maila txikia duten pertsonei eta, beraz, aitorpena egiten ez dutenei edo konturako oso diru gutxi eman dutenei. Egoera horretan, Gizarteratzeko Euskal Planaren diagnostikoak honako aukera hau aurreikusten du, hots, prestazio ekonomikoa garbiak ematea zerga-sistemaren bitartez. Edonola ere, mikrosimulazio-ereduaren aurreko eztabaidek gauza bat ikusten dute etorkizunean, hots, gizarte-politika eta zerga-politika teilakatzea.

| 70. jarduera | *Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen jarraipenerako tresnaren erabilera orokortuari lotutako helburuaren tarteko ebaluazioa, behar izanez gero laneratzearen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzeko neurri zuzentzaileak abiarazteko.* |
|---|---|

✓ Zerbitzuen eta Programen Ebaluazio Zuzendaritza

2008ko betetze maila ● ● ●

Lan hau bera ere horixe da, hots, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen jarraipenerako tresnaren erabilera orokortuari lotutako helburuaren tarteko ebaluazioa. Hala, 3. jardueran, zorrotz aztertzen da gizarteratze-hitzarmenei egiten zaien jarraipena, eta adierazten da jarraipen hori ez dela erabatekoa, baizik eta soilik gizarte-zerbitzuen % 24,1ean egiten dela kasu guztietan. Eta, gero, 5. jarduerak Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoan “Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala” tresnak duen erabilera eta orokortze maila aztertzen ditu.

Esaten da, 5. jarduera horretan, “Diagnostikoa” aplikazioaren erabileraren orokortze erabatekoak eztabaida sortzen duela. Azterketa honako puntu hauetan labur daiteke:

- Gizarte-zerbitzuen % 40k baino gehiagok gutxi edo batere ez du ezagutzen tresna; % 37,9k hein batean ezagutzen du, eta % 27,6k bakarrik ezagutzen du ondo.
- Zerbitzuen % 44,8an, ezein gizarte-langilek ez daki aplikazioa erabiltzen.
- Zerbitzuen % 44,8an, gizarte-langileek ez dute batere trebakuntzarik jaso aplikazioaren erabileraz. Zerbitzuen % 24,1ean bakarrik jaso da behar adinako prestakuntza.
- Gizarte-zerbitzuen erdiek baino gehiagok ez dute ezertarako erabiltzen aplikazioa, eta biztanleriaren % 80 ordezkatzen dute horiek.

T 56. **EBALUAZIOAREN PARTE-HARTZAILEAK**

| Erakundea |
|---|
| **Kartzela-sistema administrazioa** |
| **Garapen agentziak** |
| **Udalak** |
| **Hezkuntza Saila** |
| **Osasun Saila** |
| **Foru Aldundiak** |
| **Gizarte Ongizate Zuzendaritza** |
| **Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza** |
| **Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza** |
| **Gizarteratze Zuzendaritza** |
| **Irabazteko xederik gabeko elkarteak** |
| **Inem** |

T 57. **GARAPEN AGENTZIAK: INTZIDENTZIAK**

| GA | FITXA |
|---|---|
| **Amurrio** | |
| **Llodio** | |
| **Vitoria** | Bete dute |
| **Rivabellosa** | |
| **Igorre** | |
| **Galdakao** | |
| **Getxo** | Bete dute |
| **Portugalete** | |
| **Sestao** | Bete dute |
| **Basauri** | |
| **Gernika-Lumo** | Bete dute |
| **Sondika** | Bete dute |
| **Bermeo** | |
| **Erandio** | |
| **Muskiz** | Bete dute |
| **Barakaldo** | Bete dute |
| **Bilbao** | Bete dute |
| **Markina-Xemein** | |
| **Durango** | Bete dute |
| **Mungia** | |
| **Urduña** | |
| **Berango** | |
| **Arrasate** | Bete dute |
| **Eibar** | Bete dute |
| **Donostia** | Bete dute |
| **Ordizia** | Bete dute |
| **Azkoitia** | Bete dute |
| **Oiartzun** | Bete dute |
| **Tolosa** | |
| **Legazpi** | Bete dute |
| **Zarautz** | |

T 58. **OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK**

| Udala | Web-galdeketa |
|---|---|
| **ARABA** | |
| **ALEGRIA-DULANTZI** | |
| **AMURRIO** | |
| **AÑANA OESTE** | |
| **AÑANA CENTRO** | |
| **AÑANA ESTE** | |
| **ARAMAIO** | |
| **AYALA/AIARA** | Bete dute |
| **ELBURGO/BURGELU** | |
| **LAUDIO/LLODIO** | Bete dute |
| **SALVATIERRA/AGURAIN** | |
| **(LAGUARDIA- RIOJA ALAVESA OESTE) VILLABUENA DE ALAVA / ESKUERNAGA** | |
| **(LAGUARDIA- RIOJA ALAVESA CENTRO) LAGUARDIA** | |
| **(LAGUARDIA- RIOJA ALAVESA ESTE) OYON / OION** | |
| **CAMPEZO /KANPEZU** | |
| **SALVATIERRA/AGURAIN** | |
| **VITORIA-GASTEIZ** | Bete dute |
| **ZUIA** | |
| **GIPUZKOA** | |
| **ADUNA** | Bete dute |
| **AIA** | |
| **AIZARNAZABAL** | |
| **ALBIZTUR** | Bete dute |
| **ALEGIA** | |
| **ALTZAGA** | |
| **AMEZKETA** | |
| **ANDOAIN** | |
| **ANDOAIN** | |
| **ANTZUOLA** | Bete dute |
| **ARAMA** | |
| **ARETXABALETA** | |
| **ARRASATE/MONDRAGÓN** | |
| **ASTEASU** | |

| T 58. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK | |
|---|---|
| **ASTIGARRAGA** | |
| **ASTIGARRAGA** | |
| **ATAUN** | |
| **AZKOITIA** | |
| **AZPEITIA** | |
| **BEASAIN** | |
| **BERASTEGI** | Bete dute |
| **BERGARA** | Bete dute |
| **BIDEGOIAN** | Bete dute |
| **BIDEGOIAN** | |
| **DEBA** | |
| **DONOSTIA-SAN SEBASTIAN** | Bete dute |
| **EIBAR** | Bete dute |
| **ELDUAIN** | Bete dute |
| **ELGETA** | Bete dute |
| **ELGOIBAR** | |
| **ERRENTERIA** | Bete dute |
| **ERREZIL** | Bete dute |
| **ERREZIL** | |
| **ESKORIATZA** | |
| **EZKIO-ITSASO** | |
| **GABIRIA** | |
| **GAINTZA** | |
| **GETARIA** | |
| **HERNANI** | |
| **HONDARRIBIA** | |
| **HONDARRIBIA** | |
| **IBARRA** | |
| **IDIAZABAL** | |
| **IRUN** | |
| **ITSASONDO** | |
| **LASARTE-ORIA** | |
| **LAZKAO** | |
| **LEGAZPI** | |
| **LEGORRETA** | |

T 58. **OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK**

| | |
|---|---|
| **LEZO** | |
| **LIZARTZA** | Bete dute |
| **MENDARO** | Bete dute |
| **MUTILOA** | |
| **MUTRIKU** | |
| **OIARTZUN** | |
| **OLABERRIA** | Bete dute |
| **OÑATI** | |
| **ORDIZIA** | |
| **ORIO** | |
| **ORIO** | |
| **ORMAIZTEGI** | |
| **PASAIA** | |
| **SEGURA** | |
| **SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS** | Epe-mugatik kanpo |
| **TOLOSA** | |
| **URNIETA** | |
| **URRETXU** | |
| **USURBIL** | |
| **VILLABONA** | |
| **ZALDIBIA** | |
| **ZARAUTZ** | Bete dute |
| **ZEGAMA** | |
| **ZERAIN** | |
| **ZESTOA** | |
| **ZIZURKIL** | Bete dute |
| **ZUMAIA** | |
| **ZUMARRAGA** | |
| **BIZKAIA** | |
| **ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA** | Bete dute |
| **AJANGIZ** | Bete dute |
| **ALONSOTEGI** | Bete dute |
| **AMOREBIETA-ETXANO** | |
| **AMOROTO** | Bete dute |
| **ARAKALDO** | |

| T 58. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK | |
|---|---|
| **AREATZA** | Bete dute |
| **ARRANKUDIAGA** | |
| **ARRIGORRIAGA** | |
| **BALMASEDA** | Bete dute |
| **BARAKALDO** | Bete dute |
| **BARRIKA** | Bete dute |
| **BASAURI** | |
| **BERANGO** | Bete dute |
| **BERMEO** | Bete dute |
| **BERRIZ** | |
| **BILBAO** | Bete dute |
| **BUSTURIA** | Bete dute |
| **DERIO** | |
| **DURANGO** | Bete dute |
| **EA** | Bete dute |
| **ERANDIO** | |
| **EREÑO** | Bete dute |
| **ERMUA** | |
| **ETXEBARRI** | |
| **GALDAKAO** | |
| **GATIKA** | |
| **GERNIKA-LUMO** | Bete dute |
| **GETXO** | Bete dute |
| **GORLIZ** | Bete dute |
| **GUEÑES** | Bete dute |
| **IBARRANGELU** | Bete dute |
| **IGORRE** | Bete dute |
| **IZURTZA** | Bete dute |
| **KARRANTZA HARANA/ VALLE DE CARRANZA** | Bete dute |
| **LEIOA** | Bete dute |
| **LEKEITIO** | |
| **LEMOIZ** | Bete dute |
| **LEZAMA** | |
| **MALLABIA** | Bete dute |
| **MANCOMUNIDAD ULI (BELAUNTZA, GAZTELU, LEABURU, OREXA)** | |

| T 58. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK: INTZIDENTZIAK | |
|---|---|
| **MARKINA-XEMEIN** | |
| **MARKINA-XEMEIN** | |
| **MARURI-JATABE** | |
| **MUNGIA** | |
| **MURUETA** | Bete dute |
| **MUSKIZ** | Bete dute |
| **NABARNIZ** | Bete dute |
| **ONDARROA** | |
| **OROZKO** | |
| **ORTUELLA** | Bete dute |
| **PLENTZIA** | Bete dute |
| **PORTUGALETE** | Bete dute |
| **SANTURTZI** | |
| **SESTAO** | Bete dute |
| **SONDIKA** | |
| **SOPELANA** | Bete dute |
| **UGAO-MIRABALLES** | |
| **URDULIZ** | Bete dute |
| **URDUÑA-ORDUÑA** | |
| **VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN** | Bete dute |
| **ZALDIBAR** | Bete dute |
| **ZALLA** | |
| **ZARATAMO** | |
| **ZEANURI** | Bete dute |
| **ZEBERIO** | |
| **ZIERBENA** | |

T 59. **UDALAK/MANKOMUNITATEAK: INTZIDENTZIAK**

| UDALA/MANKOMUNITATEA | Fitxa |
|---|---|
| **SOPELANA (MANCOMUNIDAD DE URIBE KOSTA)** | Bete dute |
| **BEASAIN** | |
| **LEIOA** | Bete dute |
| **ARRIGORRIAGA** | Bete dute |
| **SESTAO** | Bete dute |
| **ANDOAIN** | Bete dute |
| **ERMUA** | Bete dute |
| **IRUN** | Bete dute |
| **DURANGO (MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO)** | Bete dute |
| **LLODIO / LAUDIO** | Bete dute |
| **EIBAR** | |
| **BASAURI** | Bete dute |
| **BARAKALDO** | Bete dute |
| **AMURRIO** | |
| **BERMEO** | Bete dute |
| **HERNANI** | Bete dute |
| **LASARTE** | |
| **ZARAUTZ (MANCOMUNIDAD)** | |
| **VITORIA-GASTEIZ** | Bete dute |
| **AMOREBIETA** | |
| **BILBAO** | |
| **ERANDIO** | Bete dute |
| **GALDAKAO** | Bete dute |
| **GERNIKA (MANCOMUNIDAD BUSTURIALDEA)** | |
| **GETXO** | Bete dute |
| **MUNGIA (MANCOMUNIDAD DE MUNGIALDEA)** | |
| **PORTUGALETE** | Bete dute |
| **SANTURTZI** | |
| **VALLE DE TRÁPAGA** | Bete dute |
| **ARRASATE** | |
| **AZKOITIA** | |
| **AZPEITIA** | |
| **BERGARA** | |

T 59. **UDALAK/MANKOMUNITATEAK: INTZIDENTZIAK**

| | |
|---|---|
| **DONOSTIA** | |
| **ELGOIBAR** | Bete dute |
| **ERRENTERIA** | |
| **HONDARRIBIA** | |
| **OÑATI** | |
| **PASAIA** | Bete dute |
| **TOLOSA** | |
| **ZUMARRAGA** | |

# JARDUERAK

1. jarduera Gizarte-bazterkeriaren kontrako Legeak eta Eskubide Sozialen Gutunak sorrarazitako lege-esparrua berrikustea, bien helburuen eta edukien araberako arau-berregokitzapenak egiteko. ....27

2. jarduera Arau-esparru orokorrean egindako aldaketei dagozkien Dekretuak onartzea. ..36

3. jarduera Errefortzu-langileak kontratatzeko dirulaguntzen banaketari buruzko Agindua aldatzea. Ildo horretan, laguntzak banatzerakoan, Oinarrizko Errentaren eta GLLren onuradunak gizarteratzeko hitzarmenak sinatu dituzten eta horiei babes-programa pertsonalizatuak eskaintzen dizkieten udalei emango zaie lehentasuna. ....36

4. jarduera Gizarteratze-alorreko jarduerak egiteko dirulaguntzei buruzko Araua aldatzea, GKEekin urte anitzeko hitzarmenak sina daitezen. Hitzarmen horien helburua bazterkeria maila handiko taldeak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko prozesuak kudeatzea izango da, oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza emanez eta horiekin koordinaturik jardunez. ....39

5. jarduera “Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoko diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako” erremintaren erabilera orokorrean hedatzea, gizarteratze-prozesuetan nahitaezko bihurtzea eta aipatutako sistemako erremintak estandarizatzeko prozesuan txertatzea. “Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoko diagnostiko eta esku-hartze sozialetarako” erreminta erabiltzen laguntzeko eta irakasteko taldeak sortzea.. ....40

6. jarduera Gizarte.net helbidean eskuragarri dagoen “Diagnostikoa eta esku-hartze soziala” erreminta hedatzea, prestazio-programa eta gizarteratze- eta laneratze-programa guztietan erabil dadin. ....46

7. jarduera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Lanbideko Orientazio Zerbitzuen eta EINren arteko lankidetza-protokoloak orokorrean hedatzea. ....47

8. jarduera Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema garatzea eta, horren baitan, dirulaguntzen modulua berariaz finkatzea. ....52

9. jarduera Informatika-aplikazio egokia egitea, xehetasun hauek guztiak ezagutzeko: EAEko gizarteratze-baliabideen mapa, unean uneko eta lurralde bakoitzeko baliabide eskuragarriak, eta horiek eskuratzeko baldintzak eta okupazio maila. Sisteman jasotako informazioa eta “Diagnostiko eta Esku-hartze Sozialetarako” aplikatiboarekin jasotakoa elkarri lotuta egongo lirateke. ....53

10. jarduera Gizarteratzearen alorrean lan egiten duten zentro eta zerbitzuetan kalitatezko erremintak sustatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto aprobetxatzeko, eta emandako zerbitzuen eta gauzatutako programen eraginkortasuna balioestea, ebaluazio-tekniken bidez eta sistema etengabe hobetuz. ....54

11. jarduera Oinarrizko Errenta ebaluatzeko eredua diseinatzea eta ebaluazio-adierazleak zehaztea, erabilera hobetzeko erabakiak neurtzeko, kontrolatzeko eta bideratzeko. Era berean, hartzaileen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko aldizkako informazio-sistema sortzea, eta alderdi horiek ebaluatzerakoan foru-aldundietako eta udaletako gizarteratze-sailetako arduradunen irizpideak hartzea kontuan, batik bat. ....56

12. jarduera Gizarteratzeko Erakunde arteko Plana Immigraziorako Euskal Planarekin, Erakunde arteko Enplegu Planarekin, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planarekin, Gizarte Politikak Ebaluatzeko Planarekin eta Drogomendekotasunaren Euskal Planarekin etengabe koordinatzeko baliabideak jartzea. ....59

13. jarduera Foru Aldundiek eta, hala badagokie, udalek programa eragileak idatz ditzaten sustatzea, horietan azaltzeko gizarteratze-helburuak eta horien bidez estaldura homogeneoa emateko aipatutako kolektiboei. ....61

14. jarduera Erakundeen arteko mahaiak sustatzea Lurralde Historiko bakoitzean, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta gizarteratzearen aldeko politikak koordinatzeko. ....69

15. jarduera EAEko espetxeetan kondena betetzen ari direnei gizarte-zerbitzu gehiago eskaintzea, batez ere neurri judizialak betetzen ari diren adingabeko lege-urratzaileei. ....70

16. jarduera Bizikidetza unitatea berriro definitzea, familia-gunearen benetako egoerara hurbilduz kontzeptua eta, hartara, familia-gunetik kanpo dauden familia-kideak bizikidetza unitate independentetzat jo ahal izateko, egoera jakin batzuetan. ....72

17. jarduera Oinarrizko Errentaren zenbatekoa LGSren % 100arekin parekatzea 65 urtetik gorako Oinarrizko Errentaren hartzaileei eta premia-egoeran dauden adin horretatik beherako pentsiodunei. ....73

18. jarduera Salbuespen gehiago sartzea, 23 urtetik beherako adin nagusikoek Oinarrizko Errenta eskuratzeko aukera izan dezaten: 18-23 urte bitartekoen taldeko premia berezidun kasu guztiak sartzea, premia-egoera horiek arautzea, eta Erakunde arteko Jarraipen Batzordeak irizpideak finkatu eta bateratzea, araudian ageri ez den egoera oro behar bezala aztertu eta bidera dezaten Gizarte Zerbitzuek eta Foru Aldundiek. ....73

19. jarduera Gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden guraso bakarreko familiei ematen zaien babesa areagotzea. Oinarrizko Errentaren hobari edo gehigarri bat ematea, guraso bakarreko familietako seme-alabak zaintzeko. ....75

20. jarduera Gizarteratze-zentroei buruzko hitzarmenaren arauzko garapena. ....75

21. jarduera Etxebizitza Prestazio Osagarria ezartzea eta eskubide bihurtzea, aldian behin etxearen alokairu-gastuak edo interesenak edo etxea nahiz ohiko bizilekua erosteko eskatutako kredituen amortizazioak ordaintzeko gastuak aurkezten eta egiaztatzen dituzten pertsonentzat. 80

22. jarduera GLLen jatorrizko izaera (laguntzazkoa eta behin-behinekoa) sendotzea, betiere laguntza horien bidez ordaintzen diren edukien izaera egokitzeari kalterik egin gabe, prestazioak finantzatzeko behar hainbat baliabide emanez programa horiei. ....80

23. jarduera Gizarteratze-prozesu puruak prozesu mistoetatik edo babes sozialeko beste batzuetatik bereiztea, eta azken horietarako diru-sarrera osagarrien mekanismoak ezartzea, kudeaketa automatizatuagoa, gardenagoa eta arinagoa bermatzeko. ....82

24. jarduera Hiru Herrialde Historikoetako Oinarrizko Errenta Sistema bateratzea, eta guztietan sendotzea administrazioaren ikuskatze-tresnak. ....88

25. jarduera EAEko hiru Herrialdeetan harmonizatzea gizartean baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako laguntzak eta laguntza bereziak. ....89

26. jarduera Gizarteratze-enpresen garapenerako emandako laguntza sendotzea. ....91

27. jarduera Auzolan programari emandako laguntza sendotzea. ....95

28. jarduera Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren, ezgaitasunaren eremuko elkarteen eta EAEko Enplegu Zentro Berezien arteko lankidetza-programak sustatzea, ohiko lan-merkatuan sartzen laguntzeko enplegu-programen garapenari arreta berezia jarriz. ....96

29. jarduera Enpresei emandako pizgarri ekonomikoen bidez, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzea sustatzea, kontratu egonkorra eta kalitatekoa eskainita. ....97

30. jarduera Prestakuntzako eta enpleguko, eta familia eta lana bateratzeko eta laguntzeko zerbitzu espezifikoak sortzeko programa funtzio anitzekoak jartzea martxan, baztertuta geratzeko arriskuan diren sektoreentzat: guraso bakarreko familiak, kalitate apaleko lana duten edo lanik gabe dauden gazte emantzipatuak etab. ....97

31. jarduera Aukera eman, salbuespenezko kasuetan, gizarteratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonak luzaroago egon daitezen gizarteratzeko eta laneratzeko programetan. 105

32. jarduera Gizarteratze-alorrean jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen Aginduaren bitartez, gizarteratzeko eta laneratzeko sustapen- eta laguntza-programak bultzatzea, oso baztertuta dauden pertsonei eta, bereziki, Oinarrizko Errentak jasotzen dituzten kronifikatuei zuzenduta. ....105

33. jarduera Laneratzen laguntzeko zerbitzu espezifikoak sortzea, familia-kargak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan diren emakumeei, eta lan prekarioak dituzte gazte emantzipatuei zuzenduta, horien ardurapean dauden haurren edo beste mendeko pertsona batzuen zaintza bermatzen dela....105

34. jarduera Lankidetza-protokoloak orokortzea Justiziarekiko eta Gazte Justiziarekiko lankidetza-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean. Horrela, gizarteratze- eta laneratze-prozesuak erraztuko zaizkie aipatutako Administrazioaren, hots, Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuen (ALEZ), Birgizarteratzeko Laguntza Zerbitzuen (BLZ) eta adingabe arau-hausleentzako Hezkuntza eta/edo Egunezko Arreta Zentroen mendean diren taldeei, hirugarren sektoreko erakundeen papera indartzen dela koordinazio- eta jarraipen-prozesuetan. 107

35. jarduera Pasabideak sortzea Gizarteratze Zuzendaritzaren laneratze-programen eta Foru Aldundien Prestakuntza eta Enplegu Zuzendaritzen prestakuntza- eta enplegu-programen artean. ....109

36. jarduera Lan-merkatura sartzeko aukerak sustatzea diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen artean, lana sustatzeko egungo sistema eguneratzen dela. ....110

37. jarduera Kualifikazio txikiko eta arrazoi ugarigatik lanetik kanpo egon diren pertsonen laneratzea sustatzea, lan-merkatuan sartzeko pizgarri zehatz batzuk ezarrita. ....110

38. jarduera Soldata txikiak dituzten langileen babeserako beharrezko mekanismoen ezarpenean aurrera egitea, 19. jardueran aipatutako diru-sarrera osagarrien sistemaren bitartez. 110

39. jarduera Gizarteratzeko eta laneratzeko baliabide berrien garapena sustatzea, finantziazioaren alorretik, arreta berezia ematen zaiela “banku-jarduera etikoa” izen generikoaren pean biltzen diren tresnei. Baliabide horiek bi helburu izango lituzkete: batetik, gizarteratze-alorrean ari diren erakundeen funts-atzitze sistema handitzea, eta, bestetik, ezohiko funts ekonomikoetarako bidea erraztea, mikrokredituen bidez, gizartean baztertuta dauden pertsonei. ....111

40. jarduera EAEko administrazio publikoetan zenbait gizarte-klausula sartzearen alde egitea. Klausulok aurretiazko betekizun, balorazioko elementu edo betebehar bezala izango lukete lehentasuna....111

41. jarduera Gizarte Zerbitzuen Lege berri bat onartzea, eta lege horrek: - aitortuko eta arautuko du EAEko herritarrek eskubide subjektiboa dutela Legeak unibertsaltzat jotako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko; - behar bezala arautuko du prestazio eta zerbitzu bakoitzaren izaera eta tipologia, Zerbitzuen Katalogo baten esparruan, eta - behar diren oinarriak ezarriko ditu, gizarte-zerbitzuei giza baliabideen, baliabide teknikoen eta baliabide ekonomikoen hornidura egokia ziurtatzeko. ....113

42. jarduera Beharrezko araugintza egitea, hiru Lurralde Historikoetan gizarte-zerbitzuen horniduraren eta estalduraren maila egokia bermatzeko, bai oinarrizko zerbitzuetan, bai espezializatuetan, zerbitzuok bazterketa-arriskurik handieneko taldeei zuzentzen zaizkiela. 116

43. jarduera Oinarrizko gizarte-zerbitzuen indartze orokorra ....117

44. jarduera Gizarte Zerbitzuei buruzko informazio-sistemaren garapena....119

45. jarduera Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren tresnak estandarizatzea....120

46. jarduera Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egitea. ....120

47. jarduera Oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistema bat garatzea, diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan osasunarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa txertatzeko. ....122

48. jarduera Osasun-esparruko jarduera espezifikoak garatzen jarraitzea, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak eta taldeak gizarteratzea baitute helburu. 122

49. jarduera Informazio-sistemen garapenari ematea lehentasuna, osasun mailako gizarte-desberdintasunen banaketa hobeto ezagutzeko eta horien bilakaera ere monitorizatzeko, eta, aipatutako sistemen garapenak uzten duen heinean, EAEn ematen den osasun-arretaren ekitatea aztertzea/ikertzea. ....124

50. jarduera Plan Estrategiko Soziosanitarioa garatzea, gainerako arlo arduradunekiko koordinazioan aurrera eginez, haren helburu espezifikoak eta orokorrak lortzeko. ....125

51. jarduera Oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko komunikazio-sistema garatzea, diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan etxebizitzarekin lotutako alderdien gaineko informazioa txertatzeko. ....128

52. jarduera Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan diren eta etxebizitzarik ez duten pertsonei babes ofizialeko etxeen programarik sozialenetara iristen laguntzea, gizarteratze- eta laneratze-prozesuen sendotzea errazteko, etxebizitza babestuen programarik sozialenetan haien partaidetza sustatzen dela. ....128

53. jarduera Etxebizitza- eta bizitoki-parkea sortzea, gizarteratze-prozesuetan laguntzeko. 128

54. jarduera Komunikazio-sistema bat garatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuekin, hezkuntzarekin lotutako alderdien informazioa diagnostiko sozialean eta gizarteratze-hitzarmenetan txertatzeko. ....129

55. jarduera Eskola-absentismoa ezabatzeko, ikasle etorkinak hartzeko eta gizartean egoera txarrean diren ikasleak dituzten ikastetxeei baliabide egokiak bermatzeko programak indartzea. 129

56. jarduera Absentismo-arazorik, eskola-porrotik... handienak dituzten ikastetxeetan ahalegin berezia egitea, hezkuntza-indargarriak eta hezkuntzako esku-hartze proiektu espezifikoak eskaintzeko. ....131

57. jarduera Hezkuntza- eta laguntza-eskariaren estaldura handitzen jarraitzea 0 eta 2 urte arteko tartean. ....131

58. jarduera Egoerarik txarreneko ikasleentzako laguntza hobetzea, bekak eskuratzeko eta eskolaz kanpoko jardueren gastuetarako laguntzekin, hala nola, testuliburuak berrerabiltzeko programaren bitartez. ....132

59. jarduera Eritasunekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzari buruz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Osasun Sailak onartutako Zirkularra inplementatzea. ....132

60. jarduera EAEn bizi diren etorkin guztien erregularizazio administratiboa errazteko mekanismoak sustatzea, orain dauden egoeran ezin baitituzte erabili beren oinarrizko gizarte-eskubideak. ....136

61. jarduera Zigorren betetze alternatiborako beharrezko zentroak eta ekipamenduak egokitzea, gainerako erakunde eskudunekin koordinatuta. ....137

62. jarduera Koordinazioa sustatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta espetxeetako gizarte-zerbitzuen artean, kartzelatik ateratzen edo hirugarren gradura pasatzen dena gizarteratze- eta laneratze-programa espezifiko batera joan dadin. ....137

63. jarduera Gizarte-erroldatze sistemak arautzeko aukeren azterketa, zeren, sistema horien bidez, eta zenbait baldintza beteta, etxerik gabeko pertsonak gizarte-zerbitzuetako

zentroetan errolda bailitezke, eta erroldatze hori baliozkoa litzateke laguntza ekonomikoak eta beste laguntza batzuk jasotzeko. ....................................................................................138

64. jarduera Gizarteratze Planeko Idazkaritza Teknikoa edo antzeko erakunde bat sortzea. Planeko neurrien aplikazioaren jarraipenaz, emaitzen adierazleak finkatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratuko litzateke.................................................................................139

65. jarduera Gizarteratzeko Sailen arteko eta Erakunde arteko Batzordeak eta, halaber, Batzorde Iraunkorra aktibatzea, parte-hartze maila handiagoak sustatzen direla gizarteratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan ...............................................................139

66. jarduera EAEn gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren alorrean gauzatutako jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena egiteko aukera emango duten neurriak ezartzea, haien emaitzak ezagutzera ematea eta funtsezko osagaiak sare osora hedatzea. 141

67. jarduera Adierazleen katalogoa sortzea, EBk ezarritakoetan oinarritua hein batean, gizarte-bazterkeriarekin eta pobreziarekin estuen lotutako fenomenoek eta problematikek EAEn duten bilakaera aldian behin ebaluatzeko. ..................................................................142

68. jarduera Ikerketa-programa bat ezartzea, pobrezia- eta bazterkeria-egoeretan eragiten duten faktoreez, eta horiei heltzeko erabilitako politikez. ....................................................143

69. jarduera Maila autonomikoko mikrosimulazio-eredua egitea, zeinak erakutsiko baitu nolako eragina duten pobreziaren, desberdintasunaren eta/edo gastu publikoaren adierazleetan prestazio ekonomikoen eta zerga betebeharren alorreko erreformek...........143

70. jarduera Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen jarraipenerako tresnaren erabilera orokortuari lotutako helburuaren tarteko ebaluazioa, behar izanez gero laneratzearen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzeko neurri zuzentzaileak abiarazteko........................144